

•eus  
**Jakin247**

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua  
2021

# Euskal kultura 2021

**COVID edo postCOVIDaren urtea?**

ISMAEL MANTEROLA

**Euskal kultura segurua da?**

AINHOA URIEN

ALBERTO BARANDIARAN  
NORA ARBELBIDE  
AMAGOIA GURRUTXAGA  
IRATI AGIRREAZKUENAGA  
JON BASAGUREN  
ESTIBALITZ EZKERRA  
IZASKUN ARANDIA  
MANEX AGIRRE  
LIBE MIMENZA

TXAKUR GORRIA  
DANI FANO  
MAITANE GARTZIANDIA  
MADDI ZUMALABE  
AXPI  
JOSEVISKY  
MAITE CABALLERO  
MIKEL LARRAIOZ

**LIBURUAK**

Euskal liburugintza 2019

XABIER EIZAGIRRE

**Jakin**<sup>•eus</sup>**247**  
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua  
2021



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel  
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua  
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 Andoain  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 29. Andoain (Gipuzkoa)

## SUMMARY

5

## ZUZENDARIAREN HITZAK

7

## GAI NAGUSIA Euskal kultura 2021

### **11** COVID edo postCOVIDaren urtea? Ismael Manterola Ispizua

2021ak eragin dituen kultura eta arteari buruzko hausnarketa solteak biltzen dira, hainbat ataletan banatuta: testua, mugak, artearen pisu galera, turismo kulturala, industria kulturalak eta sariak eta diru laguntzak.

### **29** Euskal kultura segurua da? Ainhoa Urien Telletxe

Pandemiak larriagotu duen prekaritatea eta horrek areagotu duen ziurgabetasuna dira aztergai. Baikortasunerako motiboak ere azpimarratzen dira, ordea: 2021ean demostratu da euskal kultur ekoizpena segurua ez ezik ziurra ere badela.

### **49** Alberto Barandiaran Amillano • Txakur Gorria Dani Fano • Nora Arbelbide Lete • Amagoia Gurrutxaga Uranga • Irati Agirreazkuenaga Onaindia • Maitane Gartziandia • Maddi Zumalabe Irastorza • Jon Basaguren Lauroba • Estibalitz Ezkerra Vegas • Axti • Izaskun Arandia Galarraga

Josevisky • Manex Agirre Arriolabengoa • Maite Caballero Arrieta • Mikel Larraioz Alvarez de Eulate Libe Mimenza Castillo

Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea idazten dute hamaika egilek. Alberto Barandiaran Amillanok kultur sormenak eta sorkuntzak gure gizartean betetzen duen lekuari buruz egiten du gogoeta, besteak beste; Nora Arbelbide Letek Frantziako Estatuak euskarari eta euskal kulturari jartzen dizkien egiturazko traben ondorioez dihardu; Ama-goa Gurrutxaga Urangak Lanartea euskararen langile profesionalen elkarrearen sorrera eta xedeak ditu aztergai; Irati Agirreazkuenaga Onaindia, Jon Basaguren Lauroba, Estibalitz Ezkerra Vegas, Izaskun Arandia Galarraga, Manex Agirre Arriolabengoa eta Libe Mimenza Castilok antzerki, musika, literatura, zinema, bertsolaritza eta hedabideen eremuak jorratzen dituzte, hurrenez hurren. Txakur Gorria, Dani Fano, Maitane Gartziandia, Maddi Zumalabe Irastorza, Axpi, Josevisky, Maite Caballero Arrieta eta Mikel Larraioz Alvarez de Eulateren begiradak biribiltzen du urtearen balantzea.

## LIBURUAK

### **119** Euskal liburugintza 2019 Xabier Eizagirre Gesalaga

2019an euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten da: ohar metodologikoak; liburu produkzioaren zifren iturriak; argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertako argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluen zifrak eta nobedadeak eta berrargitalpenak; azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

## KONTRAZALA Dom Campistron

## BASQUE CULTURE 2021

### The year of Covid or post-Covid?

The critic and lecturer of art Ismael Manterola Ispizua brings together a series of reflections about culture and art in 2021 in terms of the following: borders in Basque culture, the loss in weight of art, cultural tourism, cultural industries, prizes and grants. **Ismael Manterola Ispizua**

### Is Basque culture safe?

The writer Ainhoa Urien Telletxe reflects on the precariousness and insecurity that has been accentuated by the pandemic. In contrast, she also highlights the optimism: it has been demonstrated in 2021 that Basque cultural production is both safe and secure. **Ainhoa Urien Telletxe**

### Basque culture 2021

Nine authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with some critical thought about the cultural events that have taken place in 2021. Alberto Barandiaran Amillano analyses, among other issues, the function performed by Basque creativity and cultural production in our society; Nora Arbelbide Lete reflects on the structural hindrances imposed by the French state on Basque language and culture; Amagoia Gurrutxaga Uranga analyses the creation and aims of the Lanartea group of Basque language professionals; Irati Agirreazkuena-ga Onaindia, Jon Basaguren Lauroba, Estibalitz Ezkerra Vegas, Izaskun Arandia Galarraga, Manex Agirre Arriolabengoa and Libe Mimenza Castillo provide an assessment of the activity that has taken place in the fields of drama, music, literature, film, verse improvisation and the media, respectively. A satirical, artistic look at things by the cartoonists Txakur Gorria, Dani Fano, Maitane Gartzandia, Maddi Zumalabe Irastorza, Axpi, Josevisky, Maite Caballero Arrieta and Mikel Larraioz Alvarez de Eulate illustrates this assessment of Basque culture. **Various authors**

### Basque bibliography 2019

Xabier Eizagirre Gesalaga, a graduate in Philosophy and editor-in-chief of JAKIN, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2019. In this year, 2.291 books were published in the Basque language, 105 more than in 2018. Most of these publications are school books (36,4%), followed by children's and young people's literature (26,6%), books on human and social sciences (14,7%) and literature for adults (13,5%). The author continues with the work involving the classification and study of Basque bibliography that Joan Mari Torrealdei first embarked on in 1976. **Xabier Eizagirre Gesalaga**

**E**zinbestean, bigarren urtez COVID-19aren eraginpeko urteko kultur kronika dugu aurtengoa ere. Bigarren urtea COVID ondoren. II urtea (C.o.). Egun, muga da hitza, baina muga zen hitza. Zalantza zen hitza, zalantza da hitza. «COVID-19aren izurriteak argi utzi digu betidanik pentsatu duguna: kulturarena sistema zaugarria da, eta, une batetik bestera, kale gorrian geratuz gero, ez dago babes neurri gehiegirik», idatzi du Ismael Manterolak kulturaren egoeraren bere diagnosi sarri autopsia zorrotzean. Ainhoa Urienek ere kultur prekaritatea dakar diseziora, feminismo gorpuztuaren talaiatik, jakitun «prekaritate moldeek berdin balio zutela pandemia aurretik ere» eta *normalitate berriko* «kulturaren segurantzak badituela ziurgabetasun hainbat».

«Bizitzarekiko jarrera dudaz busti hori aurretik zetorrela, eta osasun-krisiak bizkortu egin duela, sakonagotu... egiturazko bihurtu?», zalantza eta guzti, aitzinarazten du gogoeta Manex Agirrek: «kez-kametroan» gora goaz.

Ez dakigula gero eta gehiago, baina gero eta informazio gehiago dugula ere gehitu du. Hedabideen munduan aditu den Libe Mimenzaren estiloan esateko: «informazio gehiegi, ulertzeko ia deus».

«Ez dirudi asmatu dugunik hurrengo belaunaldiei kulturaren garrantzia eta zaletasuna transmititzen». Hori ere Manterolaren iritzia da eskuak kulturaren lokatzetan sartuta. «Ia inor ez da sortzaileei begira bizi; ia inork ez die aitortzen mundua eraldatzeko gaitasuna. Oro har, sortzaileak ezezagunak dira, ikusezinak askotan», gehitu du Alberto Barandiaranek. Amagoia Gurrutxagak ideia bera garatu du, sortzaileen lan eta bizi baldintzen gaineko bere analisis, Lanartea erakundearen begiradatik.

Nora Arbelbide Frantzian, gaur bertan eta hemen, euskarak eta euskal kulturak sufritzen duen kolonialismo basatiaz ari da, eta baita horri erantzuteak dakarren zigorraz ere. Eta, hara zer paradoxa, Estitxu Ezkerrak, Estatu Batuetatik, Iberiar ikasketak deitu lerroaren barnean euskal literaturari ematen zaion bazterreko lekuaz eta kolonizazioaz ari zaigu, eta hori salatzeak dakarren zigorraz. Bi leku, jokabide bera. Hori ez du C.o. II urteak ekarri.

Jon Basagurenek azpimarratzen duenez, «musika jotzeak, entzuteak, sentitzeak eta partekatzeak asko baitu askatasunetik, eta azken garai hauek oso gutxi», eta Irati Agirreazkuenagak dio izurriteak berrasmatzera behartu gaituela. «Paradigma aldaketa asko ekarri dituen garaian, sormen eta irudimen ariketek berebiziko presentzia izan dute, baita arte eszenikoetan ere».

Urte «konplikatua», Izaskun Arandiaren arabera, zinemaren eta ikus-entzunezkoen alorrean bizi izan dena, baina argi izpiren bat ere ikusi du Pantailak Euskaraz egitasmoaren eskutik, esate batera; izan ere, gaur-gaurkoz, «ikus-entzunezkoaren eskaintzan kasik entzunezina da gure hizkuntza». Mimenzaren galderak ere balio du, hedabideez harago, kultur eremu osorako: «Nor ari da existitzen ez den euskararen algoritmoa pentsatzen, garatzen?».

Eta, halere, *e la nave va. Eppur si muove*.

Beti egin bezala. Eta, hala ere, sortzen eta mundu berriak sortzen segitzen dugu. Batzuetan miragarriki. Baina, ondorengo orrietan, *kezkametroaren* diagnosiaren gordinaren ondoren, gorai patu beharreko ekimen eta sormen-lan zerrenda luzea dator. Hitzetan bezala, marrazkiz ere gogoetatzen dugu, eta Txakur Gorria kolektiboak, Dani Fanok, Maitane Gartzandiak, Maddi Zumalabek, Axpik, Joseviskyk, Maite Caballerok eta Mikel Larraiozek irudi banatan osatu dute aurtengo kultur kronika. Dom Campistronek debekuen kontra sortu ziren libertimenduak aurten ere egin direla gogorarazten digu kontrazaletik.

## EUSKAL KULTURA 2021

**11** COVID edo postCOVIDaren urtea?

Ismael Manterola Ispizua

**29** Euskal kultura segurua da?

Ainhoa Urien Telletxe

**49** Alberto Barandiaran Amillano

Txakur Gorria

Dani Fano

Nora Arbelbide Lete

Amagoia Gurrutxaga Uranga

Irati Agirreazkuenaga Onaindia

Maitane Gartziandia

Maddi Zumalabe Irastorza

Jon Basaguren Lauroba

Estibalitz Ezkerra Vegas

Axpi

Izaskun Arandia Galarraga

Josevisky

Manex Agirre Arriolabengoa

Maite Caballero Arrieta

Mikel Larraioz Alvarez de Eulate

Libe Mimenza Castillo

### COVID edo postCOVIDaren urtea?

**T**estu hau idazteko unean, ez dakit oso ondo non gauden, ez dakit 2021. urtea COVIDaren edo postCOVIDaren urte moduan pasatuko den historiara. Desorientazio horrek testua baldintzatuko du, ez baitakigu iaz Katixa Agirrek atal honetan idatzitako testuan hekatonbe hitza aurreko urteari bakarrik dagokion edo kronifikatuta geratuko zaigun etorkizunerako. Ez dakit gaixotasunak agerian utzi dituen gabezia edo biluztasunen aurrean ez ikusiarenak egin behar dugun eta lehenbailehen 'normalitatera' bueltatu nahi dugun; edo, aldiz, normala deitzen genion hori zeharo anormala zela konturatu garenean aldaketak egin nahi ditugun norbaitek eraiki duen gizarte ero honetan.

Ipuineko erregea bezala, biluzik zegoen gure gizartea; baina, disimulatzaera oso ohituta gaudenez, terrazetan zerbeza hartzen jarraitu nahi dugu mundua erortzen ari den bitartean. Gure 'bizimodu normala' defendatzeko manifestazioak edo kale borrokak antolatzeke prest gaude, baina, argiaren prezioa (edo energiaren lapurreta, hobeto esanda) neurrigabe igotzen digutenean, haserretu besterik ez gara egiten, edo, gehienez, terrazan zerbeza edan bitarteko elkarrizketaren gai bihurtzen dugu.

Halako testuinguruan idatzitako lerro hauetan, azken urteotan Euskal Herriko arte munduan egon diren aldaketen gaineko hausnarketa solteak egiteko asmoa dago, lehen

aipatutako COVID delakoak utzitako desorientazio fisiko eta psikologikoak ez baitu beste ezertarako ematen. Nahiz eta aurreko paragrafoan soziologoarena egiten hasi naizen, jarraian datozen lerrootan, kultur adierazpen ezberdinekin partekatuko diren gertaerak aipatuko dira. Sarritan kultura eta artea sinonimo moduan erabiliko badira ere, irakurlearen lana izango da bereizketa egitea.

## Mugak

Ettxepare Institutuak aurtengo EHUko Udako Ikastaroetan parte hartzera gonbidatu ninduen, euskal kulturaren mugak eta mugimenduak arte plastikoen ikuspuntutik aztertzeko. Muga psikologikoak aipatzeaz gainera, betiko zatiketa administratiboa aipatzea ezinbestekoa da, bi estatu, bi autonomia erkidego espainiar eta hiru aldunditan banatutako herria baikara. Zortzi administrazio ezberdinen artean banatutako euskal kulturaren, ezberdintasun nabarmenak topatuko ditugu mendebaldetik ekialdera edo iparraldetik hegoaldera. Zaila da horrelako herri bat kulturaren ikuspuntutik antolatzea: arte ikasketak ezberdinak dira Frantzian eta Espainian, artearen merkatuak baldintza ezberdinak ditu batean eta bestean, galeria sistema eta bilduma publikoak oso desorekatuta daude herrialdeen artean, laguntza sistemak ez daude bateratuta, museo sarea antolatzea ezinezkoa da eta posible denean ere ez da egiten, erosketa politikak daudenean gainjarri egiten dira... Horrez gain, Euskal Herriak dituen mugek nazioarteratzea oztopatzen dute. Batetik, Hegoaldeak Espainiara begiratzeko du, eta, bestetik, Iparraldeak Frantziara, mugikortasuna errazagoa delako estatuen artean, kulturaren kolonizazioak erreferente espainiarrak edo frantsesak moldatu dituelako, hizkuntzak asko baldintzatzen duelako, hezkuntza sistemak estatuen esku daudelako (nahiz eta Boloniak unibertsitate sistema europarra iragarri, oraindik errazagoa da gaur egun frantses nazionalitatea duen Lapurdiko gazte batentzat 500 kilometrora dagoen Frantziako unibertsitate batean izena

ematea 60 kilometro eskasera duen Donostiako unibertsitatean baino), kultura arautzen duten legeak ezberdinak direlako estatuen artean (adibidez, artea saltzeko orduan, BEZ delakoa edo artistaren estatutua)...

Adierazgarria da kulturen arteko muga bizitzeak ez duela herrialdea gehiegi aberastu. Frantziako kultura ezezaguna da bilbotarrentzat, eta Espainiakoa ezezaguna Baionakoentzat (nahiz eta Iparraldekoek Espainiako erreferentziak gehiago ezagutu); ez da nahasketarik edo kultur mestizajerik gertatu. Zer esanik ez Euskal Herrira iritsi diren beste kulturekin: marokorarekin, senegaldararekin, latinoamerikararekin... Horiek guztiak gureganatu beharrea, atzerritar moduan tratatzen jarraitzen ditugu oraindik, eta 'haien' kulturak apenas du eraginik gurean.

Aurreko paragrafoan aipatutako zatiketa administratiboak eragin handia dauka bilduma publikoetan. Lehen esan dugun bezala, Euskal Herri mailako museo sarerik ez dago, eta ez du ematen egoteko aukera egongo denik inoiz. Hala ere, sarea osatzeko aukera dagoenean, adibidez EAEn, ez zaio behar bezalako bultzada ematen. Museo bakoitzak bere asmoak ditu, eta ez dago ez espezializatorik, ez elkarren arteko komunikatorik. Garai batean erakunde publiko askok arte garaikidea erosteko ohitura bazuten ere, une honetan museo handien erosketek eta sarien bitartez bilduma publikoetara iristen diren artelanek osatzen dituzte erakunde horien bildumak. Kontuan izan behar dugu orain dela gutxi arte Artium bezalako museo bat erosketak egiteko aurrekonturik gabe egon dela 2008ko krisiaren ondorioz. Zaila da herri txiki honetan arte garaikidea erosteko orduan museoen

Hegoaldeak Espainiara begiratzen du, eta Iparraldeak Frantziara, mugikortasuna errazagoa delako estatuen artean, kulturaren kolonizazioak erreferente espainiarrak edo frantsesak moldatu dituelako

artean dagoen kompetentzia ulertzea. Guggenheim museoak, Bilboko Arte Ederren Museoak, San Telmo museoak eta Artiumek, nahiz eta aurrekontu oso ezberdina izan, antzeko erosketa helburuak izaten dituzte hainbat artelanen inguruan, eta horrek ez dio laguntzen bilduma publikoen koherentziari. Eusko Jaurlaritzak eta EAEko lau museo handiek bilduma propioak dituzte, eta hala izan beharko luke hainbat lan erosteko orduan; baina, arte garaikidearen kasuan, ez dirudi oso logikoa denik denek artista berberen lanak erostea eta beste artista batzuen hutsuneak nabarmenak izatea. Azken urteetan emakume artista garaikideen hutsunea betetzeko urratsak eman badira ere (Bilboko Arte Ederren Museoan, edo oraintxe bertan San Telmoko *Baginen bagara* erakusketan), ez dirudi koordinazio handia egon denik erakundeen artean. Orain museo bakoitzak Rosa Valverde edo Gema Intxaustiren lan bana erosi behar al du? Ez litzateke errazago artistari erosketa indartsu bat egitea bilduma publikoetan artista hori ondo ordezkatzeko duten artelanak edukitzeko?

Ez al litzateke logikoagoa, hutsuneak identifikatu ondoren, erosketa proposamenak egitea artelan publikoen funtsa osatzeko, eta museoei behin-behineko depositua edo mailegu zehatzak egitea erakusketak antolatu behar diren momentuan? Museo publikoen arteko koordinazioa hain zaila al da, edo taifa erreinuekin talka egiten ari gara?

Horrekin batera eta mugei buruz hitz egiterakoan, beste zerbait dator edozeinen burura: nazioarteratzea. Zer egiten dugu Euskal Herriko artea nazioartean zabaltzeko? Zerbait egin behar dugu horretarako? Etxepare Institutuak emandako diru laguntzak tresna egokia dira Euskal Herrian egiten den artea nazioartean erakusteko. Bestalde, erakunde batzuek dituzten adostasunek eta itunek aukera ematen dute artistak trukatzeko eta, horren bidez, artistak kanpoan ezagun bilakatzeko eta kanpoko artistak bertara ekartzeko. Hala ere, Donostiako Tabakalerak duen programa alde batera utzita, ez da lan gehiegi egiten horrelako ekimenetan. Kulturara bideratzen den aurrekontu eskasak ez du ahalbidetzen trukaketa hori. Gainera, bertako

artearen sarea ez bada finkatzen edo zaintzen (gero aipatuko dugu prekaritatea), zaila da nazioartera irtetea.

Hala ere, literatura eta euskararekin egiten den moduan, euskal diasporak osatzen duen sarea baliatu beharko genuke Euskal Herriko artea nazioartean zabaltzeko? 2019an Eloisa Garmendia Bieter Euskal Ikasketa Katedran parte hartzeko aukera izan nuen, eta artearen gaineko interes handia sumatu nuen Boiseko euskal komunitatean. Beste toki askotan gertatzen den moduan, ez da erraza diasporan modernitatearen aldeko hautua egitea, folkloreari, eta gainera folkloreaken ideia tradizionalari, oso lotuta jarraitzen dutelako. Itxuraz, diasporako euskaldunek modernitatea beraien herrietan topatzen dute; euskal kutsuko kultur adierazpenak, aldiz, Euskal Herritik beste inondik ez zaizkie eskaintzen. Horregatik, gai zaila da arte garaikidea diasporan zabaltzea edo arte garaikidea nazioartean zabaltzeko diaspora erabiltzea; baina garai batean ahaleginak egin ziren eta ez zuten hain gaizki funtzionatu: adibidez, Basterretxeak Renon euskal artzainari eskainitako monumentua eraiki zuenean, edo Carmelo Ortiz de Elgeak denboraldiak pasatu zituenean Renon pintatzen. Ekimen pribaturen bat ere egon da Boisen: Judas Arrietak bertako hotel bateko hormak pintatu zituen 2016an. Azken urteetan, Arte Ederren Fakultatetik Renora hiru hilabeteko egonaldia egitera joan diren artisten lanak ere interesgarriak izan dira (agian hemen han baino gehiago), nahiz eta aurrekontu murrizta izan. Toki horietan dauden azpiegitura edo sareak erabilia, errazago izan beharko luke, hemendik bultzada txiki bat emango bagenio.

Hala ere, kanpora begira jartzeko, gure artean arteari zein garrantzi ematen diogun aztertu beharko genuke, eta horixe da hurrengo lerroetan egingo duguna.

## **Artearen pisu galera**

1960ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herrian kulturak eta arteak izugarritzko indarra eta inplikazio soziala izan zituzten.

Diktaduraren kontrako urteetan, kulturak askatasunaren sinbolo bihurtzea lortu zuen, eta beste gizarte mugimenduekin bat egin zuen askapen egarri hartan.

1980ko hamarkadako egoeraren aldaketekin eta instituzio demokratiko berriek politika kulturalen ardurak hartzearekin batera, euskal kultura pixkanakako instituzionalizazio

Azken urteotan Euskal Herriko arteak pisua galdu duela iruditzen zait. Urte hauetan gizarteak ez du asmatu artea bereganatzen, eta erakundeek ez dute artisten biziraupena ziurtatu

prozesuan sartu zen. Hala ere, bazirudien erakunde berriak eta ekimen autonomoagoak hitz egin gabeko itun batera iritsi zirela; Arteleku bezalako zentroen sorrera adibide moduan har dezakegu. Horregatik, 1990eko hamarkadan, Euskal Herriko arteak oraindik indar handia zuen, Espainiako edo Frantziako estatuetako beste herrialdeekin alderatuta behintzat. Lurralde txikia izan arren, garai hartan

zaila zen antzeko arte maila zuen beste lurralde bat topatzea (egoera ekonomiko indartsuak lagunduko zuen seguru asko, krisiak eta birmoldaketa industrialak jasan arren).

Zoritxarrez, azken urteotan Euskal Herriko arteak pisua galdu duela iruditzen zait. Zaila da sentsazio hori datuen bitartez egiaztatzea, baina, Espainia, Frantzia edo Europako erakusketetan euskal artisten parte hartzeari begiratzen badiogu, konturatuko gara ez dela ohikoa euskal artista gazteen presentzia topatzea. Jakinda neurtzeko irizpide hori ez dela zeharo objektiboa, edo datu horiek ez dituztela derrigorrean Euskal Herriko artearen indarra neurtzeko balioak adierazten, posible da kontrako efektua ere kontuan izan behar izatea, hau da, euskal artista izarrik ez izatea, baina gizartean artista gehiago eta hobeto kokatuta egotea. Baina azken hori ere ez da oso agerikoa azken urteotan, artista gehienek (lehen bezala) ez dutelako adin jakin bat gainditzen; 40 urteko muga

pasatu ondoren bestelako zereginetara aldatu behar izaten dute. Urte hauetan gizarteak ez du asmatu artea bereganatzen, eta erakundeek ez dute artisten biziraupena ziurtatu.

Gainera, kulturaren beste esparru jakin batzuekin aldearuta, arte plastikoena izan da pisu galera handiena jasan duena. Literaturak edo musikak bizirauten nahiko lan duten bitartean, euskal gizartean zuten tokia mantendu dute; arte plastikoen eta arkitekturaren espazioa gero eta murriztagoa da, bai kantitatez, bai kalitatez. Bitartean, zinema, diseinua, bideo jokia eta, nola ez, gastronomia tokia zabaltzen ari dira etengabe, industria kulturalen izenean. Gai horri atal oso bat eskainiko diogu aurrerago.

Arteak gizartean izan duen garrantzi galeraren adierazpideetako bat galerien desagertzea da. Azken urteotako artearen merkatuaren berrantolaketak arte galerien egokitzapena eskatu du. Horrelakoetan, beti gertatzen den bezala, galeria handiak aldaketen aurrean indartu egin dira eta txikiak desagertu. Esan behar da orokorrean bi motatako galeriak daudela: bildumazale handiei saltzen dietenak, batez ere agendaren bidez; eta tokiko galeriak, bezero txiki eta behin-behinekoekin lan egiten dutenak. Lehenbizikoentzat, erakusketa aretoak oinarri fisikoa besterik ez dira, eta behin-behineko ikusleei salmentak egiteko ere baliatuko dituzte. Baina, galeria txikien bezeroak ez dira hain dirudunak, bildumazale txikiak izaten dira eta erakusketa aretoan egiten dituzte erosketa gehienak, erakutsitako artelanak ikusi ondoren.

Merkatuaren 'berezko' erregulazioan sinisten ez dudanez, egoera berriak beste sektore ekonomiko askotan egiten diren birmoldaketen antz handia izan du, batez ere 2008ko krisiaren ondoren. Artearen merkatua luxuzko produktuen merkatura mugatzeko beste urrats bat izan da azken hori. Luxuzko produktuetan ikusi dugun joerari jarraitu dio artearen merkatuak ere: gero eta garestiago, gero eta jende gutxiagorentzat. Aldi berean, merkatu horietatik kanpo geratu den artea inoiz baino merkeago saltzera derrigortuta dago; horren barruan sailkatzen dira artista ez oso ezagunak, toki

zehatz batera mugatuta daudenak, artista gazteak edo bigarren mailako artista historikoak.

Egoera horrek ondorioak izan ditu Euskal Herriko arte galerien biziraupenean. Inoiz ez dira oso ondo ibili, baina azken urteotan galeria txiki gehienak desagertu egin dira, eta bizirik daudenak jabeen egoskorkeriari esker mantendu dira, ez ekonomikoki bideragarriak direlako. Argi eta garbi esanda, ez da artea saltzen. Lehen aipatu dugun bezala, bildumazale handiek erosten jarraitzen dute, baina galeria handi edo ospetsuetan; eta horietako asko Euskal Herritik kanpo kokatu dira, salbuespenak salbuespen. Galeria txikien bezero nagusia kultura baloratzen zuen eta diruz lasai zebilen goi-erdi mailako jendea zen, edo, tarteka, asko kostata ere (epeka ordaintzen zuten gehienetan), behe-erdi mailako artezale amorratua. Itxuraz, jende horren taldea asko gutxitu da azken urteotan, bai erdi mailako jendeak erosteko ahalmena galdu duelako, baita kulturaren prestigio soziala desagertzen joan delako ere. Lehen, kulturaren prestigioaz baliatzen zen klase edo talde berezi estatusari eusteko, erosteko ahalmen handia zuen ogibide liberaleko jende asko zegoen.

Ez dirudi asmatu dugunik hurrengo belaunaldiei kulturaren garrantzia eta zaletasuna transmititzen. Gaur egun, sarritan esaten den moduan, ez dago beheko klaserik; jende guztiak erdiko klasearen barruan sailkatzen du bere burua, eta, horren ondorioz, goi klasekoen ohitura eta zaletasun azalekoenak imitatu nahi ditu: oporrak edozein gauzaren gainetik, ahalik eta urrutien gainera, gama altuko autoa, itsasontzi txiki bat, luxu itxurazko asteburuko hotelak (xarma handikoak, ahal bada), marka jakineko arropa, esperientzia gastronomikoak izeneko zerbait... Horretara iristen ez direnak beste kontsumo sare eguneratuak asmatu dituzte: hegazkin merkeak, mendiko arropak, furgonetak edo karabanak, taberna jatorretan hamaiketakoak... Batxilergoko edo unibertsitateko 16-20 urteko ikasle batek, gaur egun, gure belaunaldikoek baino hegazkin gehiago hartu ditu bere bizitza labur horretan. Behin baino gehiagotan egiten diogu gure

buruari galdera: zer egiten zuen jendeak masa turismoaren izurritea iritsi baino lehen? Etxean irakurtzen geratu?

Orain inork ez du irakurtzen, filmak etxean (edo zinemaldian) besterik ez dira ikusten, musika kontzertu handietan eta Spotifyn besterik ez da entzuten, arte plastikoak oporretara joandakoan besterik ez dira ikusten (ikus hitza erabil badaiteke), eta horretara mugatu da gizartearen gehiengoak artearekin duen esperientzia.

Alde batetik, ez da txarra kultura klase ikurtzat erabiltzeko ohitura galtzea. Baina garai bateko utopia kultura jende guztiarengana heltzea zen; horren orde, luxuzko produktu ulertezina bihurtu da.

Horregatik, galerien desagertpenarekin ere, sentsazio gazi-goza dugu. Alde batetik, XIX. mendean azaldu zen artearen merkantilizazioaren ikurra den arte galeria desagertzeak ez luke berez ezer negatiboa izan behar. Arteak bere izaera komertziala galtzea ondo egongo litzateke, baldin eta gizarteratzeko beste modu batzuk nagusituko balira eta artistaren biziraupena beste modu batera ziurtatuta egongo balitz. Baina, ez dut uste horretan gaudenik. Alderantziz, ez dugu lortu artea jende guztiarengana heltzea, eta artistek ez dute lortu gizarteak mantentzen dituzan, guztion bizimodua hobetzeko helburua dutela onartuta. Artearenak nazioarteko merkatu handia izaten jarraitzen du, Estatu Batuek, Europako herrialde zehatz batzuek eta, azken urteotan, Txinak eta Errusiak baldintzatuta. Horiek bultzatzen dute artearen elitismoa eta arte zentroen turistifikazioa: ezin baduzu artelana eduki, joan oporretara artea ikustera zehaztutako ibilbideetan eta museoetan. Horrek legitimatzen ditu bildumazale handien inbertsioak.

## Turismo kulturala

Artearen eta museoen funtzioa kultura, herri-lotura edota identitatea elikatzen turismoa elikatzen pasatu zen, hau da, beste esparruetako ekonomia indartzeko tarteko baliabidea izatera. (Haizea Barcenilla: 'Norena da Puppy?', *Berria*, 2021-10-19)

Guggenheim museoak ekarritako aldaketei aipamena egiten dion Haizea Barcenillaren esaldi horrek aukera emango digu aurreko atalaren bukaeran aurreratutako ideia zabaltzeko: kulturaren turistifikazioa. Arteak gizartean izan duen pisu galeraren arrazoi ugari daude; horietako bat hutsaltasunaren aldeko joera izan daiteke, eta, nire ustez, joera horrek azken urteotan gure artean turismoak izan duen bultzada itxuragabekoarekin harremana du.

Ezin da pentsatu kultura ekonomiatik kanpo dagoenik, are gehiago bizi dugun sistema kapitalistan, baina gauza bat da errealistak izatea, eta bestea kultura erabiltzea alderdi ekonomiko intentsibo zehatz bat bideratzeko. Turismoa negozio aukera handienetakoa bilakatu da azken urteotan, eta, horregatik, erakundeek eta enpresa partikularrek horretara bideratu dituzte indarrak eta diruak. Beste alor guztietan gertatzen den moduan, turismoaren gaiak ez du kalte handirik egiten, ez badu ingurua erretzen edo suntsitzen. Baina 'etekin ahalik eta handiena denbora txikian' printzipioa aplikatuz gero, nekazaritzan edo industrian gertatzen den gauza bera gertatuko da turismoarekin ere. Turismo jasangarriaren ideiak geldotasuna eta lasaitasuna eskatzen du, eta, gaur-gaurkoz, ez da hori helburua.

Bestalde, turismoa betidanik sektore prekarioa izan da, bai soldatetan, bai lan baldintzetan. Gehienetan epe zehatz eta labur baterako lan kontratuak egiten dira, horrek dakarren segurtasun faltarekin; bestalde, finkoagoak diren lan turistikoak gutxi ordaindu behar dira errentagarritasuna ziurtatu nahi badugu. Gogoratu besterik ez dugu Guggenheim museoko garbitzaileen edo Bilboko Arte Ederren Museoko zainzaileen eta Tabakalerako UBIKeko greba amaigabeak. Horri gehitu behar dizkiogu turismo kulturalaren inguruan mugitzen diren jatetxe, taberna eta hotelen lanbide prekarioak. Mediterraneo itsasertzeko turismoaren ajeak gurera iritsi direnez, gero eta hurbilago gaude Espainiako eredu ekonomikotik. Azkenean, espainiarrek 500 urtetan lortu ez duten asimilazioa 20 urtetan lortu dute gure agintari autonomikoek. Edo, beste alde batetik

begiratuta, Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko jarduera ekonomikoa inoiz baino antzekoagoa da; azkenean, utopia aber-tzalea bete eta euskal kostaldea berdindu egin da: Zumaia Do-nibane Lohizune bilakatzeko bidean dago.

Kultura eta turismoaren arteko harremanak ere ez du berez ezer txarrik ekarri behar. Kulturari lan egiten bada eta bide batez turismorako balia-tzen bada, ez dago gaizki. Bai-na, kultura turismorako pen-tsatzzen bada, edo turismora bideratzen badira kulturarako diren diruak, hor arazoa sor-tzen da. Guggenheim efektuarekin gertatu zena ez errepikatzea eskatu genuen bere garaian kultur esparruko bakar batzuek. Orain, 20 urte pasatu direnean, berriz ere harri koskor berarekin estropezu egiteko arriskuan gaude.

Azpiegitura handien garaia pasatu zela uste genuenean eta 2008ko krisiak eta pandemiak gauzak beste modu batean egin behar ditugula adierazi digutenean, gure agintariak betiko formulekin erantzuten dute. Bilbok goi mailako tu-rismoa erakartzeko hiria izan behar duela esaten digute, eta, horretarako, dirutza behar duten azpiegitura erraldoiak eta itxuraz ez oso beharrezkoak bultzatu nahi dituzte. Bilboko Arte Ederren Museoaren zabaltze lanak azaltzeko arrazoi gutxi eta eskasak eman dira. Aurrera doan Fosterren proiektuaren araberako lanak esan nahi dugu, beste modu batera egin zitekeelako diru eta eragin gutxiagorekin. Baina, pan-demia ondoko lehenbiziko inbertsio kultural handi, itzel eta garestia izango da, bilbotarren karikatura denari jarraituta. Bitartean, museoko erakusketa areto berri handi horietan etorkizunean erakutsiko dena sortu behar dutenek ez dituzte pandemiaren ondorioak gaindituko. Edozein baserritarrek

Kultura eta turismoaren arteko harremanak ez du berez ezer txarrik ekarri behar. Baina, kultura turismorako pentsatzzen bada, edo turismorako bideratzen badira kulturarako diren diruak, hor arazoa sortzen da

daki zorua, emankorra izan dadin, landu eta ongarriz estali behar dela. Bilbon biltegi ederrak eta handiak izango ditugu, baina ez dugu dirurik izango bertan erakutsiko dena erosteko eta bertan erakutsi behar diren lanak egiten dituenari ordaintzeko. Orain dela zazpi urte (zazpi urte!) atal honetan bertan Harkaitz Canok gogorarazi zigun bezala, kultur etxe bateko azpiegiturak aurrekontuaren %70 jaten zuen, eta %30 besterik ez zen geratzen gainontzeko lanetarako. Orain dela zazpi urte baino okerrago gaudenean, batez ere pandemia bat pasatzen ari garelako, ez gara gai premiazkoak diren beharrak identifikatzeko.

Historia pixka bat egiten badugu, konturatuko gara azken 30 urteotan EAEn azpiegituraren aldeko apustu garbia egin dugula, eta ez Canok aipatzen zuen %30 horren alde. Ikuspuntu ekonomiko batetik begiratuta, kulturara bideratutako diruaren %70 baino gehiago gastatu dugu azpiegituretan, eta %30era ez dira iritsiko oinarrizko inbertsioak: 1997an Guggenheim museoa Abandoibarrean lurreratu zen; 2000n Artium museoa zabaldu zen Gasteizen; 2010ean Tabakalaren txanda izan zen, orduko hartan Donostian. 2020ko hamarkadarako Koldo Mitxelenaren berreraikuntza, Bilboko Arte Ederren Museoaren zabaltze lanak eta Urdaibaiko Guggenheim iragarri dira. Nahiz eta batzuek aurrera ez egin, adibidez Koldo Mitxelenaren berreraikuntzak, proiektu horien helburua eta arrazoia zein den galdetu beharko genieke gure buruei. Hainbesteko azpiegitura egin ondoren, kultur maila handiagoa al daukagu gaur egungo euskaldunok? Arteari buruz gehiago al dakigu edo artea gehiago apreziatzen al dugu?

Erakundeek azpiegitura moratoria eskatzeko unean gaudela iruditzen zait. Baina nola egiten da hori? Gizarte zibila hilda dagoen herri batean, nola antolatu mugimendu kritikoa, jakinda erakundeetatik berehala etorriko direla beti erabiltzen diren desakreditazioak? Jasangarritasuna eta kulturaren premia larriak pisuzko bi arrazoi nagusi eta edozeinen burura etortzen diren ideiak izan daitezke kritikoegi edo gatazkatsu izendatzeko beharrik gabe.

Panorama beltz horren aurrean, laborategien beharra aldarrikatu beharko genuke; azpiegitura handiak badaude, orain oinarritzko lana falta da. Ereduak bezalako programa publikoak dira indartu behar direnak, edo beste esparruetara zabaltzeko dirua erabili. Artisten inplikazioa eskatzen duten eredu interesgarriak dira, baina momentu honetan ez dute kulturaren gastatzen den ehuneko oso handirik erabiltzen. Uharteko arte zentroa, BilboArte edo Dinamo bezalako esperientziak indartu eta eskualde guztietara zabaltzeko behar dira. Zelula txiki xamarak dira, baina mugimendu handikoak, azpiegitura gastu itxuragabekoak saihesten dituztenak eta tokiko eragileen inplikazioa eskatzen dutenak. Berriz ere galdera bera egin beharko genioke gure buruari: zer nahi dugu? Munduan zehar oso ezaguna den museo izarra edo artearen esperientzia-modu batetik bestera (egile, ikus-entzule, kontsumitzaile) pasatuko den herritar kopuru ahalik eta handiena? Badakit nostalgiko xamar geratzen dela, baina gogora dezagun Arteleku: azpiegitarari garrantzi handiegia eman ez zion zentroak nolako harrobia prestatu zuen eta nolako ospea lortu zuen nazioarteko arte esparruetan. Agian horixe da gaur egun baloratzen ez dena. Nazioarteko ospea, gaur egun, turistak erakartzeko gaitasunak ematen du.

## **Industria kulturalak**

Artearen pertzepzio soziala asko aldatu da gure artean: herri baten identitate eta kultur zeinu izatetik dekorazio huts edo, aurreko atalean aipatu dugun bezala, ekonomiaren iturri izatera pasatu da (dirua egiteko aukera esan nahi da, negozioa). Horregatik erakundeek behin eta berriz industria kulturei buruz hitz egiten digute, bere burua ordainduko duen kulturaz, alegia. Kultura onartuko da baldin eta diru etekina badu; bestela, alde batera utziko da, edo museoko objektu moduan eutsiko zaio, hain zuzen turismoaren etekin ekonomikoa izateko. Baina erakundeek kulturara bideratutako aurrekontuen kopuru handiena kultur industriek bereganatuko dute.

Horren lekuko da uztailaren 3an Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen Kultur eta Sormen Industriaren unibertsitate klusterra (KSI klusterra). Kultura eta Hezkuntza sailen arteko elkarlanean osatutako kluster berriaren helburua «erakundeek eta goi mailako ikasketa zentroen arteko topagunea» izatea da, eta, eginkizunen artean, «kultura eta sormen industrietako goi mailako hezkuntzaren gaitasunaren mapa aldian-aldian eguneratzea, sektoreko enpresen erronkak planteatzea eta

Arte plastikoaren eremutik harriztasuna ari gara ikusten erakundeek diseinuari eta zinemari ematen dieten tratu berezia. Ekimen pribatuak izan arren, sarritan hezkuntza zentro publikoak baino babes handiagoa jasotzen ari dira

*sektorearen beharretara konektatutako prestakuntza programa bat bultzatzea.* Zubiak eraikitzea unibertsitatearen eta industriaren artean». Azpimarratutako esaldia, bere xalotasunean, beldur handia eragiten duten horietakoa da, aspalditik datorrelako, Boloniako unibertsitate egokitzapena onartu zenetik behintzat, ezagupena enpresen eskaerara egokitu behar izatearen leloa.

Klusterraren aurkezpeneari argitaratutako dokumentuaren arabera, sektore hauengan izango du eragina: kultur ondarea, ikusizko arteak, musika, edizioa, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, artisautza, arkitektura, publizitatea eta marketina, bideo jokoak, eduki digitalak, diseinua, moda, hizkuntzaren industria eta gastronomia. Dagoeneko lanean hasi den Euskampus Fundazioak goi mailako hezkuntza zentroen mapa egin du, maila berean jarriz Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultate publikoa eta diseinu akademia pribatuak, adibidez. Fundazio horren arabera, 111 gradu, master eta doktoretza programa eskaintzen omen dira Euskal Autonomia Erkidegoan, bereizketa egin gabe unibertsitate masterren eta master izena duten beste eskaintza ez-unibertsitarioen artean. Adibidez, Basque Culinary

Centerren eskaintzen den *Sumillera eta enomarketin* izeneko masterra edo Bilboko Kunsthal akademiak eskaintzen duen *Food Design* masterra eta EHU-n eskaintzen den Arkitektura masterra maila berean sailkatuta daude, kontuan izan gabe unibertsitate zentroei eta irakasleei eskatzen zaizkien kalitate baldintzak eta titulazioak.

Arte plastikoen eremutik harrিতuta ari gara ikusten erakundeek diseinuari eta zinemari ematen dieten tratu berezia. Ekimen pribatuak izan arren, sarritan hezkuntza zentro publikoak baino babes handiagoa jasotzen ari dira, diru laguntza zuzenen edo zeharkakoen bidez (lur edo eraikuntza publikoak eskainiz, edo debaldeko publizitatea bisita, itun edo beste ekitaldien bidez).

Gastronomiaren gai errazegian ez sartzeagatik, zinemaren esparruari erreparatuko diogu, azken urteotan izugarritzko bultzada jaso duelako erakundeen aldetik. Edozein harritzeko modukoak dira Donostiako Elias Kerejeta Zine Eskolaren sorrera, Donostiako zinema jaialdiaren izen aldaketa eta gehiegizko publizitatea komunikabidetan, 'euskal zinemaren' egoera bikainaren gaineko adierazpen publiko etengabeak, sariak eta beste propaganda mota ezberdinak..., horien atzean erakundeen autopropaganda kanpaina dagoela konturatzen ez bagara. Ados, Euskal Herrian zinema produktu duinak eta ederrak egiten dira, baina zinemaren alderdi esperimentalak babesgabe jarraitzen du, Kimuak programaren salbuespenarekin, noski. Berriz ere gure buruari galdetu beharko genioke zer den euskal zinemari interesatzen zaiona, Goya sariak irabaztea edo ikus-entzunezkoetan hezitako gizartea. Edo biak batera. Horretarako, oinarrizko zerbaít aldatu beharko litzateke hezkuntzan eta gizar-teari igortzen zaizkion mezuetan. Nahiz eta *La trinchera infinita* filma asko gustatu, ez dakit euskal zinema moduan sailka dezakegun, batez ere gaztelaniaz eginda dagoelako (Espainian hobeto saltzeko?). Eta horrekin betiko galderetan trabatuta gaudela ematen du: zer da euskal kultura? Euskaraz egiten dena, Euskal Herrian egiten dena, EAEko diru laguntzak jasotzen dituen?

Gizarte moduan ez ditugu topatu galdera horien erantzunak, baina galderak egitea ez zait txarra iruditzen, batez ere erantzunaren bidez pontifikatzeko ohiturari muzin egiten badiogu. Seguruena erantzunak baino interesgarriagoak dira galderak. Adibidez, aukera linguistikoena.

## **Sariak eta diru laguntzak**

Frankismoaren ondoko urteetako artearen inplikazio sozialak eta horrek eman zion indarrak erakundeen konplizitatea eskatu zuen Hego Euskal Herrian. 1980ko hamarkadatik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan sortu ziren erakunde berriek arte garaikideari babes eta laguntza emateko beharra sumatu zuten. Ez zen gauza bera gertatu Nafarroan, askoz ere gorabeheratsuagoa izan baita arte garaikidearen onarpen instituzionala.

Espainiako beste lurraldeekin alderatuta, sari eta diru laguntza gehiago egon dira EAEn, batez ere azken urteotan Espainian ia desagertu egin direlako. Horrek artearen egoera askoz ere osasuntsuagoa mantentzen lagundu du esparru geografiko murriz honetan, Nafarroan azken bi legegintzaldietan arte garaikidearen egoera normaltzen joan den heinean. Ipar Euskal Herriko egoera oraindik ez dago argi, euskararen gaia alde batera utzita, ez baitirudi Euskal Hirigune Elkargoak eskumen gehiegi izango duenik kultur politiketan.

Baina, garai batean sariak eta diru laguntzak urriak baziren komunitate artistiko ugariarentzat, gaur egun egoera harrigarriekin egiten dugu topo, aldundietako diru laguntza deialdietara jende gutxi aurkezten denean. Beharbada, diru laguntza deialdiak moldatu egin beharko dira egoeraren konplexutasunera. Adibidez, Gipuzkoan jende gutxi aurkezten da eta Bizkaian jende gehiegi, azken lurralde horretan baldintzak aldatu egin direlako: bertan jaio eta bizitzeaz gain, EHUko Arte Ederren Fakultatean izena ematea nahikoa da Ertibil bezalako sari batean parte hartzeko (kontuan izan behar dugu, erakusketan parte hartzeagatik bakarrik, Bizkaiko Diputazioak

artistari diru kopuru zehatz bat ordaintzen diola alokairu moduan lana erakusteagatik). Horren ondorioz, 2021eko Ertibilen, hemezortzi artistaren artean, hamar behintzat ez dira izan Bizkaikoak, lehenbiziko saria Valladolideko artista gazte batek eskuratu du eta hirugarrena Gasteizko beste batek.

Hain zuzen, azken bizpahiru urteotan, Arte Ederren Fakultatean kanpoko ikasle askoren etorrera sumatzen ari gara, eta hemen aukera gehiago egotea izan daiteke arrazoietakoa bat. Okerrena da aukera ugaritasuna artista gazteentzat dagoela, eta ez ikasketak bukatzen dituztenentzat. Artista gazteek ez dute ikasle diren bitartean prekaritatean bizitzea onartzea beste erremediorik. Ikasketen garaia babestutako denbora tartea izan daiteke; baina behin bizitza errealera irteten direnean, ez dute hainbesteko aukerarik arte lan profesionalarekin jarraitzeko.

Ez dakit irudipena izango den, ez baitago frogatuta, baina sentsazioa daukat gazteengan arreta jartzen ari garela eta hurrengo urratsak ahaztu egiten ditugula. Artisten ibilbidean, ikasketak bukatu ondoko garaia beti izan da erabakigarria, urte horietan erabakitzen baita profesionalizazioa. Gaur egun, kulturako beste ogibideetan gertatzen den antzera, arte ikasketak bukatu berriari eskaintzen zaiona prekaritatean bizitzea da, horretan gauzak ez dira gehiegi aldatu. Hala ere, lehen artearen prestigio soziala zela-eta, aukerak zeuden hobeto bizitzeko, artista ezaguna bihurtuz gero, adibidez. Orain, artista ezaguna izateko aukera gero eta gutxiago dago, eta, literaturan edo musikan gertatzen den bezala, oso ezaguna izan behar duzu arteaz bizitzeko (eta hala ere). COVID-19aren izurriteak argi utzi digu betidanik pentsatu duguna: kulturarena sistema zaurgarria da, eta, une batek bestera kale gorrian geratuz gero, ez dago babes neurri gehiegaririk. Beraz, diru laguntzen bidez edo sari batzuetara aurkeztuta bizitzea izan daiteke artista gaztearen bizimodua ibilbidearen lehenbiziko urtetan, baina aurreragoko perspektibarik ez dago, artearen ikerketarik ez dagoelako edo ez delako bultzatzen.

Diru laguntzen atalean, Eusko Jaurlaritzak 2010ean abiatutako Eremuak programa azpimarratu behar da. Programa ireki eta etengabe moduan aurkezten du bere burua, eta garai bateko diru laguntzek zituzten arazoak konpontzeko presatutako programatzat har daiteke. Artistei zuzendutako eta artistek beraiek kudeatutako programak honako ekimenak antolatzen ditu: jardunaldiak, erakusketak (Harriak izeneko ekimena), argitalpenak (*Eremuak* aldizkaria eta artistek proposatutakoak), egonaldiak... Aurrekontu murriz batekin ekimen interesgarriak bultzatu daitezkeela frogatzen du programa horrek. Agian eredu moduan funtzionatu beharko luke erakundeek bultzatzen dituzten beste ekimen batzuetan ere, adibidez, arteari bideratutako kultur aurrekontuak nola banatu behar diren erabakitzeko. Hala ere, ez da erraza izango Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko arduradunek arteari bideratutako diruaren gaineko kontrola galtzea. 🍷

### Euskal kultura segurua da?

**B**uruan bueltaka-bueltaka erabili ditut ideiak asteetan, dabilen harriari goroldiorik ateratzen ez zaiola-eta. Paperaren aurrean jartzea kostatzen baina. Izan ere, bertigoa sentitu dut. Pulpitutik hizketan aritzearen bertigoa. Pauso bat atzera eman eta euskal kulturaren urteko errepassoa egiten, ni, betaurreko neutroekin jantzita banengo bezala, gora igo eta azpikoa begiratzuz haren nolakotasuna marraztu nahian. Hanka-puntetan jarri, lepoa luzatu eta jendetzaren artean zer edo zer aurkitu nahi duenaren antzera, bera ere jendetzaren parte dela ahaztuta balego legez.

Eta horrextan harrapatu dut neure burua: hankak lurretik altxatu eta hegazti bat banintz bezala lurraren hedadurari begira. Baina hegaztia zeruan bueltaka aritzen da bere burua aurkitu nahian. Nik ere, bueltan-bueltan, nire burua aurkitu nahi nuke ariketa honetan.

Euskal kultura kartografiatu nahian arituko naiz. Kartografoak, baina, ezin du ahaztu berak ere kartografiatzen ari den lur hori bera zapaltzen duela, eta horrek, ezinbestean, bisio objektiboa izatetik urruntzen duela.

Inor ez da neutroa martxan dabilen tren batean.

2021eko euskal kulturaren balantze moduko bat egitera noa. Ahaztuko ditut batzuk eta besteak, ezin zitekeen bestela izan. Diplomaziaz zerbait badakigu euskaldunok, baina.

Horren adibide ezinago parera datorren esaera zaharra: gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak gogoan hartu.

*Excusatio non petita, accusatio manifesta.* Neu ere antzera, inork azalpenik eskatu barik ari naizela debaldeko azalpenak ematen, eta horra bertigoaren zergatia: bekatutxoa egiteko beldurra, hanka sartzearen izua; eta horra hastea kostatu izanaren arrazoia. Hori, eta denbora. Ai ene, denbora! Daukagun bakarra, geure alde beste geure kontra jokutzen duena.

Denbora da garena, zer bestela? Denbora galtzeari buruz gehiegi hitz egiten da gizarte hiperestimulatuetan: beti produzitu, beti egin, beti jardun. Egon eta izan gutxitxo. Modu aseezinean mundua egiten jarraitu ala kritikotasunez munduan egoten hasi. Bidegurutzean nora hartu, halakoxe biziera izango dugu. Denbora galtzea bizitza galtzea da, eta, beraz, kontu handiagoz ibili beharko genuke «denbora galtzen ari naiz» arinki esaten dugun bakoitzean. Izan ere, «denbora galtzea» diogunean, nago ez ote garen ari bizitza irabazten.

Azken aldian, baina, denborarik ez, ez galtzeko eta are gutxiago irabazteko. Halaxe ibili naiz, zuetako askoren antzera, iritsi ezinik, erlojuaren kontra, egunak hogeita bost ordu beharko lituzkeela desiratzeraino. Ze deskalabrua! Ze zulo klasetan erori gara? Denbora ordutan neurtzen dugunetik erlojuak irabazi digute bizitza.

Erlojuaren hatsa kokotean une oro sentitzeak eragin dit irakurtzera zoazen hau idazten hasteko zailtasuna. Kalitatezko denbora faltak. Izan ere, esanda geratu da denbora izan badugula, eta nik ere, noski, izan ditut orduak libre. Baina orduak libre izateak ez du kalitatezko denbora bermatzen. Idazteko eta sortzeko, denbora ez ezik, aldartea ere behar da, eta aldartea, neurri handi batean behintzat, egunaren antolaketa eta hark guretzako duen kalitateak ahalbidetzen dute.

Goiza hilabete bukaerako soldata bermatzen dion bestelako lan batean pasa duenak nekez izango du sorkuntzarako

aldarterik arratsaldean. Gainera, izango ditu iluntzeetan militantzia bilerak, kirola egiteko beharra, lagunekin elkar-tzeko irrika edo amama zaintzeko gogoia. Astea hala pasata, asteburua aisialdirako, deskantsurako edo parranda egiteko nahi dugu. Eta behar dugu.

Kultura bokazioz egiten da, eta hala hobe. Bokazioak, baina, ez du jaten ematen, ez du alokairua ordaintzen, ez du garraio-txartela hornitzen. Kultur sorkuntza bokazioz egin behar da, bestela kalitatea galtzen du, eta ausartuko nintzateke esatera zentzua bera ere galtzen duela. Baina kultur sorkuntza ezin da bokazioan bakarrik oinarritu. Ezin du prekaritatea erreproduzitu.

Zenbat aldiz ez ote digute galdetu kultur sorkuntzan gabiltzanoi, «baina zuk zehazki zer egiten duzu?». Uste dut hori dela kultur munduak eta mundutarrok pairatzen dugun prekaritatearen arrazoietakoa bat: ezjakintasuna, eta ezjakintasunak dakarren gutxiespena. Ezjakintasunak kulturak duen garrantziari aitortzarik ez egitea dakar, beharrezko ez balitz bezala tratatuz, entre-nimendu hutserako tresnatzat hartuz eta, horrenbestez, kultur alorreko pertsonen lana aitortutako lantzat baino hobby-tzat hartzea.

Aurrez suposatzen da kultur sorkuntza bokazionala dela, eta apriorizko ideia hori ez da batere okerra. Hala ere, horrekin batera auresuposatzen da kultur sorkuntzan jardute hutsak, hau da, sortzeak berak, *per se* konpentsatzen duela lana, eta egite hutsa har daitekeela ordaintzat. «Zuri gustatzen zaizu eta ingo duzu, ezta?». Eta nola esan ezetz... Zurrun-biloa sortzen da buruan halakoetan, berba egokiak asmatu ezinik, hitz-totalka eta erdi lotsatuta batere konbentzitzen

Kultur sorkuntza bokazioz egin behar da, bestela kalitatea galtzen du, eta ausartuko nintzateke esatera zentzua bera ere galtzen duela. Baina ezin da bokazioan bakarrik oinarritu. Ezin du prekaritatea erreproduzitu

ez gaituen «bai» bat esateraino. Salbuespenak salbuespen, esan gabe doa. Ez da beti ezetza esan behar, akabo ba! Baina komeni da, batzuetan, baietza matizatzea, ez botatzea beti «bai» huts bat: «bai, baina...». Baldintzak norbere alderako ere negoziatuz, lanaren aitortza eginez eta eginaraziz, norbere jarduna duinduz.

Bizi dugun eta bizi gaituen marko neoliberalak hauspotutako kapitalismoak kultur sorkuntzaren esparrua prekarizatzen du, zalantza barik. Gutako asko, gutxienez, hiru aldiz gurutzatzen gaituzte prekaritatearen ondorioek: kultur munduan aritzeagatik, euskaraz sortzeagatik eta emakume izateagatik. Eneritz Artetxek 2019an antzerkigintzaren ikuspuntutik egindako ikerketa batean «karanbola hirukoitza» deitzen dio fenomeno horri. Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen *Trikua esnatu da* (2020) liburuan «txirikordatzea» darabilte. Izenak izana dakar, eta modu askotan izendatua izan dena gure artean oso presente dagoen seinale. Ez gara subjektu prekarizatu bakarrak, sobera legoke esatea.

Remedios Zafra pentsalariak bi lan mota bereizten ditu *El entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital* (2017) liburuan: bizitza ekonomikoki sostengatzen dutenak, batetik; eta, bizigarria egin arren, ekonomia bermatzen ez dutenak, bestetik.

Gehiegitan kulturari lotutako lanak bokazioz egindako lantzat hartzen dira. Zafrak berak bokazioa «entusiasmo» horren bulkadaren ondorio gisa identifikatzen du, eta, sarri, fundamentuzko ordain materialik ez jasotzeko zilegitasuna ematen duela dirudi. Mendebaldean hain barneratuta dagoen sistema dikotomikoa indartzen du. Sorkuntza, alde batetik, haren ordainsari duina, bestetik. Binomioaren arteko arrakala are gehiago sakontzen da, are iragangaitzagoa bihurtzen da. Zafrak dioenez, dikotomia horrek diruaren eta ezagutzaren kontzeptua eta, ondorioz, interes komertzialaren eta kulturaren arteko aurkakotasuna indartzen du.

Prekaritatea, baina, ez da ekonomikoa bakarrik. Kultur sorkuntzan aritzeak bestelako baldintza txarrak ere badakartza berarekin. Irakurgai honen hasieran aipatu bezala, denbora da daukagun bakarra, gure existentzia sostengatzen duena eta, aldi berean, abiadura bizian goazen gizarte honetan gure kontra jokatzeko duena, guk haren kontra beste.

Kultur sorkuntza lanetan denborak ez dira errealitatera egokitzen, eta, horrenbestez, tetris pentsaezinak egin behar ditugu emandako denbora horiek gure behar eta bestelako lan-kargetara moldatzeko. Izan ere, eta prekaritate ekonomikora itzuliz, kultur sorkuntzan ari den jende askoren bizitzak ez dira ekonomikoki jardun horrekin bakarrik sostengatzen. Gutxi batzuk dira euskarazko kultur sorkuntzatik bizi direnak, eta horien ekarpen eta ahaleginak kontuan hartuz, ausartuko nintzateke esatera merezi dutena baino gutxiago irabazi eta aintzatesten direla horietako asko.

Kultur sorkuntza bizigarri izatea nahi duenak, *grosso modo*, bi aukera ditu: edo aldi berean lan askotara dedikatzeko gai da eta horrek sostengu ekonomikoa bermatzen dio bere bizi-denbora kondentatzen duen bitartean; edo ekonomikoki ziurtasuna emango dion beste lan bat dauka, soldatapeko lan bat. Hilabete amaieran diru-sarrera finkatuko dio lan horrek, baina kultur sorkuntzara bideratuko duen denbora kantitatea eta kalitatea nabarmen murriztuko dira, bere ekonomia bermatzen duen lan horrek kenduko dizkion ordu eta energiagatik. Beraz, aldizkako kultur sorkuntza lanek eta haren ordainak gehigarri material edota ekonomikoa eskainiko diote, enkargu edo lan horietako bakoitzaren ordainketa moduaren arabera.

Lan egiteko denboraz gain bizitzeko denbora ere behar dugu, nahi dugu; eta ea behingoz hainbeste aldarrikatzen dugun bizitza erdigunean jartzen asmatzen dugun.

Aipatutako prekaritatea eta aldi berean gauza ezberdinak ekoizten egon behar izatea kapitalismoaren eragineta bat

da. Kontu jakina da hori. Jakina da, baita ere, kontu horrek guztioi eragiten digula, baina euskaraz sortzen dugun emakumeon kasuan are nabariagoa dela esango nuke.

Abiadura bizia, gainprodukzioa eta hiperestimulazioa. Horra egungo gizartearen hiru ezaugarri. Hiru horiek denbora kantitatea zein kalitatea murriztea ekarri dute.

Eta nola egin aurre denbora falta horri? Modu kolektiboan lan egin, esate baterako. Eginbeharrak banatzeko aukeraz

Ez gara ausartzen gure artean kritikak egitera, inor mintzeko beldurrez baikabiltza. Kritika, baina, fundamentuz eta errespetuz egindakoa bada, sortzaileak berak ere eskertu egiten du, lagundu egiten baitio

gain, gure lana besteekin partekatzeko aukera ematen digu, besteen ideia eta proposamenak jasotzekoa, norberak ere besteari ekarpenak egitekoa; hau da, gure artean zaindu eta batak bestea elikatzekoa. Ez da, ordea, arantza bako larrosarik, eta modu kolektiboan lan egiteak badakartza berarekin zailtasun bat baino gehiago: talde koordinazioak eskatzen duen denbora edo taldekideen artean sor daitezkeen tentsioek

dakarten energia zein aldarte onaren galera, esate baterako.

Horrez gain, aurretik aipatu diren eta elkarrekin lotura duten beste kontu bi ere izan daitezke denboraren arazoari aurre egiteko tresnak: ezetza esaten ikastea eta ezetza onartzen ikastea, eta baldintzak kultur sortzaileak berak ere bere alde negoziatzea. Ezin dugu eskaintzen diguten orori baietz esaten ibili. Gainera, baietzaren eta ezetzaren artean ere bide berriak jorratzen ikasi behar dugu. Hau da, ezezko borobila edo bai absolutua ez dira dauden aukera bakarrak, eta bi horien artean «baina» batzuk sartzen ikasi behar dugu, geure baldintza propioak proposatuz eta aldarrikatuz.

Ezezkoa emateari diogun beldurra gainditu behar dugu: ezin dugu buru-janean ibili «ez» bat esaten dugun bakoitzean.

Sentsazioa dut ezetza ematen dugun bakoitzean geure burua justifikatzeko behar larria sentitzen dugula. Pentsatzen dugu gure ezetza gaizki hartuko duela eskaintza egin digunak, bere eskaintza gutxiesten ari garela usteko duela eta, horrekin batera, etorkizunera begira ate bat itxiko zaigula. Ezezkoa ematen ikasi behar dugu, jaso behar duenak jasotzen ikasi behar duen beste.

Euskaraz sortzeak ere gure beldurra hauspotzen du. Izan ere, hain da txikia euskarazko sortzaileon mundua, gutxi-asko denok ezagutzen baitugu elkar, eta bati emandako ezezkoak hurrengo baten eskaintza zalantzan jar dezakeela uste baitugu askotan. Zer esanik ez gizona ez izatearen kondizioak ezezkoari diogun beldurra handitzen duela. Kulturaren eusle izan beharra dugu, euskara zaindu behar dugu, gainerako sortzaileak begirunez tratatu behar ditugu. Oro har, gizarteko gainerako jardunetan esleitu zaizkigun rol berberak esleitzen zaizkigu kulturaren ere. Horrekin zeharka lotuta dago euskarazko sorkuntza lanek duten kritika eraikitzaile falta. Ez gara ausartzen gure artean kritikak egitera, inor mintzeko beldurrez baikabiltza. Kritika, baina, fundamentuz eta errespetuz egindakoa bada, horizontalean egiten bada edo, berba batean esanda, eraikitzailea bada, sortzaileak berak ere eskertu egiten du, lagundu egiten baitio, hobetzeko bidea ikus dezake eta bere lanaren gaineko ikasketak barnera baititzake.

Ezetz esateko beldurra dugunean, ezinbestekoa da norbere prekaritate mailaren eta kausen kontzientzia hartzea; hartara, ezetz esateko behar dugun segurtasun hori aurkitzen samurragoa egingo zaigu.

Beldurraz gain, agerikoa den beste sentipena lotsarena da. Norbere baldintzak negoziatzeko lotsa, deserosotasuna. Eskaintza bat interesgarria iruditu dakiguke, baina baliteke berearekin dakartzan baldintzak prekariorak izatea edo duinago bilakatu ahal izatea. Halakoetan, saiatu behar dugu geure

baldintzak modu argian adierazten, gure beharretara ahalik eta gehien egokitu daitezten. Aldi berean, eskaintzaileak ere eskubidea izango du gure baldintzei ezetz esateko; baina gu gure baldintzak zein izango diren zehaztu beharrean gaude, eta argi utzi behar dugu baldintza duinik gabe litekeena dela lana burutu gabe geratzea. Beraz, «bai»-ari «baina» hori gehitzeko lotsa gainditu behar dugu, bada garaia geure lanaren aitortzak egiteko eta geure bizi-kalitateari merezi duen besteko arreta jartzeko.

Denboraren kudeaketa egokiagoa eta duinagoa egiteko eta beldurak eta lotsak gainditzeko bideetako bat gure artean saretzea da. Zalantza barik, saretze horrek prekaritateari aurre egiten hasteko balioko digu.

Kultur sorkuntzan dabilen jendea elkarrekin saretzeak berekin dakar kultur diziplina ezberdinetan aliatuak sortzea. Horrek gureak ez besteko lan-esparruekin komunikatzeko aukerak areagotzen ditu, eta baita belaunaldi ezberdinek elkar ezagutu eta praktika artistikoak elkarrekin egin ahal izatea. Belaunaldiartekotasuna eta transmisioa bertso-laritzan eta euskal dantzen eremuan nahiko nabarmenak diren ezaugarri bi dira. Jakintzat ematen da subjektuek elkarren beharra dutela diziplina bat zein bestea ikasteko eta, horretarako, beraiek baino helduagoak edo arituagoak diren erreferenteen beharra dutela. Horren adibide dira herriz herriko dantza taldeak edo bertso-eskolak. Azken horien kasuan, gure artean errotuen dagoen diziplina izanik, sartzeko eta elkarrekin lan egin eta gozatzeko aukerak areagotu dira. Gainera, aukera horiek, sarritan, ikuspuntu feminista baten praktiketatik eratorritakoak dira. Horren adibide dira bertso-udalekuak, Ahalduntze bertso-eskola feminista edota ohiko txapelketez kanpo muga batzuk zedarritu dituen ‘Señora sariketa’.

Esan beharrik ez dago sortzen diren saretze-eremu eta elkarrekin lan egiteko espazio horiek seguruak eta erosoak izan behar dutela, eta hala ez den kasuetan alternatibak bilatu eta bide berriak jorratu beharko direla.

Aipatutakoez gain, prekaritateak hartzen ditu beste hamai-ka molde ere. Forma horietako bat aitortza falta da, hau da, norbere lana lantzat ez hartzea. Halaxe dio Uxue Apaolazak 2021eko abenduaren 19an *Argia* astekarirako egindako elkarrizketan: «Beka jasotzean idazteak lan kategoria hartu zuenez, mesedeak eskatzen has nintekeen». Izan ere, aitortza falta ziurgabetasun ekonomikoarekin guztiz lotuta dago, hain zuzen ere, norbere sorkuntza lanak behin eta berriro lantzat hartuak ez direnean, gure bizitzak ekonomikoki sostengatu-ko dituen soldatapeko beste lan baten beharrea baikaude. Horrek dakar gure denbora librean sorkuntza lanak egiten aritu beharra. Lan horiek aisialdirako liratekeen orduetan egiten direnez, inguruko jendeak ere ez ditu lantzat hartzen askotan. Izan ere, gauza bat da zure sei-zortzi orduko lan serioa, hilabete bukaerako soldata ematen dizuna, ia-ia definitu ere egiten zaituena. Bestea da, ostera, norbere denbora librean norbere gustuz egiten dena. Eta gure praktikak sarri hala irakurtzen direnez, badirudi zilegi dela aisialdi orduetan lanean ari dena molestatzea, etxean isiltasunik ez mantentzea edo etxeko lanen ardura ere norbere gain erortzea. Aipaturiko hori gizarte produktibistaren isla garbia da, eta horrek guztiak zailtasun ikaragarriak egozten dizkio sorkuntza lan bakoitzari.

Sarritan, gainera, lana eta bizimodua gurutzaketa konstantean daude, batez ere, aipatu bezala, sorkuntza lanak norbere aisialdian eta norbere etxean egiten badira. Kasu horretan oso zaila da lana eta bizimodua bereiztea, eta elkarren artean filtratzen dira eten barik. Inoiz ez da bukatzen lana eta inoiz ez da hasten bizimodua.

Argi gera bedi, otoi, hau ez dela kultur sorkuntza soldatapeko lan finkotzat hartzearen apologia bat. Ez dut zalantzan jartzen kultur lanak bokazionala izan behar duela, gogoz eta barrutik egin behar dela. Gauza bat baieztatzeak ez dakar beti bestea deuseztatzea, eta bokazioz egiteak ez du esan nahi ekonomikoki zein moralki modu duinean jarduteko eskubiderik ez izatea.

Prekaritatearen beste formetako bat da emanaldi baterako eskaintza edota kontratazioa egitea baliabideak kontuan hartu gabe. «Ez da arazorik egongo» esaten dizute, batere

Bulkadaz sortzen  
dut, baina bulkadak  
ez du jaten ematen.  
Prekaritateari aurre egin  
beharrean gaude gure  
kultur sortzaileek erreta  
bukatuko ez badute

larritu gabe. Gero, ordea, norbera ibili behar atzetik, norbera arduratu behar hainbat gauzaz. Forma horrek kontu ekonomikoei ere eragiten die, askotan zailtasunak izaten baitira kobratzeko orduan, eta ia beti denbora asko pasatzen da ordainsaria jasotzerako.

Baldintza kaskarren molde horrekin hertsiki lotuta dago lana eskaintzeko modua ere. Kalitaterik gabe eskaintzen dira lanak sarri, argibide zehatzik gabe, eta norberak galdetu ezean arriskua dago hainbat baldintza zein izango diren jakin barik geratzekoa. Sorkuntza lana egiteko enkargua kalitatez eskaintzeak, hau da, hizkuntza eta moduak zaintzeak, iristeko bideak zaintzeak eta argibideak eta baldintzak zehatz emateak, balioa eransten diote lanari. Sortzaileak berak ere, baietz esatekotan, ziurrenik segurtasun handiagoz helduko dio lan horren ekoizpenari.

Azkenik, ezin esan barik laga gorputza-heteropatriarkatua-kapitalismoa hirukoak gure lanen prekaritatean duen eragina. Gorputzean gaude eta gorputza gara. Gorputzean gertatzen zaigunak gure bizimoduan eta, horrenbestez, gure kultur sorkuntzan eragiten du. Heteropatriarkatuak, baina, gorputz asko deuseztatzen ditu, baliogabetu egiten ditu. Gorputz horiek aitortuak ez diren momentuan, horien sorkuntza lanaren ikusgarritasuna eta onespina ere kolokan jartzen dira. Horrez gain, kapitalismoak ez ditu gorputzen erritmoak errespetatzen. Ekoizpenerako duen obsesio horrek jota, ez die uzten gorputzei egonean egoten, gaixotzen eta sendatzen, deskantsatzen.

Beraz, prekaritateak hainbat forma hartzen ditu, eta gutako asko hiru aldiz gurutzatzen gaituzte. Kulturen aritzeak dakarren aintzatespen falta, hizkuntza minorizatuan sortzeak dakarren bazterkeria eta gizon ez izatearen kondizioari egotzen zaizkion rol eta egiteko moduak. Azken horrek berarekin dakartza beste prekaritate batzuk, hala nola ikusgarritasun falta, perfekzioa exijitzea, zaintza-lanak, bestelako trataerak, pertsona jakin batzuen onespena lortu arte norbere buruaren aitortzarik ez sentitzea eta zuetako edozeinen bizipenetik zerrenda honetara gehitu daitekeen oro.

Hori ez da biktimizazioa, hori ezin da betekotu eta orokortu. Argi dago kulturen aritzeak batzuentzat badakarrela prestigioa ere, euskaraz sortzeak ahalbidetzen duela gure mundu ttipia sortzea, eta bertan sufritu beste gozatzea. 26 urte dituen emakume idazle baten roletik ari naiz idazten, neure bizipenetatik eta inguruan ditudan lagunenetatik.

Bulkadaz sortzen dut, baina bulkadak ez du jaten ematen. Prekaritateari aurre egin beharrean gaude gure kultur sortzaileek erreta bukatuko ez badute. Idazten dugu, sortzen dugu; lana egiten dugu, ekarpenak egiten ditugu; sortzaileak gara.

Gustatzen zaigu eta egiten dugu, baina pasioa ezin da beti motor bakarra izan.

\*\*\*

Pandemia egonkortutzat eman eta baldarki izendatu dugu garaia: «normaltasun berria». Normaltasuna bera lehen ere ez bazen guztiz ona kulturarentzat, berria are okerragoa da. Prekaritatea bizitzaz eta heriotzaz jabetu da, osasunaz eta gaixotasunaz. Nola bizitzan, hala kulturen.

Orain arte aipatutako prekaritate moldeek berdin balio zuten pandemia aurretik ere. Osasun-larrialdi egoerak eta hura denboran egonkortzetik eratorri den normaltasun berriak molde horiek areagotu ditu, berri batzuk sortzeaz gain.

Euskal kultura segurua da?

Gaizka Insunza ikertzaile eta musikariak hala ondorioztatu duela dio abenduaren 16ko *Berria* egunkariak: «Gaixo zegoena are gehiago gaixotu da». Egoera horren aurrean instituzioetatik bideratu diren laguntzak ez dira nahikoa izan. Horrek agerian uzten du gizarteko egitura desberdinetan kulturak jasaten duen errespetu eta balorizazio falta.

Ezin ukatuko dugu zer izango zen zehazki ez genekien «normaltasun berria» delakoa iristeko irrikaz egon ginela asko eta asko. Etxetik ateratzeko gogoia genuen, jendearekin egotekoa, planak egitekoa. Kulturzaleok ere gogaituak ginen *online* formatuko emanaldiekin. Kaleak eta plazak berreskuratu nahi genituen, berriz ere geure egin, horietan dantzatu, aretoetan bertsotan egin, irakurle klubekoekin elkartu zein zuzeneko kontzertuak gozatu. Hasi zen apurka-apurka etorri beharrekoa etortzen. Kaleetara itzuli gara, aurpegia erdi tapatuta bada ere. Aretoetan eseri gara, baina, segurtasun distantzia tarteko, zaildu zaigu bertsoaldia ondokoarekin komentatzea. Bertsolariak eurak ere musukoarekin etengabeko borrokan ibili dira, kendu eta jarri, zer egin ez zekitela askotan. Kontzertuko kanta hunkigarrian albokoari ere ezin kokotean besoa bihurritu, norbere emozioz bestea emozionatzeraino. Irakurle klubeko andreei betaurrekoak etengabe lurrundu zaizkie beren hatsarekin, literaturaren aitzakiazko hizketaldian ipuin berri baterako eszena sortzeraino. Zineman lagunari izterrean laztanik ere ezin egin, pelikula bakardade sentazioan ikusi behar, krispeten usainik ezin hartuta gabiltza. Zer zen ba erromantikoa zinemaren iruditeria!

Hala ere, berrasmatu gara eta irauten dugu.

*#kulturaseguruada*. Retweet eta like, bata bestearen atzetik. Geure buruen aldarrikapena beste da justifikazioa sortu dugun mantra berria. Kultura segurua da, baina zeren kontura? Aforoekin estu eta larri, eserita, aire librean, distantziarekin eta, hala ere, musukoarekin. Neurriak zorrotz errespetatu behar pandemiari gain hartuko badiogu; baina, batez ere,

neurriak zorrotz errespetatu behar pandemiaren aitzakiapean kulturari gain hartuko ez badiote. Zigortuko gaituzten beldur etengabea ibili gara, lehen makala zena gehiago ez makaltze aldera. Izan ere, halaxe gertatu ohi da: ahulena denak ordaintzen du preziorik altuena, hari botatzen zaio haginkada.

Kultura segurua da, baina ez berez. Kultura segurua da kulturgileok, antolatzaileek, ikus-entzuleek eta, oro har, bueltan-bueltan ibili direnek hartu dituzten ardura izugarriengatik. Konprometitu gara eta gure jardunarekin aurrera jarraitu nahi izan dugu.

Sareetan aupada bat baino gehiago jaso dituen «kultura segurua da» formulaziotik eratorri da artikulu honen izenburua. Kultura segurua da, pandemian eta pandemia aurretik. Segurua ez ezik, ziurra ere bada, eta ondoren datorren kultur egikarien zerrenda da horren testigu. Sasiak jan bako larrerik nekez aurkitu daiteke, baina. Euskal kulturaren segurantzak baditu ziurgabetasun hainbat, eta horren adibide dira orain arte aitatu diren prekaritateak eta horien ondorioak. Ziurgabetasunaren lupetzetan, erori ez erori, pausoa non seguru eman jakin ezinik aritzen gara askotan. Hala ere, nahiz eta indibidualki sarritan ez digun segurtasunik ematen, euskal kultura segurua baino gehiago ziurra da. Izan ere, kolektiboki sostengatzen dugu kultura, sortzen jarraitzen dugulako, eta inertzia horrek indibidualki ere eusten gaitu.

\*\*\*

Prekaritatea eta normaltasun berria. Bi horiei gehitu testuaren hasieran idazleak bere beldurren aitortza egin duela. Errealitate gordinetik eta ilun samarretik jorratu dut artikulua, baina ez nuke nahi modu berean amaitu. Lehenengo eta behin, ez litzatekeelako justua, ez litzatekeelako gertatu den guztiarekiko leiala. Baikor egoteko motibo bat baino gehiago baditu euskal kulturak, zentzu batzuetan segurua eta beti ziurra baita. Prekaritateak prekaritate eta pandemiak

pandemia, gauza eder asko egin dira aurten ere. Zerrenda hau ez da izango osoa, baina izango da egiazkoa. Subjektibitateak idazteko baimena eman zidaten, eta hona hemen, irakurle, neure subjektibitateak marraztu duen zerrenda. Saiatu naiz hainbat diziplina sartzen, eta zerrendako aipamen guztiek dute hemen egoteko arrazoi konpartitu bat: hunkitu naute, pentsarazi didate edota transzendentzia berezia hartu dute nigan ondoren azalduko ditudan adierazpen artistikoek.

Behin eta berriro joan ahala are gehiago astindu nau *Bizitza happening* erakusketak. Tematu ere egin naiz apur bat, eta leku berezia eskaini nahi izan diot. Maialen Lujanbiok Tabakalerako eskailera nagusian instalatutako obra ez da ohituta gauzkan moldekoa. Bat baino gehiago joango ginen bertsoen edo, behintzat, hitz lauzko testu jarraitu baten ustean. Usteak erdia ustel, eta zalantza dut oraindik nola definitu erakusketa bera. Zalantzatik ari da hizketan Lujanbio bera ere. Hizketan baino, hitz solteak kateatuz esaldi sujerenteak xuxurlatzen. Hitz-joko etengabea jasotzen du bertan dagoenak hainbat bozgorailutatik. Zalantzaren eta ziurtasunaren linboan, iradokiz eta pentsaraziz. Zalantzatik hitz egiten dizutenean, zailagoa da norberak zalantza egitea. Sujerentziak ez baitira baieztapenak. Iradokitzen badizute pentsa dezazula ari zaizkizu esaten, eta eskertzekoa da hori Euskal Herria debate digitaletan murgilduta eta plaza publiko pantailak ordezkatuta dauden honetan.

Paretan aurkitu dudan lehenengo aipuak eman dit zer pentsatua: «Zu hemen zaude» dio horma zuriak. Boteprontoan etorri zait galdera: «Baina zergatik?». Hitz-jokorako eta pentsatzeko gertu hurreratu behar da erakusketara. Belarriak zoli eta burua zein gorputza kontzentratuta. Arteak eskatu behar du ahalegina. Esaldi iradokitzaile zenbaitzuk koadernoan zirriborratu ditut. Autorea bera kolpatu egin zuen pasarte batek, eta horra bere obraren jatorria. Ni ere hunkitu naute esaldi batzuek. Hunkitu baino, ukitu egin naute. «Dena gertagarri, dena artegarri», eta artega jarri naiz: non daude artearen mugak? Norbere errealitatea da artearen muga ala

badugu fikziorako eskubiderik ere? «Edozerk zu-mintzen ez» ulertu uste diot, xuxurlaz ari baita, eta inguruan jendea dabil, eta zarata dago. Edozerk ez bazaitu mintzen (edo sumintzen), nondik sortzen da orduan artea? Nola bilakatzen da errealtatea artegai? Ez al da artea errealtatearen sublimatzea, edo, muturrera eramanez gero, fikzioaren bidez errealtate berriak sortzea? Ba al du mugarik fikzioak?

Filosofiatik datorkidan kutsua agerian utzi du Lujanbioren obrak. Galderak egitea baita filosofiaren zeregina. Erantzun zurrak ez izatearen ziurtasunean pentsarazteko galderak egitea. Iradoki du autoreak, eta tranpan erori naiz, nire erorketaren jakitun eta kolpea hartzeko beldurrik gabe.

Arteari beti eskatu izan diodana eta gutxitan jasotzen jakin dudana eman dit Tabakalerako instalazioak. Pentsarazi egin dit, erantzun premiarik ez duten galderak eginarazi dizkit, eta bertara behin eta berriro bueltatzeko gogoia piztu dit. Aitor dezadan, aldi berean, obra abiatzen duen pasartearen eta entzunaldiaren arteko loturak egitea kosta zaidala. Formatuak ere harritu bezainbeste errezeloa sortu dit. Zarataren erdian xuxurla egotea poetikoa da, baina jarraitzeko, hunkitzeko eta sentitzeko zaila ere bai. Horixe, hain justu, gure gizartean kulturari geratzen ari zaion tartea.

Estetikoki zeresana duen artista baten lana topatuko duzue. Zeuek ere joan eta pentsatu. Horra neure gonbidapena.

Bereziki tematu naizen obra horretaz gain, beste hainbat kultur sorkuntzek ere zer pentsatua eman didate aurton. Hau ez da anekdotario bat izateko jai, bai, ordea, zertzelada multzo bat. Subjektuak objektu artistikoaren aurrean duen

Baikor egoteko motibo bat baino gehiago baditu euskal kulturak, zentzu batzuetan segurua eta beti zurrak baita. Prekaritateak prekaritate eta pandemiak pandemia, gauza eder asko egin dira aurten ere

begiradaren eguneroko bat, gutxi gorabehera. Lehen aipaturiko denbora faltak ez du sorkuntzan bakarrik eragiten, kontsumoan ere bai. Horregatik, ezin dugu sortzen den guztia entzun, ikusi eta irakurri. Beharrik ere ez, egia esate aldera.

Idazki honen begirada propioa eta subjektibotasuna argi utzirik, noan aurtengo nire eguneroko kulturala idaztera.

Bertso txapelketen itzulera izan da afanean ibiltzeko arrazoietako bat. Plazan gozaten da gehien bertsoa, baina ezin uka txapelketaren zirrara berezia. Zer esanik ez finalena. Xilabako finala etorri zen lehenengo, eta sei bertsolariek erakutsitako mailak poza eman zigun bati baino gehiagori. Bidasoa gero eta zabalagoa den garaiotan, hangoak hangoago eta hemengoak hemengoagotzat hartzen ditugun honetan, zubi bat irekita eta zeharkatzeko moduan dagoela gogorarazi zitzaigun. Bidasoaren zabalera ez da euskaldunontzat bakarrik handitu. Amets Arzallus txapeldunak agurrean bertan gogoan hartu zuen euskararen lurretatik pasatzen den muga berriro ere hiltzailea dela, eta jendea geure etxean hiltzen ari dela. Kulturak ere behar du oihu sozialetik. Aldarrikapenik behinenak, final hartan behintzat, Miren Artetxek bota zituen, eta ekarpen nabarmenak egin zituen; hala nola, faxismoaren gorakadaren inguruko gaitik tiraka, askatasunaren kontzeptua hartzen ari den deriba arriskutsuaren berri eman zuen eta, aldi berean, berba hori berriz geureganatzearen garrantziaz aritu zen. Pobreziari eta emakume prekarizatuari ahotsa eman zion, nola eman ere. Bertsoak neurritz, errimaz eta teknikaz goitik beherakoak izatearekin ez baita aski, behar baitu bertsoak ere ekarpena egin. Edozein arte-diziplinak bezala, pentsatu eta pentsarazi.

Bertsolaritzari azken hilabeteetako astindua Nafarroatik etorri zaiola esango nuke. Iruñeko finalean Saioa Alkaizak oso kontuan hartzeko ekarpen ugari egin zituen. Hala ere, haren ondorena ez da gutxiagorako. Txapela irabaztearen aitzakian emandako elkarrizketa askotan ekarpen berritzaileak egin ditu Alkaizak. Sekundarioek bertsotan duten garrantziaz

aritu izan da, eta, horrekin lotuta, tradizionalismoari belar-rondokoa: «Badira bertsolari izateko mila modu», dio *Argia* astekariko elkarrizketan, beste hainbat perlaren artean. Zinez dardara polita izaten ari da, eta jarrai beza lurrikarak.

Bertsoei beraiei helduz, arratsalde osoko saio bikaina josi behar izan zuen Alkaizak txapela lortzeko, ekarpenak zein teknika, biak elkarrekin bikain jorratuz. Eta nago ez ote zaien bertsolari batzuei besteei baino perfekzio zorrotzagoa eskatzen. Botere-harremanak nonahi, geure naturalezaren parte.

Bizkaian ere finala jokatu da, eta esperotakoa bezainbeste beharrezkoa zen aldaketa gertatu da. Emakume bi buruz burukoan, Nerea Ibarzabal eta Jone Uria, apunte historiko bat hortxe. Anekdotak hutsa izango ez den apunte bat, bide batez. Ez baita badaezpadakoa feminismoa bertsolaritzan egiten ari den bidea, bere oztopo eta guzti. Oztopo horiei buruz kantatu zuen Ibarzabalek bere bakarkakoan, lezio magistral bat emanez eta bat baino gehiagori dardara eginaraziz. Uxue Alberdik 2019an *Kontrako eztarritik* liburua idazteko batek baino gehiagok hitz egin zuten. Haiek jasotako isiltasunari berriz ere berbak jarri zizkion markinarrak.

Eskuekin eta hankekin egin dugu berriro txalo final batean baino gehiagotan. Maila bikaina erakutsi dute bertsolari askok, estetikoki zein ekarpen aldetik. Geldi ez gaudenaren seinale. Plazan zein pabiloian, bertsoaren estetikaz eta bertsoaren ekarpenaz eztanda egiten jarrai dezagun.

Mikrofono aurreko jardunarekin jarraituz, irailarekin batera iritsi zen euskal kultur mundu txikia astindu zuena: Anariren *Vinu, cantares y amor* ereserki bihurtu den abestia. Sinbolikoki hartu zuen indarra abestiak, eta saretan bolo-bolo ibili da bideoa. Abestia bera bezain potentea baita irudia. Konplize talde bat kantuan eta dantzan, iraultza geure egin guran. Ez da kasualitatea Putzuzulo gaztetxean grabatuta egotea. Kultura sostengatu dute gaztetxeek, eta halako espazioak guztiz beharrezko zaizkigu gure jarduna sortzen,

Euskal kultura segurua da?

gure jardunetarako saretzen eta kultur adierazpenez gozatzeko jarraitzeko.

Mikrofono aurrean ibiltzen dira irrati esatariak ere. Euren antzera dabilta aspaldian boladan dauden podcasten sortzaileak. Kalitatezko podcast komunitatea dugu gurean. Berehalakotasuna eta azkartasuna gero eta baloratuagoak dira, gauza bi aldi berean egiteko aukera ematen dutenak nahi baititugu. Areak ere, horretarako aukera ematen dute podcastek. Euskarazko pentsamendua zabaltzen laguntzen dute, eta kulturari, politikari zein estetikari buruzko hainbat programa sortu dira.

Entzunezkotik ikustekoetara. Liburu on bat baino gehiago utzi ditu aurtengo urteak ere. Asko produzitzen da euskal literaturan, eta ondo ere bai. Iaz argitaratutakoa izan arren, Bidasoaren egoera ikusita, ezinbestekoa da Eneko Aizpurua-ren *Bidasoan gora* liburua gomendatzea.

Bide batez, eta ibaitik aldendu gabe, Hegoaldeko ondo datorkigu Bidasoaren bestaldekoari erreparatzea: Dom Campistronen *Bekatorosak* lan grafikoa da iritsi zaigunetarik bat. Horratx liburu koloretsua, azalez zein mamiz. Borroka marika eta bolleraz ziprztindutako zazpi maitasun istorio kontatzen ditu liburuak, eta irudiz lagundutako tipografia berezia darabil horietako bakoitza ilustratzeko.

Itxaro Bordak letren bidez gorpuztutako Amaia Ezpeldoi detektibeak agur esan digu irakurleoi. Haren erretreta kontatuko digu *Euri zitalari esker* nobelan. Idazle saiatua da Borda, ekarpen ugari egin dizkiguna eta, esango nuke, orokorrean, merezi duena baino aitortza gutxiago jaso izan duena. Bidasoa gero eta zabalagoa da, esana geratu da.

Filosofia hezkuntza curriculumetik murrizten ari diren honetan, azken gomendio literario gisa, aipatuko dut Iñigo Martínez Peña filosofoaren *Mandamentu hipermodernoak*. Azpitituluaren dioen bezala, «egungo inertziak zalantzan jartzen» saiatu da idazlea. Geure aroaren hainbat bereizgarri ezagarriz ahalegindu da liburu osoan zehar, pentsamendu

kritikoa erdigunean jarriz, eta garaiaren kontzientzia hartuta bizimodu hobe baterako gonbidapena eginez. Filosofiaren defentsa egin beharrean gaude, hark emango baitzikigu pentsatzeko tresnak, lagunduko baitigu kritikoak izaten, bizi garen egoeraren kontzientzia hartzen eta aurrera begirako bidegurutzeetan bide egokiak zedarritzen.

Atal honen bukaeran, ezin aipatu gabe utzi Euskadi Literatura sariak. Edozein sari da beti aho biko ezpata: batetik, aitortza egiten zaio lanari eta ikusgarritasuna ematen zaio; bestetik, irabazlearen itzalean geratzeko arriskua dute irabazi ez dutenek. Genero eta adin kontuei dagokienez, hainbat kritika jaso dituzte sariok aurten ere, baina gure pentsamendu kolektiboak aldatu eta bestelako perspektibetatik begiratzen ez dugun bitartean, inertzia horiek jarraitu egingo dute. Irabazlearen merezimendu osoari ezer kendu barik, esan gabe doa. Garaipen indibidualek porrot kolektiboak sostengatzen ez dituzten bitartean, ondo etorriak bitez sari eta aitortza guztiak.

Entzutekoak eta ikustekoak jorratu dira, eta ikus-entzunez-koei lotuta uzta ez da nolanahiko izan. Aipatu beharreko lan bi, behinik behin. Batetik, antzerki munduan errebelazio bat, apurka hazten doan artista: Jon Ander Urresti. Obra berezia agertokiz agertoki darabil aurton: *Tribiz, baserri galdue*. 700 urtetik gora dituen Bizkaiko baserririk zaharrenaren aurrean bizi da bermeotarra. Berak dioenez, baserritik geratzen diren hondakinen aurrean, zehatzago esanda. Gelditu den baserria galdu den baserria baita. Iraganaz, orainaz eta etorkizunaz ari da Urresti, baserriaren memoriaren arduraz. Bere egin ditu baserri zaharreko hainbat pieza, eta agertoki gainean bizi berri bat eman die. Garai batekoen bizimodua dakar gogora antzezleak, emozioz eta apunte antropologikoz betetako lanean. Urte berriarekin batera emanaldiak eskaintzen jarraituko du.

Agertokitik pantaila handira salto eginda, aipagarria da Arantza Santestebanen *918 gau* pelikula. Militantzia politikoa-ren gaineko gogoeta kritikoa dakar zinema zuzendari nafarrak. Sari potolo bi jaso arren (Doçlisboa festibalean eta Torino Film

Euskal kultura segurua da?

Festivalen), oihartzun larregirik ez gurean. Kartzelan pasa zituena ia hiru urteak kontatzen ditu film luzean, oroitzapenez eta zalantzaz mintzo zaigun ahots baten bidez. Halako testigantza eta hausnarketek ere idazten dute gure historia.

2021a ere gure historiaren parte izango da laster. Gertatutakoek osatu dute gure kultur mundu txikia, eta gertatzear gertatu direnek laster osatuko dutelakoan nago. Ezin aipatu gabe utzi Euskal Kultur Sorkuntza eta Kritika Feminista izeneko graduondokoan jasotako apunteek artikulu hau idazteko eskaini didaten sostengua. Horrez gain, *Berria* egunkariak jasotako 2021eko uzta kulturala ere lagungarri izan da.

Aitor dezadan egindakoa ez dela zerrenda justua, ez behintzat justiziaren zentzu hertsian. Bada, ordea, zintzoa; neu eta nire ingurukoak ukitu gaituzten hainbat obra aipatu nahi nituen, nire begirada jorratu, distantzia hartu eta balantzea egin. Egin dudana hemen dagoena da, baina ikusteke dago oraindik hau ni naizen. Denborak esango du kultur ibilbidea zein izango den, bakoitzarena zein jendartearena, sortzearena zein jasotzearena.

Kartografoak bere erara marrazten du lurraldearen mapa. Kontziente izan behar luke, behinik behin, marrazteko beste hamaika modu ere egongo direla, berea bezain zilegi direnak. Gure kulturaren lurrari begira hegatzadan aritu den txori honek, bere burua aurkitu baino gehiago galdu duenak, taktet zabal batean hartu nahi du atseden orain, konplize izan ditueni eskerrak emanez. Hor dute libre besteek ere zeruko espazioa, hegoak zabaldua lurrari begiratu gurako baliote, eta euren begiz kartografiatu beraiek ere parte diren mapa. 🍷

### Sormena, lidergo sinbolikoa?

Hasten naiz urteko errepassoa egiten eta ikusten dut Tabakalerak euskal sormena nazioartera zabaltzen jarri nahi izan duela indarra aurten eta hiru milioi euroko aurrekontua izan duela horretarako. Tekniker zentro teknologikoarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu dutela sortzaileen lana beste esparru batzuetara zabaltzeko, esaterako industriara eta zientzia arlora, «ahalmen berritzailea» bultzatzeko eta nabarmentzeko. Ikusten dut ere Azpeitiko Dinamo sormen gunea ofizialki zabaltzeko, eta udalak eta Kulturaz kooperatibak lau urterako konpromisoa sinatu dutela. Ikusten, Sormene egitasmo berritzailea sustatu duela Galdakaoko Udalak, eta *Gureak egin* proiektuarekin ausartu direla Iruñean, aisialdian ere gazteen artean kultur transmisioa lantzeko. Ikusten dut, gertu ikusten ere, hezkuntza arloan bueltak eta bueltak ari direla sortzaileek ekoiztatzea ikasleenganaino nola hurbildu asmatu nahian, hausnarrean.

Eta ulertzen dut batzuetan harridurarako motiboa izatea, eta are gutxiesgarria ere, sormenarekiko batzuekiko dagoen kezka etengabe hau. Herri honek ez du sorkuntzan eta ekoizpen artistikoan horrenbesteko arreta jarri behar, esango dizute, artistak ez dira hain garrantzitsuak. Esango dizute: herri honek industria eta sare produktibo sendoa behar du; herritarren bizi baldintzak hobetuko dituen politika orekatua; lurralde kohesioa landuko duen planifikazioa; larrialdi klimatikoaren aurrean estrategia berritzaileak asmatuko dituen ekintzailetza; gizon eta emakumeen arteko arrakala orotarikoa berdinduko duen hitzarmen kolektiboa; migranteei abaro duina emango dien elkartasun instituzionala.

Eta arrazoi, aizue. Baina nago indargune gisa har dezakegula sormenarekiko daukagun lilura batzuetan neurrigabe hau. Badakit lilura erlatiboa dela, nondik begiratzen den. Hemen –izan gaitezen zintzoak– ia inor ez da sortzaileei begira bizi; ia inork ez die aitortzen mundua eraldatzeko gaitasuna. Oro har, sortzaileak ezezagunak dira, ikusezinak askotan; ez daude ondo kontsideratuak; ez dute prestigiorik. Eta, hala eta guztiz ere, uste dut horrenbeste proiektu eta asmo baldin badaude horien lana promozionatzeko, izango dela gaitasun eraldatzaile eduki dezaketelako, iruditeria kolektibo indartsua eratzeko.

Badakit ideia hori bera, kultur sorkuntzari bide urratzaile izateko gaitasuna aitortzea, gure ahuleziaren adierazlea dela. Herri normala bagina, sortzaileei beste tokietan aitortzen zaien balioa aitortuko genieke, ez gehiago: plazer estetikoa sortzekoa; pentsamendu kritikoa eragitekoa; aisialdia betetzekoa. Funtsezkoa, oinarritzkoa, baina horixe. Hemen eman nahi diegun estatusa, berriz, besterik da: herri bezala beste esparruetan aurkitzen ez dugun lidergoa horiek hartzea dugu amets, sikiera lidergo sinbolikoa.

Niri miragarriak iruditzen zaizkit han eta hemen ziklikoki egiten diren ahaleginak; eta miragarria, zinez, benetan pentsatzea sorkuntza gizarte honen marka bereizgarria izan daitekeela, Islandiakoa bakailaoa den bezala. Gizarte utopikoa nahi bada, herritartasun ia fiktizioa beharbada, baina gizarte, azken finean.

### *Hondalea eta Laba*

Bi hiri, bi proiektu, bi aurrekontu, bi abiapuntu. Bi.

Cristina Iglesias eskultoreak Donostiari egindako opari gisa saldu digute *Hondalea*. Ez naiz paratuko proiektuaren eraikuntzak inguruari egin dion kaltea baloratzen, edo donostiarrentzat txoko ezkutua zena deskubrituta erremediorik gabe izorratu dutela salatzen. Aitortu behar dut sekula egon gabea nintzela Santa Klara uhartean, nahiz eta behin baino

gehiagotan fantasiatu dudan haraino Ondarretatik igerian iritsiko naizen momentuarekin. Eta esan behar dut *Hondalea*-ri esker iritsi nintzela hara aurtengo udan, eta erromantikoa iruditu zitzaidala tokia. Erromantiko, zentzu estetikoan: ardo zuri bi, konpainia ona, eta Donostia osoa parez pare eta, era berean, urrun; non eta dena salgai eta denen bistan jarri duten hiri biluzi baten erdian, toki sekretu bat.

Santa Klararaino iritsi nintzen, beraz, *Hondalea*-ri esker, baina hori da Cristina Iglesiasi oraingoan aitortuko diodan meritu bakarra, proiektua bera obratzeko egin behar izan zuten zuloa bezain hutsa iruditu zitzaidalako gainerako guztia. Lagunak zorrozki epaitu zuen: aberats batek etxeko lorategian Niagarako ur jauziak errepikatu nahi izan balitu bezala; edo mendialdeko herrixka bateko plazaren erdian pago edo lizar baten eskultura errealista jarri izan balute bezala, urrezkoa eta tamaina naturalean, eta ponpa handiz inauguratu gero; edo, Donostiako Paseo Berritik bi kaletara, itsasoaren olatuen irudiekin etengabe berritzen den bideo instalazio erraldoi eta garestia jarri izan balute bezala.

Eta pentsatzen dut paralelismoa egin daitekeela autobiaz bestaldeko Laba egitasmoarekin. Paralelismoa, espazio publiko eta pribatuaren erabileraz eta kulturaren funtzioaz.

Mezenas batek espazio eder bat eman dio gazte kuadrilla bati Iruñeko plaza nagusiaren erdian. Egin ezazue zerbait, esan die. Bi baldintza: toki euskaltzalea izatea, eta jatetxe/taberna hutsa ez izatea. Jarri dira pentsatzen eta borborrean hasi dira. Harremanak egin dituzte inguruko gazte gehiagorekin, baita haiek baino jende helduagoarekin ere. *Bonbonera* bat daukatela, ideiak behar dituztela. Ez da modurik onena izango proiektu bati ekiteko ideiak asmatzen ibili behar izatea, baina pentsatzen haste hutsak eragin du mugimendu magmatikoa, poliki-poliki zabaldu dena, eta behintzat lortu du gazte kuadrilla zabal, askotariko, euskaltzale eta interesgarria buruari eragiten jartzea.

Oraindik bidea egiten ari dira. Berriz diot: espazioa berritzeko proiektu bat pentsatu behar izatea ez da modurik

onena hasteko; nola esan: txipiroiak tintarekin hastea bezala da, baina interesgarria izaten ari da prozesua.

Gazteak «pentsatu, madarikatuok, pentsatu!!» elkarri oihera irudikatzen ditut, arratsalde honetan bai eta hurrengoan ere bai, Iruñeko Gazteluko Plazako izkina hautatuan, ia ilunpean, ia klandestinitatean. Egingo dute zerbait.

### Heriotza eta mina

Bitartean, jarraitzen dugu lozorroan, esnatu nahi bai baina erabat esnatu ezin egoten gareneko egoera horretan bezala, non zaila den irudikatzea egunean zehar zer egingo dugun, zer egin ahalko dugun. Txertoa, egiazki, pixka bat loarazteko jarri izan baligute bezala. Zaila da arnasa luzeko egitasmoei ekitea, dena baldintzatuta egongo den susmoa daukagulako.

Maslow kolektiboa inguratzen gaituen errealitateari ikuspegi estetikitik begiratzen dion Iruñeko artista talde bat da. Aldarrikatzen du arte garaikidea bereizi egin dela ikusleengandik, itzuri egin diela kalean bertan hizketa gai diren afera nagusiei. Eta heriotza eta sufrimendua desagertu egin dela kezka estetikoetatik. Hauxe idatzi dute Kondestable jauregian urtearen hondarrean paratu duten testuetako batean:

Gure gizarteak heriotza saihestu, ezkutatu, zarata gero eta gorragoa bihurtzen du. Gai izango ginateke bizitzarekin gauza bera egiteko? Gozamenarekin, alaitasunarekin? Heriotzaren minaren ukazioa zentzugabea bezain benetakoa da.

Uda aurretik, Tarragonako Arte Garaikideko Zentrarako enkargatu zieten erakusketarako idazki bat eskatu zidaten, heriotzari buruz ideia bi zirriborrazteko. Bizi dugun pandemiarekin lotu nahi zuten heriotzaren ideia, esan zidatenez.

Leteren poesiatik abiatu nintzen. Aipatu nuen Letek esana: gizakiaren eginbehar nagusietako bat naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea zela; gure egia bakarra hori zela, «indarrak ongi errotuz» bertatik irauteko.

«Gizakiaren eta naturaren arteko lotura hori ahuldu egin delakoan nago, negu luze honetan», idatzi nuen.

Bereizi egin gara ingurutik, bereizi egin gaituzte. Ni bihurtu gaituzte. Ni eta zu, gehienez ere. Ezabatu dugu gu-a, baina ez elkartzeko eta besarkatzeko aukera debekatu digutelako bakarrik, ezpada elkarrekin pentsatzeko aukera diluitu egin delako: norberaren beldurra nagusitu da, irtenbide pertsonaletan pentsatu dugu. Eta gu-rik gabeko ingurua egongelako izkina batean kargatzen utzi dugun robot hauts xurgatzailea da *stand by-n*.

Dena gelditu egin da, etenda dago mundua, *pause*, dena mar-txan dagoela badirudi ere.

Pandemiak sortu duen giro izu eta barnerakoia hortik dator: ahultasunaren kontzientziak eztanda egin digu begi aurrean. Hori da sentitu dugun segurtasun faltak ekarri digun gaitzena.

Denok daukagu ohe huts bat zain. Denok dakigu ohe huts bat daukagula zain. Baina beldurra ez da hori. Beldurra da pentsatzea ohe huts horren ondoan ez dela ezer egongo. Eta horrekin mehatxatu gaitu negu luze honek: ondoan ez dugula inor izango.

Eta lerro hauek idazten ari naizen unean berriz sentitu dugu ziurgabetasunaren kolpea, txertatze masiboak promesten zigun segurtasunetik urrun distopia durduzagarrira bultzatzen baikaitu errealitateak.

Horregatik, harrigarri samarra egiten zait irakurtzen ari garen, entzuten ari garen, ikusten ari garen ekoizpen artistikoan oraindik ez antzematea pesimismo edo barne biltze kolektibo honen oihartzunik. Etorriko da marea.

## Argiantza eta Tatiana Tibuleac

Aurten irakurritakoaren artean, bi liburu: Pello Lizarralderen *Argiantza*, eta Tatiana Tibuleacen *El verano en que mi madre tuvo los ojos verdes*. Biek dute Letek aipatzen zuen naturarekiko harremanetik zerbait. Natura gizakiz osatutako ekosistema

bezala ulertuta. Biek dute barne begirada berezia, testuari eta estiloari darion korrante pausatua. Lerro bakoitzak eta metafora eta irudi bakoitzak txipiroien tinta lodituak uzten dizun zapore iraunkor bera uzten dizu. Oihartzuna ez da erraz desagertzen. Literatura ona.

### Chill Mafia eta Tapia

Esango nuke hainbati buruak eztanda egin diela bum! Arrotxapeko gazte irreberente euskañolistak Joseba Tapiaren inguruan ikusi dituztenean, denak txandal frikiz jantzita. Tapiaren beraren eta Koldo Izagirreraren proiektuarekin kolaboratzen zein promozioa egiten aritu diren musikariek oso iturri ezberdinetan edan dute, genero, hizkuntza eta tribuei dagokienez; musika eta giro zikinetan busti dira, hasi musika beltza, inprobisazioa, banda herrikoiak edo rapa, trapa eta gainerako -ap guztiak barne. Eta Tapiari ez zaio arrotz esperimenez, ohituta dago esparru itxien gainetik salto egiten eta ondoko larreetan jauzika hasten.

Denen artean erakusten dute bide bat: hibridazioa ez da aukera estetiko hutsa, geratzen zaigun bide bakarra baizik. Lege zaharrak ez dira itzuliko, txo. 🍷





## Paris da mundua, periferiatik

Lapurdiko udal liburutegi batetik euskal kulturari begira jartzea da artikulu honek proposatzen duen ariketa. Hau da, Frantziako Estatuko administrazioaren menpeko leku batetik, eta aldi berean euskaratik. Noisy-le-Grand hiri baten izena da. Orain arte ez nekiena existitzen zenik ere. Baina azken urte honetan nire estres guztien epizentro bilakatu zait. Han pasatu baitut egitura publikoetan liburuzain izateko pasa behar den konkurtsua, funtzionario estatutua lortzeko. Hau da, Lapurdi delako txoko horretako liburutegi batean lan egiteak Noisy-le-Grandera eraman nau. Parisen periferian kokatzen den hiria da Noisy-le-Grand. Bere abantaila hori du. RER A hortik pasatzen da. Ez da Paris Paris, baina aski hurbil da, halere, Paris izateko. Sinbolikoki eta praktikan. Bertan bizi eta Parisera lanera joateko. Langile mundua aurkitzen da han. Hamaika hizkuntza eta hamaika kultura. Eurodisney ere hortik hurbil dauka. Eta horrek Airbnb gartzeko aukera ematen dio. Klase apaleko langileak gero eta estutuago harrapatzen ditu etxebizitzaren sektoreko tentsioak. Zer ikustekoa duen horrek euskal kulturarekin? Konkurtsorik gabe lan egitea zaila da zerbitzu publikoan. Eta konkurtsuak Frantziako Estatuko hiriburu nagusietan dira. Hiru urtero baizik ez direnak antolatzen kultur munduan, eta lanpostuen kopuruen arabera. Zentro hurbilena Bordelekoa izan daiteke, kulturari dagokionez. Pauen ere bada zentro bat, baina gutxitan kultur sailerako. Eta gertatzen dena da Parisko periferian direla lanpostu gehien agertzen. Eta zer nahi duzu, han da kapitala. Frantziako Estatua bezain estatu zentralizatu baten-tzat, Paris da mundua. Baina zaude. «Aukeren berdintasuna»

da printzipioa, e! Lapurdiko txoko hau edo Noisy-le-Grand. Gauza bera da zerbitzu publikoarentzat. Alderantzizkoa baldin badiozu, komunitarismoa egiteko arriskua hartzen duzu, gero. Separatismoaren sustatzaile bezala ikusia izanen zara laster. Konkurtso bera guztientzat eta nota ona duenak nota ona du. Besterik gabe. Denak berdin. Teorian hain ederra. Baina, baina bat baita beti. Adibide bat hemen. Zuri biziki guti Noisy-le-Granden. Behin azterketen zentrorra iritsi eta, konkurtso egunean, zentro horren aitzinean kasik denak zuriak, kasik denak behar den lekuan sortuak. Nolabait pribilegiatuak. Behar den bidetik, ikasketetatik, pasatuak. Betikoa. Batzuek besteak baino 'berdinago'. Horra hor estructures bat, baliabideak eskuragarri ematen dituenak, edo ez, hark berak finkatzen dituelarik irizpideak, baita baldintzak, hark berak dituelarik ondotik notak ere ematen. Beti eta bakarrik, frantsesetik. Horra, beraz, liburutegi publikoen mundua baldintzatua.

### Egituraketa piramidala, A, B eta C-tarrak

Hauxe nire lanbidearen izenburua: ondare eta liburutegien kontserbadore laguntzaile. Lurreko funtzionario deitzen den adarreko langile, lurreko kolektibitateena (estatuko funtzionarioak baino apalagoa den maila nolabait laburbiltzeko, funtzionarioen hirugarren adarra erietxe publikoetako funtzionarioak direlarik). Laguntzaile, hau da, B kategoriakoa. A kategoriakoak dira piramidearen gainean, C behean.

Kulturaren adarreko konkurtsoa da pasa dudana. Kultura, kasu honetan, liburutegien, dokumentalista, artxiboetako eta edo museoetako langileek osatu sektore bezala ulertua da. Adibidez, animazioez arduratzen direnak administrazio sektoreko konkurtsoa dute pasatzekoa. Eta gero, han goian Frantziako Kultura ministerioa dago guztientzat. Hortik dira diru publikoak eta irizpide zentralizatuak. Hor ere, nolaz ez, frantsesetik.

Konkurtsodunak dira kultura egitura publikoen arduradunak, gehien-gehienetan. A kategoriakoak. Behin konkurtsokan eta Frantziako Estatu osoan izendatuak izan daitezkeenak. Han eta hemendik etorriak. Konkurtsokan pasaporte. Baina anitzetan, ez bada gehienetan, ideiarik ez tokiko kulturaz. Kasu hoberenean euskara ikasten hasten dira ondotik, gogo pertsonal batek bultzaturik edo. Baina, berez, beren ardurek ez diete horrelakorik eskatzen. Alderantziz. Horrela egitura-tzen da lurralde bat. Ez da berria. Eta ez da desagertzekotan. Biziki eraginkorra da, frantsesetik.

Liburutegi publikoetan geldituz, adibide bat. Lapurdiko hiri bateko liburutegi publiko bateko euskal saileko arduradun bat hautatu berri dute. Ez daki euskaraz. Euskal saileko arduradun da eta ez daki euskaraz. Eta ez da arazo bat. Konkurtsokan badu, eta hori du hobetsi udalak. Kontserbadore laguntzaile estatutua. Lurralde antolaketak, zerbitzu publikoaren antolaketak, lurraldeko arduradunek, politikak zilegitasun osoa ematen dio horretarako. Euskal liburuak katalogatu beharko ditu teoriarik laguntzaile berri horrek, eta irakurketa klubak ere animatzea zen ideia. Ez dakit nola daraman bere egunerokoa. Segur dena da hiri horretako euskaldunak gal-tzaile direla. Euskal kultura, euskara, petzero.

Gero, egia, arrakalak existitzen dira. Lanean has daiteke konkurtsorik gabe. Nire kasuan, horrela hasi nintzen. Konkurtsokan baino, euskara jakitea izan da hobetsia. Azpimarragarria iduriz, testuinguru horretan. Ez zen aurkeztu konkurtsokan zuen euskaldunik. Konkurtsorik gabe, baina behin-behineko kontratu mugatuekin, baina funtzionarioen funtzionamenduaren menpe, bereziki, horien betebeharren menpe.

Aitortu beharra dut ere, nire lanbidean askatasun handia dudala gauza andana baten egiteko. 10.000 euskal liburu, disko eta film biltzen dituen saileko arduradun gisa, irakurketa klubak, idazketa klubak, eztabaidak, mahai inguruak. Bildumak aberasteko ere dirua bada. Publiko bat egon badago. Nahiz eta ez egunero erraza izan, nahiz eta korrontearen aurka igeri egiteko irudipena izan, halere, gogoetatzeko

tentazioa ere eman dezake lanpostuak. Nola eragin euskal kulturari leku gehiago emateko sektore publikoan? Nola eragin euskaraz alfabetatzen laguntzeko liburutegi publiko gisa?

## Eskubide kulturalak eta irakurketa publikoen politika, kontzeptu gisa

Pista bat ote dira azken aldian aipatzen diren 'eskubide kulturalak'? Frantziako parlamentariak bozkatzekoa duten liburutegien legean sartzekoa dute kontzeptua.

Eskubide kulturalen jatorriak nazien garaira garamatza. Naziak boterean zirelarik, juduei Alemaniako bizitza kulturalan parte hartzea debekatu zieten dekretu bidez. Horrelakorik ez gehiago gertatzeko, gerla ondoren, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea integratzea negoziatua zuen René Cassinek, 1948an. Bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea funtsezko eskubide gisa ulertzeko bidea zabaldu zuten. «Kultura da nire humanitatea besteei adieraztea» (27. artikulua) ideiatik tiraka, nolazbait, Jean-Michel Lucas adituak laburbildurik.

Gurera ekarriz, Euskal Herriko liburutegi publiko baten kasuan, pentsa daiteke euskaldun bezala liburutegi publikoan parte hartzea funtsezko eskubide bezala hartu beharko litza-tekeela. Euskaratik. Horrek aukerak zabal ditzake.

Bistan dena, hortik urrun dago errealitatea. Adibide bat ematearren, langile bezala, liburutegira norbait sartzen delarik, «Bonjour!» erratera behartu naute. «Egun on!» espontaneoak, ezinezko. Debekua ez da ofiziala, ez. Bihurriagoa da. Argumentua, betikoa. Parekoak euskara ez badaki, gaizki harlezakeela. Irain bat bezala edo. Horretan gaude. «Egun on!» bat atake bat dela erran dit hierarkiak. Eta ni exekutante bat naiz.

Euskara eta euskal kultura bai, baina ez gehiegi. Eta horren parean, bermerik ez.

Kontzeptuekin segituz, liburutegiei dagokienez, badago irakurketa publikoaren gaia ere. Hau da, liburutegien funtzioak

politikoki egituratzen ditu irakurketa publikoak, eta Frantziako Estatuko liburutegi publiko guztiak egituratzen nolabait. Irakurzaletasuna nola sustatu, diru laguntzak nola bideratu, eta horrelakoak. Baina hor ere, frantsesetik frantsesera. Euskara edo beste hizkuntza guztiak ez dituzte sartuak egituraketa horretan. Eta arrakalarik ez dut aurkitu mementoko.

Bilkura batean gaia mahaigaineratzen saiatu nintzelarik, «militanteegia» nintzela leporatu zidaten. Eta banekien beren ahoan militanteegia izatea ez zela baikorra. Gogoetarako ere, arrakalarik ez.

Horrek oihartzun bat sortu zidan. Instituzioetan aspalditik ari den adiskide batek aipatua. Stockholm sindromea. Bahituek beren bahitzaileei begira senti dezaketen erakar-garritasun baten seinatzeko erabiltzen da hitz hori. Instituzioetan lanean ari direnei gertatzen zaien sindromea dela aipatu zidan. Euskararen alde lan egiteko instituzioetan sartu, euskararen alde lanean ari direla sinetsi, baina, aldi berean, funtsean, ez batere lan egin euskararen alde. Haizea harrotu edo. Betikoa. Barnetik gauzak aldatzen ahal direla pentsatu, baina, azkenean, gauza gutxi. Baina autokonbentzitzen dirahartzen dituzten erabakiak, agindu erabakiak, onak direla.

Ez dakit argi gelditzen den... Nik ez dut oraindik sentitu horrelakorik. Hierarkian beheregi naiz agian horretarako.

**«Ez baldin banauzue maite, erran diezazueket nik ere ez zaituztedala maite!»**

Dakidan gauza bakarra da konkurtsoa azkenean ez dudala ukan. Idatziak bai, baina ahozkoa ez dut gainditu. Noisy-le-Grandeko zentro horretan zazpi epaimahaikide nituen parean. Pare bat liburuzain, administrazioko ordezkariak eta hautetsiak. Horien arabera, lurralde funtzionarioen munduarentzat ez naiz egokia, itxura guztien arabera.

Nire lanbidea aurkeztu behar nuen eta funtzionarioen mundua zein ongi menderatzen nuen frogatu. Euskal saileko

arduraduna nintzela ez errateko abisatu ninduten prestaketetan. Izatekotan, eskualdeko hizkuntza bat aipatu behar nuen, besterik gabe. Eta hori bera ere gaizki hartua izan dela ohartu naiz. Berdintasunaren izenean edo. Berezitasunak ez dira indar. Izatekotan, ahulezia. Nire puntu baikor guztiak ahulezia bezala hartu dira.

Orduan, Maurice Pialat filmegilearen adierazpen bat etorri zait burura, eta konkurtsu horiek antolatzen dituztenei gauza bera errateko gogoz gelditu naiz. 1987an egin zuen. *Sous le soleil de Satan* filmari esker Cannesko Urrezko Palma irabazi zuela iragartzerakoan, txistuak eta oihuak entzun ziren publikoan. Sariaren bila etortzerakoan, hauxe erantzun zien txistuei: «Ez baldin banauzue maite, erran diezazueket nik ere ez zaituztedala maite!». 🍷

## Amagoia Gurrutxaga Uranga

Lanartea elkartearen koordinatzailea

### Mataza eskuan

Gure hizkuntza, gure artea eta artistak hil egiten ditugu poli-ki-poliki. Gauzatxoak antolatzen jostaketan ibiltzea gustatzen zaigu: antzerki egitera jostatu, bertso kantatzera jostatu, ikastola gorabeheretan jostatu, euskaldun izatera jostatu... Baina egiazko laguntza serio eta praktikoa bat emateko garaian, orduan txanponak besterik ez ditugu botatzen. Badirudi gure eguneroko bizia gauza bat dela eta euskal bizitza beste bat, zeharo ezberdina. Gure bizimodua itxuratzeko garaian, lana sendo egin behar dugu, diru asko irabazi, etorkizuna bideratu. Euskaldun izateko garaian, berriz, jostatu, eskupekoa eman.

*Zeruko Argia* aldizkariak jaso zituen Lourdes Iriondoren hitzok, 1965ean. Ez Dok Amairu taldea sortzeko zegoen artean. Urte hartan bertan egin zuten Durangoko I. Liburu eta Disko Azoka.

1971n Oskorri taldea sortu zuen Natxo de Felipek hau zioen *Berría* egunkarian, 2013an:

63 urterekin jarraitzen dut kantuan, inolako gizarte segurantzarik gabe. Ni intseguridade absolutuan bizi izan naiz, eta bizi izan naiz nire emaztearen soldatari esker. Baina jendeak pentsatzen du, akaso, jende famosoak garenez eta ateratzen garenez irratian eta telebistan, badugula zerbait.

Zer izan, nor izan, non izan. «Gure kantuak ez daude ez euskal irratietan, ez euskal telebistetan. Egongo ez balira bezalada. Inoiz baino produkzio handiagoa dago, baina inoiz baino diluitzeko joera handiagoa baita ere», zioen Harkaitz Cano idazleak, 2015eko Durangoko Azokaren baitan antolatutako Gogoetaren Plazan. Kultur estrategia bateratu baten beharra

eta ikusgarritasuna lortzeko erronka nabarmendu zuten plaza horretan elkartu ziren 22 sortzaile eta eragileek, besteak beste, azokak mende erdi bete zuen edizio hartan.

*Diluitu ez, urtu* kontzeptua erabili zuen Lorea Agirre Dorronsorok aldizkari honen 183-184. zenbakian, 'Euskal kulturegintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat' artikuluan, Sorguneak Ikertegiko kide bezala:

*Euskaldun* hitzak berreskuratu egin behar du berezko adiera: euskara duena, alegia. Izan ere, *vasco* delakoari *euskal* esaten zaionez, euskara desagertu egiten da *euskal* delakoaren oinarritzko kontzeptualizaziotik. Urtuta geratzen da *vasco*-aren kategoriapean.

Ez da fenomeno meteorologiko baten ondorio, baina. Goiz asko argitu dira 2011tik, ohikoa bihurtu zaigu erabat erdarazkoa den musika, zinema, antzerkia, kultura bera, *euskal* izenondoarekin ikustea/entzutea. Euskal kultura gero eta gutxiagotan da euskarazkoa; gero eta sarriago aipatzen den euskal kultur industriari buruzko gogoeta publikoetan ere bai. Hizkuntzaren aldagaia ez da kontuan hartzekoa beti. Hemen ez dago hiztun komunitate gutxitu bat, antza; kultur sistema guztiek pareko egiturak eta masa kritikoa dituzte; eta hizkuntza hautuak ez du eraginik kultur lanen ikusgarritasunean, hedapenean, gizarteratzean. «[Abertzaletasun historikoa] 30 urte boterean izan ondoren, ez da lortu euskal kulturaren zimentarri sendoak jartzea. *Cultura vasca* da substantiboa askotan eta *euskal kultura* adjektiboa». Agirreraren 2011ko hitzok ez dute gaurkotasunik galdu. Euskal kulturaren eta euskararen egoerari buruzko kezka ere ez. Ezta sortzaile eta artisten ezinegonak ere. Horren lekukotza eman zuen Amaia Zubiria kantariak prentsan, Gipuzkoako Diputazioaren 2021eko Adarra saria jaso bezperan, Eusko Jaurlaritzara Imanol Larzabalekin eta Iñaki Salvadorrekin aspaldi egindako bisitak gogora ekarriz: «Borroka egin dugu, joan gara joan behar zen tokietara, errezibitu ere egin gaituzte, agindu ere bai, baina sekula ez dugu ezer jaso. Guk nahi

genuen estatus bat, zeozer izan». Nahiak betetzeke segitzen du, Lourdes Iriondoren garaian ere ez gauden arren.

Eskupekoak, intseguridade absolutua, diluitzea, estatus eskea... Bada hari bat hor, aspaldi iruten hasia eta XXI. mendeko puntu honetaraino luzatu dena, ardatza ezkutatu eta korapiloak sortzeraino. Korapilook askatzeko tresnak eta bideak asmatzeko gai izan da euskararen kultur sistema –asko herri ekimenari esker; erakunde publikoen babesarekin zenbait–, baina mundu globalizatuaren eta gizarte diglosikoaren tes-tuinguruan, asmatzen segitu beste aukerarik ez dago.

«Sortzeko ahalmena daukagu, baina ezin ditugu eskubideak sortu», idatzi zuen urrian Miel A. Elustondok, *Berria*-n, Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak deitutako II. Batzar Nazionala iragarritz.

Gure lanak balio etikoa eta estetikoa dauka. Argitaratuz gero, balio ekonomikoa hartzen du. Katearen lehen maila gara sorkuntzan, baina katearen azken maila gara guk geuk sortzen dugunaz bizitzen.

Lanartearen lehen kideetako bat da Elustondo, Dani Fano irudigilearekin, Koldo Izagirre idazlearekin eta Arkaitz Miner eta Joseba Tapia musikariekin batera. Lan eta bizi baldintzak konpartitzetik eta diziplina ezberdinetako profesionalekin kontrastatzetik sortu zitzaizen elkartu eta antolatu beharra. Uste baino askoz behar komun gehiago zeudela ikusi zutelako, babes eta ziurtasun eza –prekaritatea esatea zilegi bekie– handia zela. Ekimen kolektiboa sustatu nahian, 2019ko maiatzaren 25ean egin zuten I. Batzar Nazionala, hainbat diziplinaren inguruko diagnosiak aurkeztu zituzten bertan. COVID-19aren etorrera baino lehenagoko kontuak dira horiek.

2020ko udaberrian sortu zuten Lanartea elkarte, ofizialki, honako helburuak jasoz bere estatutuetan: euskararen langile profesionalak kulturaren subjektu izanik, ekonomiaren subjektutzat ere hartzea; euskararen langileen estatusa lortzea; euskararen langileen eskubideak bermatzea; kotizazio sistema razional bat bultzatzea; eta euskaraz sortutako kulturaren legea lortzea.

Niri dagokidanez, 2021eko apirilean hasi nintzen bertako koordinatzaile lanetan. Geroztik, sektoreko elkarte ugariaren ordezkariekin eta hamaika sortzaile eta artistarekin elkartu gara. Baita sektoretik kanpoko eragileekin ere. Eusko Jaur-laritzaren Kultura Sailera, berriz, irail amaieran jo genuen, fiskalitate arloko proposamen batekin.

Bien bitartean, bagenekiena berretsi du azken hilabeteotako dinamikak: prekaritatearen birusa aspaldiko lagun dute sorkuntza eta interpretazioa diru-iturri bihurtu dutenetako gehienek –autonomoek, bereziki–. Horren lekukotza jaso genuen gure II. Batzar Nazionalera etorritakoei, Azpeitian, joan den urriaren 30ean. Gaiok mahairatu zituzten, besteak beste: sektoreko langile askok ez dituzte beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen eta burokrazia gero eta gehiago da estuasun iturri eurentzat; diziplina eta lurralde arteko artikulazioa ezinbestekoa da gizarte segurantzari eta zerga kontuei dagozkien aferak landu ahal izateko, gero eta langile gehiago aritzen delako lurralde zein diziplina batean baino gehiagotan; euskarazko kulturgileentzako epigrafe propioa eta artistaren estatusa lortzeak lehentasuna du, prekaritateari muga jartzen hasi ahal izateko; Artistentzako Bizitzeko Gutxieneko Errenta abiarazteko aukerak aztertu behar dira (Frantziako intermitentziaren eredia gogoan); kalitatezko tartea lortu behar da euskarazko sortzaileen lanentzat irratitelebistetan, kuotak eskatu, EITBtik hasita; erakunde publikoak dira artisten patroia nagusia, eta eurak ere baliatzen dira sortzaileen eta artisten babesgabetasunaz, ahalik eta gutxiena ordaintzeko; militantzia lan baldintza eskasetan aritzeko aitzakia bihurtzen da gehiegitan.

Ez dira sentsazio funsgabeak. Euskal Kulturaren Behatokia-ren *Karrera artistikoen profesionalizazioa* txostenak (Eusko Jaur-laritzak, 2020), esaterako, hala dio:

Artea lanbide bihurtzeak boluntarismoa eskatzen du, eta bokazioagatik onartzen dira lanbidearen prekaritate-baldintzak. Bokazioaren pisuak prekaritatea konpentsatzeko mekanismo gisa funtzionatzen du; izan ere, praktika profesionalaren gaitz endemiko gisa hartzen da prekaritatea.

Prekaritatea erromantizatzen da, azken batean.

Norberaren lanak erakusteko, argialetxe edo diskoetxe handiren batean obrak argitaratzeko edo salmentetatik eta eskubideetatik soilik bizitzeko aukerei dagokienez, ideal ia lorrezinak dira guztiak; eta helburuok lortuta ere, horrek ez du bermatzen presentzia jarraiturik, ez eta inolako planteamendurik ere epe luzera. Are gutxiago euskarazko sorkuntzan, haren merkatua txikiagoa dela kontuan hartuta.

Ohar bat hemen: Siadecok Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohituren merkatu ikerketa bat egin zuen 2017an, Elkar Fundazioaren enkarguz. Ikerketa horren arabera, 16 urtetik gorako 2,6 milioi euskal herritarren artean (euskaradunak dira horietarik 750.000), 190.000 dira euskarazko liburuak irakurtzen eta euskarazko diskoak entzuten dituztenak (euskaradunen %25), eta 40.000k (%5) osatzen dute euskarazko kultur lanen hartzaileen nukleo gogorra.

Merkatuaren legeak nagusi bakar direlarik, hartzaile kopuru horiekin eta euskarazkoa azpikulturatzat jotzen duen komunikazio sistema baten barruan, zein etorkizun espero dezake euskal sortzaileak epe ertain eta luzera? Eta euskarak berak? Kultura bihurtuko ote da inoiz lehentasunezkoa politika eta iritzi publikoetan, kultur sistema osasuntsu eta bizigarri bat finkatzeko? Beharra, gogoia eta tresna batzuk baditugu dagoeneko. Arazo nagusiak identifikatu, lehentasunak ezarri eta konponbiderako ildoak proposatu eta bururatzea da kontua. Horretarako, sortzaileen eta interpretarien bizipenak eta ekarpenak jaso eta erdigunean jarri behar dira. Euren lan eta bizi baldintzetan eragin zuzena izango duen edozein lege edo artistaren estatutu diseinatzeko, zeresanik ez.

Nafarroako Legebiltzarrean abian da ponentzia bat, Nafar Artistaren Estatutuaren oinarriak ezartzeko asmoa duena, besteak beste. Hainbat eragileren ekarpenak jasotzen ari dira bertan. Lanarteak euskal sortzaile eta interpretarien ahotsa entzunaraziko du ponentzia horretan. Eusko Jaurlaritzak ere iragarria du Artistaren Estatutu proposamen bat. Ez dugu horren mamia ezagutzen, oraindik ez delako publiko egin eta

proposamena ontzeko prozesuan parte hartzeko aukerarik ez dugulako izan.

Beren babesgabetasuna zuzendu nahi dute sektoreko langileek, ondoen egiten dakitena egiten segitu ahal izateko. Euren ere pentsio duinak behar dituztelako, langabezia saria, pizgarri fiskalak, diru-laguntza espezifikoak, sormen indarra eta kultur sareak sustatuko dituzten politikak, azpiegiturak, komunikabide publikoen eta pribatuen plaza... Badira lanak egiteko. Egingo ditugu. Elkarlanean, ahal den guztietan. Horretarako ahala eta kemena daukaten guztiei luzatzen die eskua Lanarteak. Eta ekin ahala, sortuko dira lan berriak. Hala balitz, korapilo batzuk askatzen hasiak garela esan nahiko luke, ardatza ikusteko bidean gintezkeela, euskal kultur sistema osasuntsu eta bizigarri bat eraikitzeko. 🍷



## Irati Agirreazkuenaga Onaindia

Paradisuak arauak baditu, ez da paradisia [...]  
*Paradise Now* lanak kontzientzia jasoagoa eskatzen du.  
Kontzientzia apalaren lurraldean ez baitago paradisuarik.  
The Living Theatre: *Paradise Now* (1969)

### Katea ez da eten: hustasunaren garaian, ohol-tza beteak

Lerro hauetan arte eszenikoei eta, bereziki, antzerkiari egingo diogu tokia, azken urteko euskarazko antzezlanen hautaketan oinarritutako lan etnografiko bat izan nahi baitu testu honek.

COVID-19aren astinduak geldiarazi gaitu. Edo gintuen. Une batez, dena izan da isiltasuna, dena izan da ziurgabetasuna eta zalantza. Izurriteak berrasmatzera behartu gaitu. Paradigma aldaketa asko ekarri dituen garaian, sormen eta irudimen ariketek berebiziko presentzia izan dute. Baita arte eszenikoetan ere. Aldez aurretik eraikitako diskurtsoak apurtzen, osotzen eta berriro ehuntzen saiatu gara, nolabait, gorputza eta pantaila, etika eta estetika uztartzen, eta etengabe ihes egiten digun orainari heltzen.

Garai horretan kokatu dituzte azkeneko urte eta erdian sortzaileek euren ideia eta pentsamenduak, euren bizitza-tarteak, euren irudimen eta energia: mundu bat ulertu eta beste bat sortzeko nahian. Sorkuntzaren zerbitzura, sorkuntza eraldatzailearen zerbitzura. Pertsonala politikoa bada, dena da politikoa, baita politikoa dena ukatzea ere. Isiltasuna bera ere politikoa da, eta, dena isiltasun dramatikoaren zen garaian, antzokiak hitzez eta gorputzez beteak egon dira, agertokietan istorioek aurrera egin dute. Fikzioak errealitatean txertatu

ditu bere hitzak, antzerkiaren bitartez. Bizitzea tokatu zaigun garai nahasien aurrean zutitzea, kontatzeko eta pentsatzeko, horixe egin baitu antzerkiak. Isiltasunari arte eszenikoen hizkuntzen tresnarekin aurre egiteko, basakeria piztuz baino, itxaropenera joz. Barruko balizko geldiene hori kanpora jaurti, oihartzunari adi. Betetzeke, eta sortzeke, ditugun hutsuneetan lanean ibili dira azken urtean Euskal Herrian arte eszenikoen panoramari hitza eta gorputza jarri dioten talde eta sormen laborategiak.

## Pandemia eta komeriak

Hutsaltasuna genero komikoarekin nahasi ohi dugu maiz, baina ez gaitezen okertu, umorea baino aitzur fin eta eraginkorragorik nekez topatuko baitugu. Molière (Jean-Baptiste Poquelin) XVII. mendeko komedia frantsesaren egile ezagunak zioen antzerkian tragedia bat ikusten dugunean, istorioaren barruan sartu eta hunkitu egiten garela, behar bada negar ere egiten dugula eta, ondoren, etxera joaten garela lasai asko. Kasu horietan, antzezlanaren diskurtso politikoa guregana iritsi bai, baina berehala alde egin duela esango luke Molièrek, berehala egin duela laban. Frantziako egilearen aburuz, barrea eragiteko adimena behar da, arrazoimenaren zorrotzasuna erabili eta ideia burutsuak izan. Barre egitean eta ahoa zabaltzean garuna ere zabaldu egiten omen zaigu, eta orduan finkatzen zaizkigu arrazoimenaren iltzeak. Umore zorrotza, ondo egina, arriskutsua gerta daitekeelako.

2020an Eneritz Artetxe sortzailearen *Lakoste* obrak eskuratu zuen Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren garaikurra. Zailtasunak zailtasun, 2021eko urrian estreinatu zuen Artetxek *Lacoste*, umoretik abiatuta bizi ditugun hainbat errealitateri (generoari, belaunaldi-talkei) egindako salaketa. Taula gainean, Artetxe, eta bertan, berarekin, fikzioari ekin aurretik, antzerkigintzarako eskaintzen den diru publiko apurrari salaketa. Dxusturi Teatroaren bakarrizketa hainbat galderaren

gainean eraikitzen den proposamen eszenikoa da: ama bakarra izan eta sormena uztartzea, menopausia etengabe ezkutatzearen beharra eta gizarte distopiko batean elkar zaindu eta maitatzeko behar asegabea.

Umoretik ere bai, eta, Artetxeren lanean bezala, tentsioa eta isiluneak makulu hartuta, 2021eko apirilean estreinatua zuten Axut! konpainiak *Amua* antzezlan. Pertsonala politikoa dela esan dugu lehenago, eta, jakina, maitasuna ere bai (ikus JAKINEN 2019ko *Maitasuna politikoa da zenbakia*). Noraino hel gaitzke maitasunaren izenean, eskusibotasunaren, erromantizismoaren, tradizioaren izenean. Manex eta Ximun Fuchs anaiek Maite Larburu dute lagun, izan zirenez eta amestu zuten aritzeko; bizi dugun garairako minez eta pozez osatutako istorio bat. Baina, zein da «bizi dugun garaia»? Beste baten segida? Beste baten apurketa?

Ez dakit belaunaldi kontzeptua serio hartu behar dugun ala ez, beharbada estereotipoak sortzeko bidea baino ez da, baina ukazina da soziologian, marketinean edota kalean bere balioa duela, gizartea horrela antolatuta dagoelako edo horrela antolatuz jotzen dugulako. Belaunaldi kontzeptua darabilte Formol Laborategiaren *Album* ekoizpenean. Edurne Azkarate, Intza Alkain eta Mikel Ibargurenak, 30 urtetik beherako hiru gazteek, sortutako antzezlanak euren inguruan hitz egiten du, alegia, *gazte* izatearren oinordetzan hartu dituzten adjektiboei buruz. Argazki-album batean bezala atalka aurrera doan antzezlanean, euren belaunaldiari erantsitako sintomatologia guztia gainean hartu eta etiketa horien jabe bihurtzen diren pertsonaietatik hitz egiten digute.

Gizartea belaunalditan barik generoaren arabera ere ordenatu liteke, gizonak hemen, emakumeak han. «Nor naiz ni, zuk fikzionatzen ez nauzunean? Nor zara zu, ni fikzionatzeko baimenik ez duzunean?», horrelako galderak dakartza *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* Kamikaz Kolektiboak eta Ttak Teatroak elkarlanean sortutako ekoizpenak, lehenengo urriaren 31n Azpeitian taularatua; ez kasualitatez, Azpeitiko Kulturaz kooperatiba izan baitute ekoizle. Umorea

eta denuntzia esplizitua, Iraia Elias, Erika Olaizola eta Aman-cay Gaztañaga aktoreen eskutik.

Fikzioak gure eguneroko erabakietan eta harremanetan duen eraginaren inguruan hausnartzen dute ordubete luzez oholtza gainean ikusten ditugun hiru emakumeek. Beste iruditeria bat sortu nahian dabilta, eta gogora ekarriko dizkigute aurretik emakumeoi irentsarazi dizkiguten irudi guztiak. Emakumea, sexua, harremanak umoretik landu eta paisaia afektibo berriak sortzeko ahaleginean ere ari da *Porno vs Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)*, Benetan Be Teatroak ekoitzitako ikuskizuna. Urte hasieran estreinatu zuten Bilbon Patricia Urrutiaren argazki musikal hori, eta gazte-nerabeak aise erakartzeko gaitasuna du. Baina ez gaztetxoek bakarrik, helduak ere erraz sareratuko ditu; alegia, ergelkeria sexual eta afektiboez barre egiteko adinean dagoen oro. Eta hori guztia zuzeneko musikaz blai.

Umorea, hitza eta jolasa oinarri eta helduleku dituzten antzezlaren artean, ezin aipatu gabe utzi ibilbide luze eta oparodun EzDok3 bikote artistikoak ekoiztutako *Ez dok ero*. Antzezlana 2020ko azaroan estreinatu zuten, 22:00etan etxean giltzapetuta egotea araua zen garaian. Mikel Martinez eta Patxo Telleria taula gainean, azken hori baita gidolari lanetan ere; euskal antzerkiaren *road movie* horren gidari, berriz, Jokin Oregi. Irakurtzearen irakurtzeaz burua galtzen duten bi aktoreri buruzko komedia horrek asko du autorreferentzialtasunetik. Martinez eta Telleriaren autofikzioa dago presente une oro, baina, euren buruaz gain, gure gizarteaz, euskal kulturaz eta euskal antzerkiaz ere egiten dute barre. Algara artean jaso izan badugu ere, bikotearen orain arteko lanik sakonena ere badela baieztatu izan du Telleriak.

Umorearen bidez maiz kolokan jartzen dira gizarteak eredugarritzat jo nahi dituen portaerak, eta, jakina, hori beti da deserosoa. Formatu txikiko antzerkia umorea lantzeko plaza nagusietako bat izan da, eta umorea eta gogoeta uz-tartzen dituzten emanaldiak ere izan ditugu aurten formatu horretan. *Txilin hotsak*, Ane Gebara eta Josune Velez de

Mendizabalen mikroantzerkia. Yoli arrainaren bidaia kontatzen digu umore absurdoa jorratzen duen hogei minutuko antzezlan honek, Metrokoadroka taldearen laguntza izan duen Tranpola konpainia gasteiztarraren eskutik. Bestetik, *Ahoy* Kokreta Teatro konpainiaren pieza laburrean, umoreaz gain, aktoreen fisikotasuna dugu protagonista. Komedia, musika eta antzerki fisikoa uztartzen dituzte Irene Hernandok eta Jon Ander Alonsok, metro koadro batean eraikitzen den antzezlan erritmiko eta dinamikoan. Obraren beraren kodea komikoa bada ere, edukiak kritika soziala du oinarrian, eta, artearen hizkuntza denak baliatuz, ikuslea denbora tarte murriztean fikziozko mundu erraldoi batean murgiltzea lortzen dute. Bilboko Lautan Hiru jaialdiaren baitan izan genuen aipatu azken bi pieza horiek ikusteko aukera, neurriak neurri, 2021eko otsailean.

### Prozesua formaren gainetik: jazoera, biraketa performatiboaren katalizatzaile

Arte bisualetan gertatzen ari zen etengabeko performatibitateak ekarritako erronkek zedarritu zuten xx. mendearen bigarren erdialdean jazotako garapen artistikoa. Erika Fischer-Lichte irakasleak adierazi bezala, abangoardia artistikoak, izan dadaistak, surrealistak edo baita futuristak ere, artearen diziplinaren mugak desgiteko formulen bila aritu ziren, performancearen alorreko artisten bultzadak prozesu hori gailurreraino eraman zuen arte. Bultzada kultural horrek artelanak ekitaldi bihurtu zituen, eta eraldaketa ekarri zuen Mendebaldeko kulturara; eraldaketa horri biraketa performatibo izena eman zaio. Prozesua bera forma gainditzen hasten den ueña.

70eko hamarkadan, antzerki esperimentalaren eta *happening* mugimenduaren aitzindari izandako antzerki konpainia agertu zen: The Living Theatre izena zuen, eta munduko arte eszenikoetan iraultzailea izan zen, batez ere fikzioaren

eta errealtatearen lausotzean. Lausotze horretan lanean ari dira 2002tik Rimini Protokoll konpainian Helgard Haug, Stefan Kaegi eta Daniel Wetzel, Alemaniako Gießen Unibertsitatean elkar ezagutu ondoren. Errealitatea eta fikzioa uztartuz, Rimini Protokollek bere sorkuntzetako materiala bizitza errealetik hartzen du. Proiektu bakoitza leku jakin batean hasten da, lekuaren ikerketa sakona bideratu eta egoera zehatz batetik abiatuta. *Aktore* izenaren orde, *espezialista* terminoa erabiltzen dute, gai jakin batean duten ezagutzatik abiatuta, agertoki batean azaldu eta gai horri buruz hitz egiteko legitimitatea duten pertsonak izendatzeko. Espezialista horiek ez dute interpretazio-teknika jakin bat erabiltzen; aitzitik, beren istorioak kontatzen dizkiete ikusleei, eta, Bertolt Brechten antzerkian bezala, bat-batekotasuna simulatu eta beraiek ez diren pertsonaiekiko enpatia sortu nahi duen antzerki motari uko egiten diote. Rimini Protokollentzat hori da zintzotasun-itxura lortzeko modua.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko desplazamendu, interdependentzia eta gainjartzeengatik, horien piezetan ez dakigu ziur non hasten den antzerkia eta non amaitzen den errealtatea; ezin da jakin, eta ez dugu pentsatu behar jakingo dugunik ere. Rimini Protokollen ikuskizunetan, ikus-entzuleak ez daude agertokiaren aurrean; aitzitik, bi esfera horiek, publikoarena eta agertokiarena, etengabe berritzen doazen konfigurazio esperimentalen bidez nahasten dituzte, Juan Pedro Enrile Arratek nabarmentzen duenez. Horien ikuskizun asko ohiko antzerki-espazioetatik kanpo garatzen dira: kale bat, eraikin abandonatu bat, erakusleiho bat, kamioi bat, antzerkiaren eta eguneroko bizitzaren arteko muga desagiteko asmoz. Euskal Herrian ere baditugu euren pausoak jarraitu dituztenak.

«Ikusleek parte hartzen dutenean hasiko da obra eta konaturatuko gara zer esperientzia mota sortu dugun»; Ainara Gurrutxaga Dejabu Panpin Laborategiko kide eta sortzaileak hitzok erabili zituen euren azken ikuskizunaren nondik norakoak azaltzerakoan. *Naon tokin* piezan, ikuslea ordubetez

dabil Errenteriako liburutegi zaharrean barrena, aurikularretik entzuten duen ahotsa lagun duela. Ikuslea erdigunean jartzen duen artefaktua dugu. Liburutegia bera aktore bat gehiago da, eta ikuslea ez dago antzoki baten iluntasunean ezkutatuta. Eraikinerako berariaz sortutako piezan bat egiten dute Rimini Protokollen filosofiarekin, eta teknologiaren erabilera ludikoa proposatzen dute. Aktoreak lanean presente egon arren, ez dira antzezle. Paisaiaren, eszenografiaren, argiaren eta ikuslearen arteko harreman emozionala sortzeko aukerarekin jolas egitea da asmoa.

Artelanei ekitaldi forma eman eta gizarte-egiturak arte eszenikoen lengoaiaren bitartez aldatzea da Piszifaktoria Ideien Laborategiaren sormen-lanen helburu nagusia. Mikel Ayllon eta Igor Arzuagak 2015ean Laudion sorturiko esperimentazio taldeak artearen adierazpide desberdinen arteko mugak ikertzea du asmo, antzerkia beste dimentsio batera eramateko xedez. Urte amaieran, dimentsio hori harago eramango zuen lana aurkeztu zuten Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian: *Noiz utziko dio euria egiteari*, antzerkiaren baliabideak zabaldu eta errealitateari buruzko ikuspegi berriak sortzeko pentsatua dagoen ikuskizun performatiboa. 2071n girotuta, herri edo auzo bakoitzaren hirigintza ezaugarrietara moldatzen da kaleko pieza ibiltari hori, eta, entzungailuen eta paseoaren bitartez, murgiltze-esperientzia berritzailea eskaintzen dio publikoari, aldi berean ikusle eta protagonista den horri.

Arte postmodernoa eta antzerki postdramatikoak antzezen-espazioen desegitea ekarri dutela jasotzen du Miguel Ángel Melgadok bere doktore-tesian. Emantzipazio estetikorako espazio berriak sortu eta, bertan, diziplinarteko lurralde hibridoak esplorazioa hasi da. Bizi dugun aro postmodernoa, arte eszenikoen laborategiek antzerki postdramatikoan sarkontzen jarraitu dute eta, testuaren zentraltasunarekin apurtzeaz gain, espazioaren eta hizkuntza-gorputz fikzionatuaren eta publikoarekiko harremanaren kategoriak apurtu dituzte. Antzerkiak, beraz, bizi-bizirik dirau aldizkako izozteek

markatutako garaiotan ere. Baina, ez dezagun ahaztu: bizirik dirau noizbait, nonbait, haren berezko ezaugarriak lantzen eta indartzen hasi zirelako, besteak beste, Kantor, Artaud edo Grotowskiren bitartez.

Autore horiek bizi-bizirik daude oraindik gure artean, esaterako, Atx Teatroaren azkeneko ekoizpenean: *Lubaki lainotsua*. Agertokian, lur zakuekin egindako parapetoak, munizio kaxak eta kanpin denda apurtu bat. Erdian, gerlari bakarti bat, bonba hotsen erritmo aztoratuarekin batera ariketa fisikoa egiten. Postari gazte xaloa sartu da eszenan eta pum! bat-batean egin diote tiro. Abian da antzerkiaren gurpila.

Nolanahi ere den, komedia nahiz drama, antzerkiak bere bideari segitzen dio. Eszenaren lengoaia artistikoetatik abiatuta, antzerkiak gure mugak urtu eta bide berriak sortzeari ekiten dio, etengabe. Barre zein negar, badu zer emana; oraindik, batzuei behintzat, beharrezkoa zaigun seinale. Peter Brookek esana da: «Ba al dakizu zergatik itzuli den jendea antzerkia ikustera? Antzerkiak ez duelako ezer ere modu zehatzean lantzen. Bizitzaz hitz egiten du. Bizitza da». 🍷





**E**z naiz atzera begira ibiltzearen oso zale, nahiago momentuan gertatzen denari adi erreparatzea. Hori maila filosofiko ideal batean, jakina, askotan buruak ezin izaten baitie eutsi iragan eta etor litezkeenen oldarrei. Musika entzule gisa behintzat, saiatzen naiz bereziki orain egiten denari, gertatzen ari denari, taupaka diren talde eta bakarlariei arreta ipintzen. Dena den, hain da zabala gaur egungo musika eskaintza (ere), gustura begiratzen ditudala garai hauetan plazaratzen diren zerrenda horiek, urteko diskorik onenak edo esanguratsuenak azpimarratzen saiatzen direnak. Badakit zerrendagileen gustu, estilo eta beste eragin ez hain legitimoek guztiz baldintzatuak direla, baina aitortuko dizuet baliagarri izan zaizkidala eta horiei esker oharkabean pasatako edo arreta berezirik eskaini gabeko disko batzuk salbatu ditudala itsasotik eta igo ditudala neure txalupara.

Urteko 50, 20 edo 10 disko ederrenak biltzen dituzten horrelako asko topatuko dituzue hor barrena, Internet zabalean: musika adituek, kazetariak, musikariek eta zaleek eginda-koak, kiroletik kulturatik baino hurbilago dauden garaipen eta errendimendu parametroetan kokatuak.

Ni ere noizbait jarri izan naiz, asmorik onenarekin, lan horretan, baina berehala eman dut amore. Pentsatu nahi dut aipatu dudan nostalgiarekiko erreparoagatik izan dela, edo hainbeste disko argitaratzen direlarik zabalegia dela aukera; baina nagikeria ere izango zen tartean, segur aski. Lerro hauetan, beraz, ez duzue 2021ak eman duenaren errepasso burutsu eta gustu handikorik aurkituko, ezpada aurten argitaratu diren disko batzuen aipamen nahiko aleatorio, azaleko, subjektibo eta arrazoitu gabea.

Eta zorroztasun eza hasieratik baliatuz, aurtengoa ez den disko bat aipatuko dut lehen.

### Rüdiger - *Before It's Vanished*

Gogoan dut iazko urte bukaeran argitaratu zen lan hau izan zela nire gabon zahar eguneko soinu banda. Gertatzen zaizue batzuetan diskoek momentu bat bereganatzen dutela? Edo momentu bati, garai bati, soinu banda bat atxikitzen zaiola era naturalean? Ba hori. Gainera disko honi eskerrak jakin genuen ordura arte Felix Buff bateria jotzaile bikaina zena (Willis Drummond eta beste) kantugile aparta ere bazela, ederki kantatzen zuela, arriskudun pop kantu ederrak osatzen zekiela eta bigarren izen bat zuela, hori ere bai. Felix Rüdiger, Buff beraz, hemendik aurrera.

Aipatu berri dugun diskoan Joseba Irazoki beratarraren gitarra elektrikoa entzun daiteke, eta Felixen bateria, berriz, Irazokiren disko berrian:

### Joseba Irazoki eta Lagunak - ///

Egitura zirkularrak zukutzen maisu, norabide horretan beste pauso bat (edo bi) eman du lan honekin. Ia mantra bilakatzen diren erritmo eta doinu hautsiak, gitarra jotzaile beratarrak agertoki gainean erakusten duen trantzera gu ere eraman nahi bagintu bezala. Kantu deserosoak dira, egituraz, harmoniaz, erritmoz eta hitzez. Hitez ere bai. Teknologia doilorrak gidatzen duen sistema ustelaren aurpegiak agertuko zaizkigu, eta nahiago genuke distopia balitz, baina... Entzunaldia amaitutakoan larritasun sentsazioarekin geratuko zarete, agian; niri hala gertatzen zait, *Black Mirror* telesaileko kapituluren bat ikusi ondoren bezala.

Ohiko musika parametroetatik izututa ihesi irudikatzen dugu beratarra, baina zer da ohiko musika? Zer ohiko bizi bat?

### Madeleine - *Ezin dena*

Gaztea ez hain gazte denean sortzen diren zalantzez eta galderaz josia dago lauko donostiarraren lan berria, tartean *Ohiko bizi bat* abestian aldarri hori, esaldi batean honela bil litekeena: nik ezin dizut ohiko bizi bat eskaini, ez baitakit hori zer den ere. Eta eskerrak, nahiago baitut talde donostiarraren ezohiko, pop doinuak kiribilduz eta gitarra soinu urtsu-erreberberatuak airean zehar gure belarrietaraino askatuz, izaki elektriko hegodunak bailiran. Euren hastapenetako post-rocka ia guztiz alboratua dute, baina ematen du euren DNAn mantentzen dutela leku berera beti bide desberdinetatik iristeko bulkada. Ala, bestela, zalantza bidelagun gisa besarkatzen dutela, bidegurutze bakoitzean.

Niri ere gertatzen zait oso seguru denari susmo txarra hartzen diodala, egia biribil-erraldoiak ez ditudala sinesten. Edo, gutxienez, zalantza bat pizten didatela. Hau, adibidez: barre ala negar?

### Don Inorrez - *Esku hutsik*

Bestelako zalantza batzuk dakarzkigu Imanol Ubedak Don Inorrez izenpean argitaratu duen bigarren disko luzean. Bere aurretik aipatu dugun Madeleine taldearekin alderatuz, bizitzako beste garai batean kokatuta, eta beste era bateko kezkekin: «Kantuok egin ditut, baina ez dakit norentzat», kantatzen du diskoko lehenengo abestian, Phil Spectorren soinu horma gogora ekartzen duen leloan. 2018an argitara eman zuen *Mugiro bila* lanean bezala, Paco Loco ekoizlearen estudioara jo du oraingoan ere, eta beste behin asmatu du nire iritziz, pop kantuok kolore anitzez eta testura ugari azarastuta agertzen baitzaizkigu.

Baina, etxetzat dudan pop-rock horretatik kanpo ere egin izan dut habia 2021eko tarte batzuetan:

## Habia – *Animalia naiz eta*

Dantza eta antzerki ikuskizun baten soinu banda gisa sortu zen hiru ataleko izaki hau. Eurek dioten moduan: hiru hari eta hiru ahots, horixe da Bastidako talde honen lehenengo diskoan aurkituko duguna. Biolina, biola eta biolontxelo dira hariak, eta ahotsak, berriz, Maia Iribarne, Elena Haira eta Amaia Hiriart. Oinarrian ia beti kantu herrikoiak dituzte (*Goizean goiz jeikirik, Emazteen fabore*), edo olerkien musika moldaketak (Sarrionandia, Gandiaga...), baina sormenez egiten diete aurre dagoeneko badiren doinu eta hitzei, harmonia hipnotiko ederrez aberastuz eta musika tresnetan soinu berriak bilatuz. Ez duzue estudioko trikimailurik edo efekturik topatuko hemen. Denak ematen du organikoa, gertukoa eta beroa. Diskoan animalia batega habia egin izan balu bezala.

Eta imajinatzen jarrita, euren ahotsak ere ederki txertaturik lirerateke Anarik aurten plazaratu duen koruz ornituriko kantuan:

## Anari - *Orain entzungo duzun hau...*

Nacho Vegas asturiarraren *Vinu, cantares y amor* abestia moldatu, bere erara euskaratu eta bideoklip eder batez plazaratu zuen lehenengo. Elkartasun iraultza batera deitzen duen ereserkia, eraitsi baino egun batzuk lehenago Zarauzko Putzuzulo gaztetxean grabatutako irudiekin lagundua. Geroxeago iritsi zen Joseba B. Lenoirrekin gordin eta soil grabatutako *Efemerideak* abestia. Zuzenekoetan entzuna genion, baina estudioan grabatu gabea zen hitzari segika plano sekuentzia batean barneratzen zaituen kantu hau. Hain zuzen ere, plano mota hori erabiliz osatu ditu singlea osatzen duten bi kantuon bideoak ere. Kointzidentzia?

Bide batez, kointzidentzia gehiago: Madeleine eta Don Inoren zengabaren nabarmendu dugun zalantza hemen ere agertuko

baitzaigu, Vegasen moldaketan: «Kantatu, maitatu eta zalan-tza/ ezin bada ez da gure iraultza».

Orain arte, trebe edo baldar, saihestu dut hemen pandemiaz hitz egitea, baina badator ezinbestean:

### Willis Drummond - *Garai bereziendako kontzertu berezia*

Miarritzeko Atabal aretoan grabaturiko kontzertua plazaratu berri du taldeak, iragantzat nahi genukeen garai baten lekuko, zuzeneko musika goitik behera baldintzatu eta eraldatu zuen bolada itsusiaren oroigarri eder. Euren kantuen elektrikotasunari eutsi behar izan zioteneko, xake taula batean kokaturiko pieza eseri musukodunak entzulegotzat zituztelarik. Hain zuzen ere, irudi hori iradoki dezake taldearen orain arteko azken estudioko diskoaren izenburuak: *Zugzwang*. Alemanierazko xake jerga horrekin adierazten da jokalaria baten piezek, egiten duten mugimendua egiten dutela, beti bere kalterako dela. Geldi geratuta gaizki, eta mugituz gero okerrago. Eta horrelaxe, *stand by* moduko batean, hutsarte baten soinu banda gisa jaso dezakegu disko berezi hau ere.

Jakina, niri ere tokatu zait musikari eta entzule gisa *streaming* bidezko kontzertuak eskaini eta ikustea, jende eseri ahobakoaren aurrean jotzea, eta ni neu jende horren arteko bat izanik musikaz gozatzen saiatzea. Baina iruditzen zait ez nintzatekeela sekula ohituko. Hor era horretan sentitzen dena ez baitzaio musikaren harra sartu zidan sentsazioari hurbildu ere egiten. Musika jotzeak, entzuteak, sentitzeak eta partekatzeak asko baitu askatasunetik, eta azken garai hauek oso gutxi.

David Byrneren *How Music Works* liburu gomendagarritik atera daitekeen ideia bat datorkit honi buruz hizketan jartzen naizen bakoitzean. Bertan azaltzen du, gutxi gorabehera, musika egiten jartzen garenean buruan izaten dugula

doinu horiek non joko diren, zer lekutan entzungo diren, zein testuingurutan, eta horren arabera sortu izan direla musika-tresnak, estiloak, formazioak. Ni, adibidez, Izaki Gardenak-en kantu bat sortzen ari naizenean, oharkabean Gasteizko Jimmy Jazzen edo Bilboko Kafe Antzokiaren gisako areto batean irudikatzen dut taldea. Gero, agian, joko dugu txosnagune baten karpan ala aire librean ez dakit zer jaialditan; baina, beste testuinguru horiek buruan baneuzka, segur aski sortutako musikan eragina izango luke. Hala iruditzen zait.

Esan nahi dudana da oso gogorra izan behar duela audientzia eseri musukodun batentzat edo pantailaren bestaldean denarentzat joko dituzun kantuak konposatzeak, hori buruan izanda abestiak egiten jartzeak. Ea datozen urteetako disko onenen ditxosozko zerrendetan ez den horren zantzurik nabaritzen, ea zuzeneko musika askatasun ideiarekin lotzen jarraitzen dugun! 🎵

### Pandemiaren lezioak

Bi urte bete dira COVID-19a gure artean dela, eta ordutik bizi dugun egoera deskribatzeko gehien erabili den hitzetako bat da krisia. Grezierazko *krisis*-etik dator euskarazko krisi hitza; lehenengoak zerbait hautsi egin dela eta horrek eskatzen duen analisi, gogoeta eta erabaki prozesuari egiten dio erreferentzia. Ez du berez esanahi ezkorrik. Aldiz, Mendebaldeko hainbat hizkuntzek, tartean euskarak, bere egin duten krisi hitzak bestelako adiera du. Hiztegiaren arabera, gizabanako, talde edo gizarte oso bat egoera ezegonkor eta arriskutsu batera eramango edo eraman ahal duen gertaera edo epeari deritzo krisia. Kasu horretan, krisiak okerrerako aldaketak dira, batez ere bat-batean gertatzen direnean, inolako abisurik eman gabe. Krisi hitzaren gaur egungo adiera zeinen posiziotik artikulatu den galdetu diot neure buruari. Abiapuntua egonkortasunezko egoera bat bada, ulergarria da ezusteko aldaketek kezka eta ezinegona piztea; baina zer gertatzen da ohikotasuna egonkortasunezkoa baino gehiago prekaritatezkoa denean? Zer esan nahi du kasu horretan krisi hitzak?

Pandemiak gogor jo du liburuaren industria, kulturako beste hainbat arlo bezala. Hizkuntza hegemonikoetako literaturek nolabaiteko etekina atera diete edizio digitalei, baina euskara bezalako hizkuntza gutxietako literaturentzat gauzak konplikatuagoak dira beti. 2010eko abenduan liburu digitalen eztanda iragarri zuen *Argia* astekariak bi gertakariaren harira: batetik, egile eskubideengatik ehuneko handiagoa jasotzearen idazle ezagunak ohiko argitaletxeetatik urrundu eta beren liburuen edizio digitalak Amazonen bidez saltzen

hasi izana, eta, bestetik, kopia digital piraten ugaritzeari aurre egiteko liburuaren industriak abiarazitako formatu egokitzapenak. Euskal literaturaren kasuan ezin esan daiteke eztanda hori erabat gertatu denik. Arazoa ez baita liburuen eskuragarritasuna, euskaraz irakurtzeko ohitura falta baizik. Baina ezin esan daiteke teknologia berriek euskal literaturari onurarik ekarri ez diotenik.

Iaz ziurgabetasuna zen nagusi Durangoko Azokak atea zabaldu aurreko egunetan, pandemiaren eraginez lehen aldiz Internet bidez bakarrik jardutekoa baitzen. Aurreko urteetako azoken salmenta kopuruak lortu ez baziren ere, antolatzaileek zein editoreek formatu birtualari buruzko balorazio baikorra egin zuten oro har. Aurten alderdi birtualari eutsi dio azokak, aurrez aurreko formatua eskaintzearekin batera. Datuek esango digute iazkoa unean uneko elkartasun adierazpen bat izan ote zen ala bestelako aukerak zabaldu ditzakeen bide baten hasiera dugun begi aurrean. Atzerrian bizi garen euskaldunoi behintzat gure kultur ekoizpenarekin harremanetan jarraitzeko modua ematen digu sareak.

### Itzulpenek zabalduko bideak

Internetek bezala itzulpenek rol garrantzitsua jokatzen dute euskal literaturaren zabalpenari begira. 2021. urtea indartsu hasi zen itzulpenen arloan, otsailean ezagutzera eman baitzen Ibrahima Baldek eta Amets Arzallusek elkarlanean idatzitako *Miñan* (2019) liburuaren ingelesezko itzulpenak, Timberlake Wertebaker ziburutar britainiarrak osatuak, Ingalaterrako PEN elkarteak ematen duen itzulpengintza saria jaso zuela. Ez da lehen aldia euskal literatur lan baten ingelesezko itzulpenak aipatu saria jasotzen duena, 2018an Kristin Addisek ingelesera itzulitako Karmele Jaioren *Amaren eskuak* (2006) nobelari eman baitzioten. Ingelesak munduan duen nagusitasunak literatur sektorearen kezka piztu ditu, arrazoiz piztu ere, arrisku erreala baita homogeneizazioarena. Globalizazioa

prozesu konplexua da, ordea, eta oztopoak bezala erresistentziarako mekanismoak eragin ditzake. Euskal literaturaren kasuan, ingelesak beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak ahalbidetu ditu egileen euskalduntasuna ezkutatu gabe, gaztelera itzulpenen kasuan maiz gertatzen ez dena. Izan ere, gaztelera jauzi egiterakoan, euskal idazleak espainiaru egiten dituzte. Salbuespenak egon badaude, jakina. Emakumeek idatzitako literaturari bultzada handia ematen ari zaion Consonnik gaztelera itzulita argitaratu dituen euskal idazleen euskalduntasuna azpimarratu egiten du, Espainiako literatur sistemak erabili ohi duen periferien diskurtsoan erori gabe. Aitzitik, euskal literaturari balio propioa aitortzen dio argitaletxe bilbotarrak, eta haren gainean dagoen ezezagutza modu estrategikoan erabiltzen du. Esanguratsua da, zentzu horretan, orain arte Consonnik kaleratu dituen lau euskal nobelak (Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* 2019an eta Alaine Agirreren *X hil da*, Miren Amurizaren *Basa* eta Miren Agur Meaberen *Hezurren erretura* 2021ean) zein bildumaren barruan plazaratu dituen: *Munduaren jatorria* da bildumaren izena (argitaletxearen arabera, Courbeten koadro ezagunaren izenburuari ikuspuntu feminista eta ironiko batetik heltzen diote), eta bizitza sentitzeko, pentsatzeko eta errepresentatzeko bestelako moduak eskaintzea du xede. Aipatu lau euskal nobelez gain, bildumak beste herrialde batzuetako idazle eta pentsalari feminista, *queer* eta beltzen lanak jasotzen ditu.

## Iberiar ikasketen afera

Iberiar ikasketak indarra hartuz doaz euskal mundu akademikoan, euskal literaturarentzat bide berriak zabalduko dituzten promesarekin. Joan Ramon Resinak idatzitakoaren arabera, iberiar ikasketek Iberiar penintsula izendaturiko eremu geografikoa kokaleku duten kulturen eta hizkuntzen arteko harremanak dituzte oinarrian. Planteamendu horren arabera, gaztelera eta hari loturiko kultura(k) penintsulako

‘probintzia’ bat gehiago izatera igarotzen dira, Dipesh Chakrabartyk esango zuen bezala. Baina, euskal literaturari begira, zehazki zer suposatzen du Iberiar penintsula orientazio puntu moduan ezartzeak? Batetik, alderdi geografikoa kontuan hartu behar dugu. Euskal literaturak gainditu egiten du penintsularen esparru geografikoa. Beraz, lehenengoa bigarrenera mugatzeak proiektu politiko jakin batzuek (uler bedi espainiar eta frantziar estatuek) ezarritako mugak naturalizatzea dakar, eta ondorioz euskal literaturaren eremu geografikoa bitan zatituta geratzen da. Hain zuzen, iberiar ikasketak ardatz dituzten hainbat argitalpenek Hegoaldeko probintziekin lotzen dute euskal literatura, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten horiekin. Batzuek argudiatu dute euskal literatur sistema EAEn kokatuta dagoela eta zentzuzkoa dela Euskal Herriaren zatiketa, baina halako planteamenduek ikuspuntu instituzionalistak lehenesten dituzte horien atzean dauden prozesu politiko eta ekonomikoak itaundu gabe, kulturaren bestelako adierazpen eta zabalpen espazio eta sareen kaltetan.

Bestetik, hizkuntzaren kontua dago. Bizirik zela eman zuen azken elkarrizketan, 1986ko abenduaren 7ra arte argitaratu ez zena, honela mintzo zen Gabriel Aresti idazle euskaldunen bazterketari buruz:

Hobe litzateke Euskal Herriaren marginazioaz mintzatuko bagina, eta ez bere literaturaren marginazioaz bakarrik. Espainiar latinoa ez da batere eroso sentitzen euskalduna espainiarra ez dela pentsatzerakoan; Madrilgo lagun batzuekin gertatu zait adibidez. Kulturalki hitzeginez, periferiarekiko marginazioa esistitzen dela esan liteke...: kastillanoak katalana ulertzen du baina ez ordea euskara.

Arestiren hitzetan, Espainiako Estatuaren ikuspuntutik (eta Iberiar penintsularenetik ere), euskarak geografikoki eta kulturalki asimilaezin bihurtzen du euskal kultura, gaztelezako hiztunarentzat ulertezina delako. Azken horrek, ordea, katalana ulertzeko arazorik ez du (katalanak estatuaren kontra altxatzen ez diren bitartean, behintzat) biek komunean

dutenari esker: beren latinotasuna. Jakina denez, gaztelera eta katalana, galiziera eta portugesearekin batera, hizkuntza erromantzeak dira. Horiek guztiak latinetik datoz, hizkuntz familia bereko kide bihurtuz. Latinotasunaren ideia, ordea, hizkuntzarena dena baino harantzago doa. Europako kontinentearen barruan, mundu zibilizatuaren mugak ezartzeko, 'gu'-a 'beste' izendaturiko horretatik bereizteko erabili den kontzeptua izan da. Latinetik eratorria ez izateak euskara arrotz bihurtzen du, hots, ezagutzatik kanpokoa da eta ondorioz arriskutsua. Jakina, euskara ez da horrelako ezer; hitz egiten ez duten eta balio kulturalik aitortzen ez dioten horiek hala antzematen dute. Baina gutxitan egiten da hizkuntzak berezkoa duenaren eta ezezagutzak eragindako aurreiritzien arteko bereizketa. Nancy C. Dorianek hizkuntzarekiko jarrrera hori Mendebaldeko hizkuntz ideologiekkin lotzen du, zeinen arabera hizkuntza indoeuroparrak pentsamendu kritikorako 'hobeto' prestatuta dauden eta genealogia horretatik kanpo geratzen diren hizkuntzak barbarotzat hartuak diren.

Euskararen arrotzasunak euskal literatura irakurtezin eta ulertezin egiten du. Azken hori irakurgarri eta ulergarri bihurtzen da soilik gaztelera itzulia denean, hau da, hizkuntzaren bidez sorturiko espazio asimetrikoari komunaren parte izatera igarotzen denean. Espazio asimetrikoari komuna dela diot, komunitasuna norabide bakarrekoa delako: euskal literaturak bere egin behar du gaztelera ulertua izateko, baina gaztelera hiztunak ez du euskara bere egin beharrik.

Iberiar ikasketek aniztasuna aldarrikatzen duten arren, praktikan ez dute aipatutako hizkuntz dinamikak desagitea lortu. Aitzitik, iberiar ikasketak babesten dituzten unibertsitate sailetan euskal literaturaren egoera zein den kontuan hartzen badugu, indartu egiten dituztela ohartuko gara. Ameriketako Estatu Batuetan, non iberiar ikasketak lehen aldiz sustatu ziren, euskal literatura ez da curriculumaren parte (aipatzekotan, kuota sistema bati jarraituz izango da, hau da, idazle eta liburu jakin batzuk hautatuta, eta gaztelera hiztunaren itzulpenean; kurtso propiorik egotekotan, hautazko

moduan eskainiko da), eta euskal literaturan plazarik sortzeko interesik ez dago (azken urteetan zabaldu diren irakurle plazak behin-behinekoak dira eta gutxi ordaindutakoak). Predikatzen dutenaren eta errealitate materialaren arteko desadostasunei buruz galdetuta, iberiar ikasketen defendatzaile batzuen erantzuna da gobernu autonomikoak ez duela nahikoa diru ematen euskal literaturaren irakaskuntza indartzeko. Kontua zera da, ordea: euskal literaturak Euskal Herritik kanpo presentziarik badu, txikia bada ere, euskal diru publikoari esker da. Erantzukizuna besteei egozte (errepresentatua izan nahi baduzu, zuk zeuk ordaindu), euskal literaturan interes falta dagoela azaltzeaz gain, erakunde akademiko estatubatuarretan zein Mendebaldeko gainekoetan nagusi diren joera neoliberalen adierazgarri ere bada.

Baina hara zein den paradoxa: iberiar ikasketak bultzatzen dituzten sailetan euskal literaturaren egoera behin-behinekoa eta bazterrekoa den bitartean, espainiar estatuko hizkuntza erromantzeetako batean edo batean baino gehiagotan trebatu diren zenbait akademiko euskal literaturari buruz idazten hasi dira orain inolako konplexurik gabe, nahiz eta euskaraz jakin ez. Euskaraz ez dakitenez, gaztelarazko edota ingelesezko itzulpenetan oinarrituta daude euskal literaturari buruzko beren analisiak. Ikasketa postkolonialak ezagunak zaizkion edonork aise antzemango ditu ikuspegi kolonialekin bat datozen egiturak jarrera horien atzean: hizkuntza batzuk derrigorrez ikasi behar dira gaiaren analisi zorrotza bermatzeko, baina logika hori ez da beste hizkuntza batzuetara aplikatzen. Iparralde globaleko hizkuntza hegemonikoetako baten aurrean bageunde, dela gaztelera, ingelesa, frantsesa edo alemaniera, itzulpenetan oinarrituriko azterketak onartezinak izango lirатеke. Profesionaltasun faltaren adierazletzat joko lirатеke, iruzurtzat ere. Alderdi etiko eta profesionalaz gain, aintzat hartu beharrekoak dira itzulpena jatorrizko lana balitz bezala jorrateak eragin ditzakeen interpretazio okerrak. Hizkuntza ez jakiteak literatur ekoizpenari buruzko ezagutza sakona eragozten du, batik bat ehuneko

txiki bat bakarrik denean itzultakoa, euskal literaturarekin gertatzen den bezala; eta, ondorioz, ohikoa izaten da euskal literaturaren gaineko argudio merke eta estereotipo-sortzailer guztiak aurkitzea artikulu horietan. Hala ere, akademiko horiek euskal literatura ‘kontuan hartzeko’ egin duten aha-lerinagatik zorionduak izatea espero dute, eta eraso moduan hartzen dute kritikarik txikiena. Lerrook idazten ari naizela, aipatu gaiok ardatz dituen artikulua zentsuratu didatela eta datorren urtean kaleratzekoa den iberiar ikasketen gaineko liburu batean ez dela agertuko jakinarazi didate. Horrek zer pentsatua ematen du iberiar ikasketen ustezko jarrera inklusiboari begira. Kontua, dena den, beste bat dela iruditzen zait: euskal literaturarentzat iberiar ikasketak desiragarriak diren ala betiko tranparantz garamatzaten. 🍷



### Urteko zinema produkzioaren nondik norakoak

2021 urte mugitua izan dugu euskal zineman; baina, zailtasunak zailtasun, pandemia aurreko normaltasunera itzultzen ari garelako sentsazioa igarri da urteak aurrera egin ahala.

Aurtengoa 2020+1 urtea izan dela esan dezakegu, 2020ko pandemia egoera mantendu delako eta, nahiz eta itxialdirik ez egon, agintariak ezarritako neurri eta protokoloek eragin zuzena izaten jarraitu dutelako euskal ekoizpenetan.

2020an filmaketetan ezarri ziren neurri espezifikoez urte honetan jarraitu dute: pertsonen arteko distantzia, bi metrokoa; filmaketa lantaldearentzat, maskara kirurgikoak erabiltzea, eskuak etengabe garbitzea, batez ere platora sartzean eta bertatik irtetean edo lokalizazioan. Instalazioak aldizka desinfektatzea, testak egitea, egunero tenperatura hartzea... Kontuan hartuta fikziozko film luze baten filmaketan 100 pertsona inguru egon daitezkeela lanean, neurri horiek berez konplexua eta luzea den filmaketa prozesua zaildu dute.

Eta ekoizpen fase horretan harrapatu dituzte hainbat euskal proiektu. Aipatu nahi nituzke Paul Urkijoren *Irati* eta Iraixe Fresnedaren *Tetuán* film luzeak, eta hainbat film labur, horien artean aipagarriak Maider Oleagaren *Irrits* eta Iban del Camporen *Sorbeltza*, 2021eko udan filmatu dituztenak.

Juan Luis Landa eta Jon Muñozen *El Ciclo de Irati* komikian oinarritua, Erdi Aroan kokatzen den abenturazko film historiko fantastiko epikoa da *Irati*, Urkijok betidanik kontatu nahi izan duen istorioa. Euskal mitologia maite duen zuzendariak, *Errementari*-n egin zuen bezala, euskarari garrantzi handia eman dio bere azken filmean; horrela, *Irati*-n, Nafarroako protoerresumako euskara zaharrera gerturazten

saiatu dira. Filmaren filmaketari ekin zioten urrian, eta bertan parte hartu dute Eneko Sagardoy, Edurne Azkarate, Iñigo Aranbarri, Nagore Aranburu, Iñaki Beraetxe, Patxi Bisquert, Ramon Agirre, Kepa Errasti eta Itziar Ituño aktore ezagunek, besteak beste. Filmaketa azaroan bukatu dute eta 2022an dago aurreikusia estreinaldia.

Iratxe Fresnedaren *Tetuán* dokumentalak *Irrintziaren oihartzunak* eta *Lurralde hotzak* filmekin hasitako erregistro eta oroimenaren inguruko filmen trilogia osatuko du. Azaroan hasi zituen zinemagile bizkaitarrak filmaketak, eta migratzaileei ahotsa eman nahi die sorkuntza dokumental honetan. Horretarako, Fresnedak eta lantaldeak munduko hainbat bazter bisitatu dituzte eta, besteak beste, Errumanian, Almerian, Suitzan eta Saharako desertuan filmatzen aritu dira. Filmaren estreinaldia 2022an aurreikusita dago.

Filmak noiz, nola eta non estreinatu izan da zinemagile batzuontzat beste buruhauste galanta 2021ean. Aforoetan murrizketak ezarri ziren 2020an, eta horiek aurten ere jarraitu dute Hego Euskal Herrian. Uztailean, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aforo murrizketa %35era jaitsi zen, pandemia osoan baxuena. Neurri hori ezartzeak hainbat zinema aretoen itxiera ekarri zuen EAEn, eta Euskadiko Zinema Aretoen Elkartearen (EZAE) haserrea. Elkarteak egoera hori salatu zuen, eta edukiera estatu espainiarrean orokorki ezarrita zegoen %75era pasatzeko eskaera egin. Aldaketa ez zen gertatu irailera arte, Donostiako Zinemaldia-rekin kointzidituz, zinema aretoen edukiera %35etik %60ra pasatu zenean.

Gauzak horrela, aurten zinema aretoetan estreinatu diren euskal ekoizpenak askotarikoak eta arrakastatsuak izan dira. Batzuk aipatzearren: *Dardara* (Marina Lameiro), *Non dago Mikel?* (Amaia Merino, Miguel Angel Llamas Pitu), *Urtzen* (Telmo Esnal), *Aztarnak* (Maru Solores), *Nora* (Lara Izaguirre), *Maixabel* (Iciar Bollain), *Zutik!* (Mikel Alvarez, Haizea Pastor), *Apaiz kartzela* (Oier Aranzabal, Ritxi Lizartza, David Pallarès), *Bolante baten historia* (Iñaki Alforja, Iban Toledo).

Aipaturiko film horietako batzuk Donostiako Zinemaldian ikusi genituen lehenengoz, beste hainbat euskarazko filmekin batera. 2021eko edizioan euskarazko beste film hauek ere ikusteko aukera izan dugu: *Ilargi guztiak* (Igor Legarreta), *Paperezko hegoak* (Josu Martinez, Samara Velte) eta *Heltzear* (Mikel Gurrea) film laburra.

Johnny Depp aktore estatubatuarrari emandako Donostia sariak eztabaidaz bildu duen aurtengo edizioak euskal zinemari bere txokoa eskaini dio zinemaldiaren atal desberdinetan zipriztindutako film hauekin: *Sail Ofiziala (Maixabel)*, *Zabaltegi-Tabakalera (Heltzear)*, *Zinemira (No somos nada, Aztarnak, Bolante baten historia, El radioaficionado, Erlauntza, Fantasía, Ilargi guztiak, Kuartk Valley, Intziria, Pandemic Tour Belako, Paperezko hegoak)*, *Kimuak (Azaletik azalera, Berak baleki, Heltzear, Inner Outer Space, Oihartzunak, Tru-moiak, Ur azpian lore, Zerua blu)*.

Aurtengo euskal zinema eskaintzatik, beraz, %70 izan dira euskarazko produkzioak edo jatorrizko hizkuntzetako bat euskara izan dutenak.

Aipagarria, baita ere, aurtengo Zinemaldian aurkeztutako ekimen interesgarri bat: *Itxitik*. Eusko Jaurlaritzak, Zineuskadi, EITB, Donostiako Zinemaldia, Zinebi eta EZA Eren arteko akordioan datza ezohiko diru-laguntza. COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako itxialdiak eta egoera horrek EAEko zinemagintzan sortutako galerak eta etenaldiak zertxobait konpentsatzea eta euskal zinemagintza suspertzea zituen helburu laguntzak.

Eusko Jaurlaritzak 2020an esleitu zuen diru-laguntza berezi horrek bere fruituak eman ditu aurtengoa, eta horri esker aurrera ateratu diren euskarazko filmak hauek izan dira: Lopez de Seguraren *Tartea*, Iban del Camporen *Serendipia*, Maider Oleagaren *Kinka* eta Mikel Ruedaren *Etxean*.

Eta ezin utzi aipatzeke beste zinemaldi bat, Lekeitioko Zinebilera, euskara hutsean egiten den euskarazko filmen zinemaldi bakarra Hego Euskal Herrian. Iazko pandemia egoeraren ondorioz, Zinebilera Internetetik egin zen, eta

2021ean euskal zinemaren festa berriro ere aurrez aurre egiteko aukera izan dute.

Haur nahiz heldu, amateur zein profesional, denentzat zuzendutako ekitaldiz jositako Zinemaldia izan dute aurtengo edizioa, jada 44.a, azaroaren 20tik 28ra bitartean. *Kameratoia* lehiaketaz edo *Zoom* zinema tailerraz gozatu ahal izan dute Lekeition, eta euskarazko 20 film labur izan dira hautatuak Sail Ofizialean.

## Pantailak Euskaraz ekimena

Baina, zalantzarik gabe, 2021 Pantailak Euskaraz ekimenaren urtea izan da, ez bakarrik gurean izan duen inpaktu eta ikusgarritasunagatik (hedabideetan, sare sozialetan...), baizik eta baita euskal gizartean eta euskararentzat izan dezakeen eraginagatik ere.

Ekainean sortu zen, hainbat herri ekimen eta eragilek euskarak ikus-entzunezkoan duen presentzia eskasaz arduratuta.

Aurretik euskararen militantzian lanean zebiltzan Netflix Euskaraz eta Disney Plus Euskaraz taldeak, Tinko Euskara Elkarte eta Bieuse (Bikoiztaile Euskaldunen Elkarte), indarrak batuz, eskaera batzuen bueltan bildu ziren, eta ekainaren 8an prentsaurrekoan aurkeztu zuten ekimena. Bertan, hamar aldarrikapen hauen berri eman zuten:

1. Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreko finantzaketa publikoa handitzea.
2. EITB indartzea eta euskararen normalkuntzarako tresna bihurtzea.
3. Euskarazko *streaming* plataforma sendo bat sortzea.
4. *Streaming* plataformetan euskararen presentzia legez bermatzea.
5. Zinemaren lege propioak sortzea.
6. Bideo jokoetan eta sortzaile plataformetan, euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
7. Ikus-entzunezkoen lege propioak sortzea.

8. Ikus-entzunezkoen Kontseilu propioa sortzea lurralde administrazio bakoitzean.
9. Espainiar eta frantziar kate publikoek edukiak euskaraz eskaintzea.
10. Koordinazio-organoa sortzea, hiru lurralde administrazioetako ordezkari osatua.

Oso oinarrizko eskaerak dira guztiak, baina gabezia batetik sortuak dira: euskarak ez du gure pantailetan izan beharko lukeen presentzia, gaur egungo ikus-entzunezkoaren eskaintzan kasik entzunezina da gure hizkuntza.

Orain dela ia 30 urte, Tinko Euskara Elkartearen sorreran, helburutzat jo zen garai hartan haurrak ziren horiek zinema euskaraz ikusten ohitzea eta heldutan zinema euskaraz ikustea normaltzat jotzea. Ia hiru hamarkada geroago, badakigu helburu hori utopia bat zela eta errealitatea beste bat dela: gaurko gazteek kontsumitzen dituzten ikus-entzunezko produktuak (zinema barne) gazteleraz edo ingelesez dira.

Gaurko euskal haur eta gaztetxoek nahiago dute Youtube, Twitch, telebista edo plataformetako eskaintza gazteleraz edo ingelesez kontsumitu. Eta helduekin berdina gertatzen da zorritzarrez: programa gutxi batzuk salbu, euskaldunok nahiago dugu telebista gazteleraz. Eta ez da harritzekoa. Bikoizketa suntsitu egin da Euskal Telebistan, eta gure hizkuntzak ez du jaso instituzioetatik espero zen babes. Ez dira proportzionalak, adibidez, euskarazko filmek jasotzen dituzten diru-laguntza eskasak eta gero filmok izaten duten arrakasta, bai nazioarteko zinemaldietan, bai zinema aretoetan. Baina gaur Donostian, adibidez, karteldegian euskaraz entzuten den film bakarra *Maixabel* da. Katalunian, aldiz, eta idescat.cat webguneko 2019ko datuen arabera, jatorrizko hizkuntza katalana duten filmak edo katalanera bikoiztutako filmak urte hartan zineman emandakoen %61 ziren, eta katalanera bikoiztutakoak izan ziren gehien ikusiak: %70.

Gurean, zenbaki horietara iristeko, esfortzu titanikoa egin behar dugu, bai instituzioen aldetik, bai ekintzaile, zinema-gile eta herritar eragileen aldetik, bai publikoaren aldetik;

eta zer esanik ez, baita gure euskal telebista publikoaren aldetik ere.

2021ean Pantailak Euskaraz ekimenak beharrezkoa zen tsunamia sortu du; horrela, abenduaren 4an Durangoko Azokaren baitan *Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko manifestua* aurkeztu zuen gorago aipatutako hamar aldarrikapenekin, eta kultur eta hezkuntza eremuko 30etik gora eragilek eman zioten atxikimendua. Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Ipar Euskal Herriko alderdi politiko eta eragileei eskatu zieten «aldarrikapenok bere egin ditzatela eta euskarazko ikus-entzunezkoen industria, gure kultura eta gure hizkuntza dagokien lekuan jartzeko lan egin dezatela».

Tsunami honen baitan, *(H)itzartu EITB* ekimena ere aurkeztu dute abenduaren 9an. Netflix Euskaraz eta Zinemak Euskaraz taldeetako kide batzuen ekimenez, «EITB izan dadin euskararen normalizazioan motor, eta, bertan, euskarak eta euskal hiztunek merezi dugun tokia izan dezagun».

Argi dago tsunami hau geldiezina dela, eta espero dezagun herritarren ekimen honen bultzadak tamainazko erantzuna izatea dagokionaren aldetik.

## (H)emen ikus-entzunezko eta arte eszenikoetako emakumeen elkarteak

2021 urteko errepasso hau euskal ikus-entzunezko emakumeekin bukatu nahi dut. Konkretuki, (H)emen ikus-entzunezko eta arte eszenikoetako emakumeen elkarteak egindako lana aipatu nahi dut. Elkarteak 2016ko martxoan sortu genuen emakume zinema profesional talde batek, Euskal Herriko emakume zinemagile, teknikari, aktore eta bestelako zinema eta arte eszenikoetako profesionalei ikusgarritasuna eta lan aukerak emateko, saretzeko eta formazio eta garapen ikastaroak eskaintzeko. Ia sei urte hauetan, ekitaldi ugari antolatu ditu elkarteak, elkarlan eta kolaborazioak sustatu ditu eta saretze lan izugarria egin du.

Baina agian aurten izan da elkarreak jauzi kualitatibo izugarria eman duen urtea.

Euskal zinemaren etorkizuna izango diren ikus-entzunezkoetako emakumeei lehen aukera emateko *Aukera* programa aurkeztu zuten urte hasieran: euskal emakume zinemagile gazteei zuzendutako mentoretza programa horrek 18 eta 35 urte bitarteko sortzaileei film labur bat egiteko laguntza ematen die garapen fasean. Bi-bost sortzailez osatutako bost taldek hartu dute parte hautatutako proiektuekin gidoi, zuzendaritza eta produkzioko mentoretzetan, eta genero-ikuspegiari buruzko tailer bat ere jaso dute.

Programa azaroan amaitu da, aurtengo Zinebi Jaialdian; bertan, *pitching* saioak izan dituzte euskal zinemagintzan ezagunak diren hiru profesionalen osatutako epaimahai baten aurrean. Proiektu irabazleek 3.000 euroko saria jaso dute, eta baita nazioararteratzeko laguntza bat ere. Zinemagile irabazleek Zinebiko amaiera galan jaso zituzten sari horiek. Bost proiektuetatik hiru kasutan ekoiztetxeak atxikitu zaizkie; film horiek abian dira dagoeneko, datozen fase desberdinei begira.

Programa horren sustatzailea (H)emen elkarrea izan da, eta lehenengo edizioan babesle izan ditu Zineuskadi eta Zinebi. Edizio gehiago egongo dira, eta euskal zinemaren etorkizuna izango diren euskal emakume zinemagile gazteei babesa ematen jarraituko du elkarreak.

2021 urtea euskal zinemarentzat izan dena laburtuz, urte konplikatu izan da, 2020an pandemiaren eraginez ezarritako neurrien jarraipenaren urtea. Euskarazko ikus-entzunezkoari esperantza izpi bat ekarri dioten herri ekimenen sorrerak eta sektoreko emakumeei bultzada izugarria eman zaien urtea ere izan da. 2022 urtearen atarian, datozen urteetan euskarazko ikus-entzunezkoak ekarriko duena ezagutzeko zain geratzen gara, itxaropentsu. 🍷

# Duela 26 urte...

Zenbat  
urte dituzu?

Gustatu  
zaizu komikia?

Eta  
nola duzu  
izena?

Hamaika.

Asko!

PAUL  
URKIJÓ.





## Manex Agirre Arriolabengoa

### Hau urte arrano hau

«Hekatonbearen urtea» izenburutu zuen Katixa Agirrek zenbaki honen orain urtebeteko senidea. 241. JAKIN hartan mahaiaren bueltan jarri zituen Itziar Ugartek Edurne Azkarate, Xabier Gantzarain, Katti Pochelu, Castillo Suarez eta Igor Elortza. Kulturaren ikuspegi sistemikoa izan zuten hizketagai, nahitaez, horixe baitzen ikuspegiarik presazkoena. Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kide Elortzak solasaldian esandakoa da azpikoa:

Zer antolakuntza mota geldituko da hau dena erdi txukuntzen denean? Horrekin badugu kezka handia. Herrietako eta herri ekimeneko antolakuntzaz ari naiz [...] Hor ikusten dugu lehen-tasuna 2021erako.

Aterabiderik izan al du 2021ean lehentasun horrek? Goizegi da erantzuteko. Bai eta ez. Erreakzionatzen hasi gara, baina hasi bakarrik. Urte hasiera gogorra izan zen, uda gogorra izan zen, urte amaiera gogorra izan da. Olatuka neurtzen dugu dena, eta balizko finkatze-prozesu baterako harresi bat da hori. 2020an baino 'bertan behera' gutxiago, baina oraindik gehiegitxo, berreskuratze bat egonkortzeko. Ikusi beharko da Bertsozale Elkarteak urtero egiten duen datu-bilketan Elortzak aipatutako «herri ekimeneko antolakuntzatik» sortutako saioen kopurua zenbatekoa izan den.

Aurreko hori gutxi ez, eta goazen kezkametroan gora. Zer mugitzen zizkigun tripak 2020ko martxoa baino lehen? Beñat Gaztelumendik izan zuen 235. JAKINEN 2019an bertsolaritzak emandakoari erreparatzeko ardura. *Kontrako eztarritik*-en urtea, hain zuzen ere. Emakumeek bertso-taula gaineko fitxak

mugiarazi zituzten urtea. Horrekin batera, «euskalkirik gabeko bertsolarien» inguruko hausnarketa bat ere badakar Gaztelumendik, Saioa Alkaizaren artikulu bati tiraka. Generoa, hizkuntza. Ez da denbora gehiegi pasa, baina pandemiak ez die argi handirik bota aurretik zetozen kezkei. Zalantza-egoe-  
ra orokor batek nola ekarriko ditu bada aterabideak?

Itxialdi-garaiaz eta osteko berreskuratze(?) -aldi luzeaz zenbat aldiz esan ez ote den hurrengo: bizimodu bat bukatu dela, beste bat hasteko ordua dela, aro bati lazoa jarri eta berri bati ekiteko sasoian gaudela. Gure psikologiak berez du plazeboa sortzeko joera, ezta? Buru-osasunaren defentsa mekanismo bat, seguru asko. Nor ez du kontsolatzen berrabiatzearen ideiak?

Kontua da 2020 eta 2021ean, egon, egon garela munduan (geldiago, agian), eta pentsatu egin dugula, eta aldatu egin garela. Ez gara pertsona hobek (auzo-lotsaz oroitzen dugu itxialdiaren hasierako ideia hura), lehendik zetorren lerro berean jarraitzen dugu, tartean interferentzia gogorrak izan arren. Garai batekoak gara.

«Dena aldatzen da». Oihana Iguaranek aurtengo irailean *Bertsolari* aldizkarian argitaratutako artikuluaren laburpen traketsa da hau: saio batean, gaindituztat jotako zerbait bota du bertsolari batek. Oihana harritu egin da, mindu baino gehiago. Entzuleek, bertsokideek, teknikariak... ere anomaliatztat hartu dute gertatutakoa. Garai batean normaltztat hartuko zen; gaur egun, ez. Ez gara zerotik hasi, eta gauzak gertatu egin dira bitartean.

## Non eseriko gara?

*Hitzetik hortzera*-k saio bat eskaini dio aurtengo udazkenean, modu aski azertatuan, mahaiaren eta jan-edanaren bueltan egiten den plaza-formatuari. Zergatia garbi dago: apenas antolatu ahal izan ditugu urte eta erdian, faltan sumatzen ditugu bertso-bazkari eta afariak. Bertsoan aritu eta entzuteko

bide-modu zehatz bat ematen duten plaza estimatuak dira. Ez hori bakarrik: kultur-ekitaldi bereziak dira, ludikoetan ludi-koenak, eta bertsolari-entzuleek bertan egoteko era ezberdin bat dute. Arduraduna nor den eta nola antolatzen duen ere kontuan hartu beharra dago. Elortzak kezka adierazitako herri-ekimeneko antolakuntzaren estandarteetako bat izan da plaza-mota hori, betidanik.

Kultur programatzaile 'ofizialena' izan da 2021a: erakundeak, elkarte indartsuak, urteroko hitzordu finkatuak. Bakoitzari berea: ausardia erakutsi dute hainbatek beldurraren elur-bolaren aurrean; eskerrak. Dena dela, programatzaile-moten ezaugarriek neurri batean eraginda, eta osasun-irizpideen mugek neurri handian baldintzatuta, plaza-formatuaren homogeneizazio bat gertatu dela nahiko kontu nabaria da. Antzokiak, aire libreko saio formalak, jaialdiak, bestelako ekitaldiekin lotutakoak... Performancearen parte nola izan, ekitaldiak iraun bitartean nola egon, ikuskizun batean zer gisatara parte hartu, horixe da alde aurretik zehaztuta etorri zaiguna. Etorkizunean askatzeko moduko korapiloa bakarrik bada, gaitzerdi.

Eta hara non datorren Joanes Illarregi, eta *Bertsolari* aldizkarian uztailearen hondarrean idatzitako artikuluan gogorazten digun, gordin, egin direla beste formatu bateko saioak. Mahai-bueltakoez ari gara. Pozgarria, ados; baina Joanesek ez du artikulua poza adierazteko erabiltzen, COVIDaren krisiari egotzi ezin dakiokeen eta oso aspalditik datorren prekari-tate-giro zehatz bat salatzekeo baizik. Giro noizbehinkakoa izan daiteke, baina mingarria. Ez dadila haria eten, baina ez dadila korapilatu ere.

Saioak zaindu egin behar dira, edozein kultur diziplinatan sartuta dabilenak sinatuko luke hori. Bertsoak antolakuntza-eredu eta antolatzaile-mota ugari ditu, espresio bide moldaerarra izaki. Gorago esan dugu murriztu egin dela aniztasun hori. Airera botatako bala bat da hau: formatuaren homogeneizazio horrekin batera, ez ote den taula gainean ikusi nahi dugun horren dibertsifikazio bat bilatu. 'Bertso-saioa' da oraindik agendan nagusi, baina leku gero eta handiagoa

dute bertso-saio musikatuek, literarioek, antzerkiarekin lotutakoek, kantaldi bereziek. Antolatzaileak gero eta gehiago ez ote duen 'beste zerbait' nahi, zerbait berezia, deigarria. Erreakzio bat izan daiteke: kultur ekitaldi batera joatea bizitza jokoan jartzea zela ematen zuen denbora-tarte batetik gatoz. Antolatzekotan, egin dezagun zerbait espeziala. Tira, plazak oro har aldatzen aritzearen sintoma izan daiteke, besterik gabe. Ikuspegi kontserbadoreak zenbateraino merezi duen aztertzeraz eraman gaitzake, eta hori ere ez dago gaizki.

## Zalantzoneak

Dena dela, ditxosozko joera gurea (eta ez da maiestatikoa), mugitzen gaituen hori zer eta nagusiki mugimendu-ikuspegiatik aztertzea. Harkaitz Zubiriren esanetan, bertso-mundua, zerbait izatekotan, proiektu soziokultural bat da. Bertan parte hartzen dugunon sistema-akatsa da: iritzi bat eskatzen ditugutenean, plano irekitik aritzeko joera dugu. Bertsolamintza bezalako foroek salbatzen gaituzte. Planoa ixten dugu bertan, sormena aztertzeraz jotzen dugu, «benetan axola duenaz» aritzen gara. Ez al dugu hori gutxiegitan egiten?

Beraz, nire buruari jarritako tranpari erantzun beharko. Zeri, nori, nola aritu dira kantuan bertsolariak 2021ean? Zer sortu da? Zer entzun du nola eseri behar duen agindu diogun horrek?

Susmoak besterik ez dira. Bat, nagusia: gero eta ziurtasun gutxiago dugu, edozein gairen aurrean. Bizimodua iraultzen bazaizu, epe motzagoa pentsatzen hasten zara, eta pentsatzen duzun horren gainean azpikalderak sortzen dira etengabe. Tira, hor dago testu hau osorik zeharkatzen duen tesia, noski: bizitzarekiko jarrera dudaz busti hori aurretik zetorrela, eta osasun-krisiak bizkortu egin duela, sakonagotu... egiturazko bihurtu?

Ez dakigu gero eta gehiago, baina gero eta informazio gehiago dugu eskura, eta gero eta zailagoa da interesatzen

zaigun horrekin ziur egotea. Interesatzen zaigunarekin, edo benetan eragiten digunarekin. Mugitzen gaituenarekin. Julio Sotok *Naiz-en*, irailaren 10ean, txertoaren aferaz:

Iruditzen zait alde egiten ari garela agian horretatik eta heldu beharko diogula uste dut, ez posizionatzeko, bertsolariak gertatzen ari denari kantatu behar diolako baizik. Une honetan errazago ari gara Afganistani kantatzen txertoaren gaiari buruz baino. Sintomatikoa da hori.

Teknika ugari daude ziurtasun gutxi duzun gai bati buruz kantatzeko, eta bat ez kantatzea da. Hau da, gaia saihestea, edo iskin egitea, zeharka hartzea, ñabarduretan benetako mezua galaraztea. Beste teknika bat, nire ustez onuragarriagoa, benetan ziurtasun gutxi duzula erakustea da. Julio Sotok dio bertsolariak gertuko gaiei heldu behar diela, ez posizionatzeko, benetan gertatzen ari denari kantatzeko baizik. Hor dago gakoa, besteak beste 2017ko Euskal Herriko Txapelketan berpiztutako Bertsolari vs Aktore eztabaida guztiz antzutzen duena, oso garai bateko bihurtu arte. Gertatzen ari denari buruz kantatu, erraza dirudi.

Ez bakarkakoetan bakarrik: gero eta joera zabalduagoa da gai bakoitzari bere konplexuan zukua ateratzea. Saioa Alkaizak, Nafarroako txapela eskutan, pertsonaia bakoitzaren kontraesanak eta kokapena interesatzen zaizkiola esan zuen. Miren Artetxek, Xilabako finalean botatako alerik gogoangarrienean, beste batzuen umea erditu eta entregatu berri duen ama bat aurkeztu zigun, bere buruari sinetsarazten ari zena bere hautua izan zela hori egitea. Tori konplexutasuna. Nola uzten zaitu horrek. Horrela uzten zaitu? Ziur zaude?

## Akademia

Ez dago txapelketa bat bezalakorik gauzak astintzeko. Eta udazkenean, baten faltan, hiru izan ditugu. Bertso-eskolak aktibatzeke balio du. Bertsolariak berpizteke ere bai. Belau-naldien xake-taulan posizionamendu berriak asmatzeko. Eta,

azkeneko urratsean, merkatua dago. Ez, kendu merkatua eta jarri plaza aurreko esaldian.

Arreta jartzen dugu denok, tenperatura hartzen diegu herrialdeei, ezinbestean. Txapeldunek agurrak botatzen dituzte, eta elkarrizketak egiten dituzte prentsan, eta gauza asko esaten dituzte, ez txapelari buruzkoak bakarrik. Eta batzuetan ematen du hori dela erpina, eta erpina bakarrik dagoela, eta beste guztia bosgarren eta seigarren olatuen artean dagoela, han nonbait, hondoan.

Bertsoaren akademia ez da existitzen, baina inoiz aktibatzen bada, txapelketa-garaian aktibatzen da. Udazken honetan inoiz baino nabariagoa izan da hori. Are hutsago uzten du txapelketa-gabeko-garaia, saio gehien eta (zergatik ez) maila onenekoak sortzen direna. Egiten al diogu behar besteko jarraipenik 'benetako bertsogintza' horri, kultur kritikaren ikuspuntutik? Kontzertuen eta liburu-aurrezpenen kronika eta iruzkinak modu jarraituan egiten dira... Guk, lehia-garaian bai; eta bestela?

Lasai, 2022an beste bi txapelketa izango ditugu eta. 🍷



### *Erreferentziak*

Oihana Iguaran: 'Dena aldatzen da', *Bertsolari*, 2021-09-21 ([www.bertsolari.eus/zortziko-handia/dena-aldatzen-da](http://www.bertsolari.eus/zortziko-handia/dena-aldatzen-da)).

Joanes Illarregi: 'Beste behin', *Bertsolari*, 2021-07-28 ([www.bertsolari.eus/zortziko-handia/beste-behin](http://www.bertsolari.eus/zortziko-handia/beste-behin)).

Julio Sotori elkarrizketa, *Naiz*, 2021-09-10 ([www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210910/une-honetan-errazago-ari-gara-afganistani-kantatzen-txertoaren-gaiari-baino](http://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210910/une-honetan-errazago-ari-gara-afganistani-kantatzen-txertoaren-gaiari-baino)).

Miren Artetxe, Xilabako finalean, buruz buruko kartzelan (<https://bertsoa.eus/bertsokak/20012-buruz-burukoa-kartzela-miren-artetxe>).





## #infodemia

Informazio bonbardaketa eta albiste faltsuek inguratutako bizimodua, garaia, nabigazioa... Sindemia aurretik ere nahikoa gainkarga geneukan arren, azken hilabeteetan eztanda, leherketa, infobesitate eta antsietate, erabateko infoxikazio: informazio gehiegi, ulertzeko ia deus.

Portzierto, oraindik ez da emaitzarik aurkitu forma=infodemia bilaketarentzat Euskaltzaindiaren hiztegian. Izena ez duena ez da gurean?

Bada, ordea, euskal hedabideetan! *Berria*-ren estilo liburuan definizioa: «Osasunaren Mundu Erakundeak asmatu-terminoa, fidagarritasunik gabeko informazioaren zabalkundea izendatzen duena». Edo fidagarritasunik gabeko erauntsian euskal prentsa gure itsasargia.

Zurrunbiloan ez galtzeko bi kontzeptu: alfabetatze mediatikoa eta dieta mediatikoa. Komunikatzeko modu guztien ezagutza (komunikabide, sare sozial, emoji, mezu subliminal, publikizitate, bideo biral eta beste), ezagutu ondoren zer, non eta nola (algoritmoa) norberak hautatzeko.

Eta bi bide erronka bideratzen hasteko: batetik, pedagogikoa, hezkuntzari lotua ezinbestean –are belaunaldi eta jendarte ia osoki digitalen aroan–; eta, bestetik, politikoa, erregulazioa izango duena xede.

## #algoritmoak

Googlaren algoritmoa urrun dago guretzako emaitza onenak ematek, gure laguntzaile fidel eta prestu agertu nahi badu ere; hortaz, audientzia gisa, arduratsuagoak izan beharko ginateke aukeratzen ditugun informazio-iturriekin eta pantailetan erakusten zaizkigun emaitzekin.

Baina ez da bilatzailea gure algoritmo ez-perfektu bakarra: Netflix, Amazon, Spotify... kultur eta hizkuntz aniztasunaren ukatzaile eta suntsitzaile dira (kolonizatzaile kultural legez izendatu eta hala tratatuko ditugu noizbait?).

Unesco ere mintzo da auziaz: adimen artifizialaren etikari buruzko deklarazio unibertsalean jaso du aurten gure bizitzetan ohikoak diren algoritmoek eragiten duten diskriminazioa, kultur ekosistema txikiak eta hegemonikoa ez den oro bazter utziz, ikusgarritasun ezera kondenatuz.

Munduko burtsako kapitalizazio handiena zeinena da? Teknologia enpresa erraldoiena, Big Tech amerikarrarena (Microsoft, Apple, Alphabet, Amazon, Meta): petrolio, gas, finantza, industria farmazeutiko eta automobilgintzaren gainetik, arau guztiez gaindi.

Nor ari da existitzen ez den euskararen algoritmoa pentsatzen, garatzen? Euskararen algoritmoa, gure burtsako balore solidoena beharko lukeen kode likidoa.

## #euskara

*Txipiroiaren jokoa* izan da urteko serie aipatuena, Netflixen inoiz gehien ikusi dena –hori diote haiek eta inork ez dizkie datuak auditatzen, beraz, amen–: aldi berean estreinatu zuten Hego Koreako telesaila mundu osoan, azpidatziak 37 hizkuntzatan, bikoizketan 34 aukeran.

Itzultzaile automatiko eleanitzak erabili zituzten alimaleko langintzarako, adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarritzen diren itzultzaileak, makinak; ondoren, hezur-haragizko itzultzaileek egin zuten azpidatzien edizioa.

Sekulakoa da ziztu bizian datorrena: euskara hutsean emititu ahalko genuke nahi izatera Euskal Telebistako eduki guztia eta itzultzaile automatiko bidez zabaldu gaztelaniaz, frantsesez eta gainontzeko hizkuntzetan.

Eta hori ez da zientzia fikzioa: Elhuyarren *zientzia.eus* eta *aldizkaria.elhuyar.eus* atariak sei hizkuntzatan –euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, katalanez eta galegoz– irakurtzeko aukera dugu dagoeneko, teknologiari esker, hain zuzen.

Politikaren plazan ez da hizkuntza ardatzean jartzen, ez aurrekontutan, ez eskaeratan; herriko plazari bizkarra emanda beste behin, Pantailak Euskaraz eragilearen manifestuari entzungor. Exijitzen hasi beharko dugu euskara lehenesten duen ingurune digital eleanitz bat. Bada garaia.

## #biolentziak

Bortizkeria nonahi Interneten ere: ziberjazarpen, zibereraso, eta ziber-aurrizki gabeko indarkeria orori gehitu teknologiak dakarren lan baldintzen prekarizazioa, klasismoa, eta, hortik tiraka, jarraitu -ismo zein -fobia atzizkien zerrendarekin.

Itzultzaile automatikoen genero estereotipoei esker dakigu «Bera oso polita da» dela «She is very pretty», eta «Berak arrakasta eduki du» izan behar dela «He has been successful». Nork entrenatzen du algoritmoa? Nork bezatzen du nor? Ba al da hori dena zaintzeko norbait?

Ospe handiko youtuber batek errealitatean berregin du *Txi-piroiaren jokoa* telesail distopikoa (eta bere ustezko eduki biolentoeiengatik eztabaida publikoan bor-bor egon dena),

benetako eskalan eta benetako jokalariekin, denak jolasean diru truke.

Berea da baita ere 2021eko bideo ikusiena: MR. Beast youtuber famatua ageri da bertan, eta konplize dituen lagun batzuen laguntzarekin bere burua lurpean ehorzten du, plastiko gardenezko hilkutxa batean, bertan 50 ordu igarotzeko balentriarekin espektakulua eginez.

Estatu batzuek, aldiz, algoritmo bidezko zentsura aplikatu nahi dute, eta, adibidez, zuzeneko emisio bat bertan behera utzi makinak copyright eskubideak urratzen ari direla interpretatzean. Maiteko nuke gehiago mundua pertsonak baleude teknologia berrikusten (eta ez alderantziz).

## #dopamina

Hiperazeleratuta bizi gara, pentsa, audioak 1,5x entzuten ditugu, digitalizazioak patxada formateatu digu. Dena azkar nahi dugu. Eta dena nahi dugu. Desioen bulkadei segika *scroll* amaierara iritsi Instagramen (edo beste edozein sare sozialetan). Ez dugu ezer galdu nahi.

Sare sozialen dopamina-loop errepikakorren turista ginea uste genuen, baina biztanle gara. Behin eta berriz klik, zerbait gehiagoren bila hatza gora eta behera, txute bat eta beste bat. Azkura eraginda ere onar dezagun publikoki: adikzioa da.

Teknonekeak ere jo gaitu bete-betean, bizitza osorik digitalizatzearen ajeak nonbait, eta hasi gara mugikorretako jakinarazpenak kentzen, sare sozialetako aplikazioak desinstalzen, tarteka detox digitala egiten... Nekatuta, apatiko eta itzalita (gaude) nahi gaituzte.

Sare sozialak hasi dira onartzen, ikerketa-kazetaritzak publiko egindako barne txostenetan, nerabeen (eta beste denon)

buru osasunean eragiten dutela, eta ez onerako, preseski –are, gorputz eta kolektibo zaurgarrienei gehiago–.

Inpaktu toxikoa hor da, teknologiak eta sare sozialek gure bizitzetan zer espazio izatea nahi dugun hausnartu gabe ere. Plataforma horiek osasun publikoko arazo edo afera ba ote diren edo ez pentsatzen hasi beharko ginatke, gutxienez gogoeta egin.

## #arrakalak

Munduko populazioaren herenak baino gehiagok ez du Internet inoiz erabili Nazio Batuen Erakundearen arabera, 2.900 milioi pertsona sarerako konexio gabe.

Arrakala digitala handiagoa da garapen bidean diren herrialdeetan, geografiaren lur pobreenetan; eta alde nabarmenak daude landa-eremutik hiriguneetara, Internet sarbiderako probabilitatea bikoitza baita hirietan.

COVID-19a zabaltzean bihurtu ziren etxeak eskola, orde-nagailuak koaderno, Internet ezinbesteko. Irakasle eta ikas-kideekiko komunikazio guztia sarean. Baina zer saretan? Ertzetan geratu dira etxe eta eskola pobreenak. Arrakala digitala gurean ere bada.

Zuek ere aritu zarete, ingurukoek txertoa hartzeko abisua sms bidez jaso dutenean, edo COVID ziurtagiria deskargatu behar izan dutenetan, laguntzaile lanetan? 65-85 urte bitarteko pertsonen %42 baino ez da Internet erabiltzaile Eustaten arabera, baina... hor konpon!

Zergatik ez ditu Osakidetzak, edo udal batek ere ez, laguntzarako guneak jarri herrietako plazetan? Non dira alternatibak? Arrakalekin amaitzeko planak? Ea nola egiten dugun inor atzean ez uzteko.

## #lorratza

Sarrera-ontzia ireki eta hortxe zain atzo galdegindako erantzuna. Mezu bat bueltan eskertzeko, ezta? Bada azterlan bat honakoa dioena: britainiar heldu bakoitzak «Eskerrik asko» esateko posta elektronikoa bat gutxiago bidaliko balu egunero, 16 tona CO<sub>2</sub> gutxiago emitituko lirateke urtero.

Posta elektronikoa bezala, programazio kode-lerro bakoitza ere kutsadura bihurtzen da. Zenbat? *Nature* aldizkariaren arabera, adimen artifizialeko algoritmo bat entrenatzeak 300.000 kilo CO<sub>2</sub> inguru sor dezake, hau da, New York eta Pekin arteko joan-etorriko 125 hegaldik beste.

Adimen artifizialak dagoeneko frogatu du erabilgarria dela hainbat ingurumen-arazo konpontzeko, hala nola deforestazioari aurre egiteko edo nekazaritzan laguntzeko. Halere, hazkunde esponenzialagatik, gero eta energia gehiago behar da atzean dagoen konputazio masiboa jasateko.

Segundoro milioika datu-truke eragin: mezu bati erantzuteko GIF bat hautatu eta bidali, automatikoa aktibatzen diren ikus-entzunezko pildorei begira geratu, edota *streaming* bidez edozer –berdin unibertsitateko eskola bat, yoga saioa, zuzeneko kontzertua, hitzaldia edo terapia–.

Ez dugu eragin ekologikoa ikusi ere egiten, eta karbono az-tarnaz mintzo dena arraroa da oraindik. Zenbat kutsatzen du «Defenda ditzagun gure basoak» dioen afixa bati emandako datsegit bakoitzak?

## #haria

Lehen, liburuak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzen ginituen, jakinaren gainean egoteko. Orain, hariak irakurtzen ditugu. Twitter. Gehienez 280 karaktere eta puntu eta aparte.

Lerro gutxiko ideia solteek osatzen duten egitura luzea. Mapa kontzeptualen garaia omen da.

Lerrootan bildu dira #infodemia #algoritmoak #euskara #biolentziak #dopamina #arrakalak #lorratza eta #hariak. Linterna piztu eta parean ditugu kontzeptu gehiago definitzeke: datifikazioa, teknofeudalismoa, metabertsoa, NFTak, *creator economy*, kriptomonetak, Web 3.0 edota *cheugy*.

Mapak idaztea ez da ariketa erraza. Gainera, kartografia historikoki izan da gizonen esparrua –hala hedabideak, IKT, digitalitatea eta Internet ere–, eta nago hala izaten jarraitzen duen heinean arrakala aski ezagunetan nabigatuko dugula.

Abiapuntu singular eta pluralak ez daitezela izan asintota –nahi bati tiraka etengabe norabait hurbiltzen dena beti, baina inoiz heltzen ez dena, edo modu mugagabeaz luzatzen den hurbiltzeko joera antzu hori–.

Behi sozialenak dira esne gehien ematen dutenak, adimen artifizial eta algoritmo bidez frogatutako egitatea ei da, eta, bidenabar, izakiongan ere emaitza bertsuak emango lituzkeena... Hipotesi arriskutsuegia ote da proban jartzeko?

Sarea harilkatzeko boterea gurea da. 🍷

## LIBURUAK

**119** Euskal liburugintza 2019  
Xabier Eizagirre Gesalaga

# Euskal liburugintza 2019

Xabier Eizagirre Gesalaga

*Filosofian lizentziaduna eta JAKINEko erredakzio burua*

**U**rteroko ohiturari jarraituz, liburu ekoizpenaren emaitzak aurkeztu eta aztertu nahi ditugu aurten ere. Jakina denez, Joan Mari Torrealdaik 1976tik 2017 arte, urtero-urtero etenik gabe, liburugintzaren ikerketa soziologiko sistematikoa osatu eta JAKIN aldizkarian argitaratu zuen. Lan horrek bi emaitza sendo ekarri ditu: batetik, euskarazko liburugintzaren katalogoa osatu du Jakinek; eta, bestetik, liburugintza kultura oso baten osasunaren adierazletzat hartuta, sei hamarkadetako sistematizazioa ahalbidetu du, indarguneak eta ahulguneak modu propositiboan identifikatuz.

Iaz hartu genuen Torrealdaik berariaz utzitako lekukoa, eta aurten ere ikerketa lerro honi segida emango diogu Jakinetik. 2019ko liburugintzaren azterketa duzu ondorengoa.

## Ohar metodologikoak

Azterketa honek hamarkadatan zehar taxutu eta findutako metodologiari jarraitzen dio. Urtetik urtera saiatu gara hobetzen, azterketak fintzen eta informazio iturriak zehazten. Gogoratze aldera, esan dezagun lege gordailua dela urtea markatzen duena, eta urtearen barruan arakatzen duguna ISBN duen titulua dela. Bildu, ISBNdunak baino gehiago biltzen ditugu, eta horietako batzuk aurkitu daitezke gure webgunean jartzen dugun katalogoan.

Bi urrats nagusi ditu gure metodologiak: informazioaren bilketa eta azterketa bera.

## Informazioaren bilketa

Lehen urratsa liburuen katalogoa osatzea izaten da. Eta, horretarako, liburu bilketari ekiten diogu. Ematen duena baino nekezagoa da liburuen informazioa inguratzea. Guk aurrena informazioaren gune zuzenera jotzen dugu, editorialetara, eta gero sareak botatzen ditugu hemen eta han, informazio bila. Gezurra badirudi ere, ez digute euskal argitaletxe guztiek informazioa eskura ematen. Kanpoko argitaletxeekin, jakina, zailagoa da oraindik. Ez da harro egoteko moduko jarrera, gure ustez. Baina, zailtasunak zailtasun, katalogoa osatzea lortzen dugu.

Gure aurtengo informazio iturriak hauek izan dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean: %26.
- Liburutegiak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Donostiako Udal Liburutegi Nagusia: %23,3.
- ISBN (*International Standard Book Number*), ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) eta EIPS (*Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea*) arakatzuz lortua: %49,7.
- Bestelako bideak (Internet, Biblioteca Nacional espainiarra...): %1.

Aipagarria da argitaletxeetatik zuzenean jasotzen dugun informazioa gutxitzen ari direla azken urteetan, eta 2018tik dezentente jaitsi dela: %37,6tik %26ra. Informazio iturri fidagarri eta seguruena den heinean, zer pentsatua ematen digu beheranzko joera horrek.

Informazioa ahalik eta zehatzen bildu eta gero, liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzen dugu, hainbat datu edo ezaugarriren inguruan: titulua, autorea, itzultzailea, elebitasuna, argitalpen maila, moldatzailea, argitaratzailea, koedizioa, herria, neurriak, orrialde kopurua, gaia.

Jasotzen dugun eta bilatzen dugun informazioari esker fitxa bibliografikoak osatu ondoren, urteko katalogo osoa gure webgunean jartzen dugu kontsultagai. Esan bezala, azterketarako erabili ditugun tituluak baino gehiago daude webguneko zerrendan. Izan ere, eduki aldetik interesgarriak izan eta

arrazoiren batengatik ISBN gabe argitaratu diren batzuk ere eransten dizkiogu ISBNdunen zerrendari. 2019ko katalogoak 2.474 titulu biltzen ditu guztira: ISBN duten 2.291 titulu eta ISBN gabeko 183.

2013 urtetik, bitan banatuta eman ohi dugu azterketa hau. Eskuetan duzu paperezko bertsioa, azterketaren zati mami-tsuena. Baina, hau osatzeko, webguneko bertsio digitalera jo behar da (artikulu honen amaieran dator QR kodea): han daude informazio osagarriak, zehatzagoak, luze-zabalagoak. Katalogoa ere hortxe aurki dezakezu, hau da, 2019ko titulu guztien fitxa bibliografikoa.

### **Azterketa hiru ataletan**

Informazioa bildu ondoren, hiru ataletan banatzen dugu azterketa: ekoizleak eta ekoizpena, eskaintza editoriala eta ekoizpen tematikoa.

1. *Ekoizleak eta ekoizpena*: iturri desberdinen arabera kopuru desorekatua, ekoizle kopurua, hamar argitaletxe nagusien ekoizpena, argitaratzaileen tipologia eta tipologiaren arabera produkzioa.
2. *Eskaintza editoriala*: tituluak zenbat diren, horien artean zenbat diren nobedade eta zenbat berrargitalpen, zenbat diren jatorrizko eta zenbat itzulpen.
3. *Ekoizpen tematikoa*: urteko ekoizpena –aurtengo 2.291 tituluak, esate baterako– nola banatzen dira gai eremutan? Horri erantzuteko, sei gai eremu nagusi bereizten ditugu: hezkuntza eta irakaskuntza liburua, haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako liburua, helduen literatura, zientzia eta teknika alorreko eta aisia liburua.

### **Aurtengo azterketaren atarian**

Honako hauek dira 2019ko liburugintzak eman dituen datu kuantitatibo esanguratsuenak:

- *Argitaratzaileei dagokienez*, 290 izan dira 2019an: ekoizleen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen, 300 inguru dabil aspaldi. Jakina, ekoizle ugari horien artean denetik dago: argitaletxeak eta argitaratzaileak, txikiak eta handiak, profesionalak eta amateurrak, bertakoak zein kanpokoak, publikoak eta pribatuak, izatera askotarikoak.
- *Eskaintza editorialari dagokionez*, 2019ko ISBNdun tituluaren kopurua 2.291 da, horietako %79 bertsio analogikoan eta %21 digitalean.

Iaztik hona 105 titulu gehiago argitaratu da. Digitalean izan da gehikuntza osoa (192 titulu); aitzitik, liburu analogikoak 87 titulu egin du behera.

Nobedadeak %75,1 dira, 1.720 titulu, iaz baino 163 gehiago. Berrargitalpenen kopuruak, 571 titulu, 58 unitate galdu ditu iaztik, eta %24,9 dira aurten.

- *Gaiei dagokienez*, hezkuntza eta irakaskuntza liburua lehen tokira igo da berriro, 834 titulurekin (ekoizpen osoaren %36,4, iaz baino sei puntu gehiago).

Haur eta gazteentzako liburua bigarren tokira jaitsi da, 610 titulurekin (%26,6, iaz baino 7,3 puntu gutxiago).

Giza eta gizarte zientzietako liburuak hirugarren tokia berreskuratu du, 337 titulurekin (%14,7).

Helduen literatura, aldiz, laugarrenera jaitsi da (309 titulu, %13,5).

Bosgarren tokia aisia liburuari dagokio (93 titulu, %4), eta seigarrena zientzia eta teknikari buruzko liburuari (86 titulu, %3,8).

## **Ekoizleak eta ekoizpena**

### **Iturri estatistikoak**

Urtero konparatu ohi ditugu iturri estatistiko ezberdinek liburugintzari buruz egindako azterketatan eskaintzen dituzten datuak. Izan ere, datuen arteko aldea esanguratsua da oso: aski da ondoko taulak erakusten duen bost urteko

lagin hori ondorio berberera iristeko, hau da, zein den handia batzuen eta besteen emaitza desberdintasuna eta, batez ere, beste biekin alderatuz gurea.

<i>Urtea / Iturria</i>	<i>PEEL</i>	<i>Precisa / Conecta</i>	<i>Jakin</i>
2015	1.222	1.798	2.621
2016	1.222	1.790	2.266
2017	1.430	1.958	2.342
2018	1.116	1.842	2.186
2019	1.254	1.847	2.291

Gakoa informazio iturrietan dago, batetik, eta informazioa eskuratzeko metodologian, bestetik. Bestela ezin da kopuru diferentzia hori azaldu. Horrenbestez, ikertzailearen fidagarritasuna bera dago auzitan. Eta, fidagarritasunaren aurretik, baita metodologia bera ere.

Espainiako Kultura Ministerioaren *Panorámica de la edición española de libros* (PEEL) azterketa lege-gordailuz hornitzen omen da. Euskadiko Editoreen Elkartearentzat eta Espainiako Editoreen Elkarten Federazioarentzat lan egiten duen Conecta etxeak, aldiz, editoreei egin ohi dien kontsulta du informazio iturri.

Informazio iturri bakartzat argialetxeak hartuko bagenitu, guk ere jaso dugun informazioaren %26 bakarrik jasoko genuke. Beraz, argialetxeek

zuzenean ematen diguten informazioa jasotzeaz gain, guztiz proaktiboak gara: liburutegietara jotzen dugu, eta gainerako liburuen gunetan ere arakatu ohi dugu, arrasto bila.

2019an, izan ere, Conectaren datuetatik are gehiago urrundu dira guk lortutakoak: 444 titulu gehiago katalogatu ditugu. Azterketa guztiak jasotako datuetan oinarritzen direnez, nabaria da azterketa bakoitzak zer irismen eta balio izan dezakeen.

290 argitaratzaile izan dira 2019an: ekoizleen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen, 300 inguru dabil aspaldi. Jakina, ekoizle horien artean denetik dago

## Ekoizle ugari

Guztira, 290 dira 2019an libururen bat plazaratu dutenak. Aurreko urtean baino 44 argitaratzaile gutxiago egon da aurten: alegia, 2016ko kopuruetara itzuli gara.

Dena dela, argitaratzaile asko dira; gehiegi, nahi bada. Baina kontuan izan behar da horietako askok, gehien-gehienek, titulu bat bakarra kaleratu dutela. Eta, beraz, ezin daitezkeela editorialtzat hartu, ezta gutxiago ere. %56,2k titulu bakarra atera dute, erdia pasa dira. Areago: %79,7 dira lau titulu baino gutxiago ekoitzi dituztenak.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	163
2-4	68
5-9	21
10-19	18
20-29	8
30-39	3
40-49	1
50-59	1
70-79	2
80-89	1
90-99	1
100-150	2
150etik gora	3
<i>Guztira</i>	290

Aurreko urtean azpimarratu genuen bezala, urteko 20 tituluko neurriak ezar dezake editoreen arteko ekoizpenaren langa garrantzitsua. 2019an, bada, 20 titulutik gora editoreen %7,6k bakarrik ekoitzi dute, 22 editorek. Beste guztiek -268 argitaratzaile, %92,4- 20 titulu baino gutxiago atera dute. Urtero seinlatu izan dugu gure produkzioaren ahulezia dela ekoizleen atomizazioa.

Ehun titulutik gorako editorialen multzoa dago ahulezia horren goiko erpinean. Aurten bost izan dira ehun liburuko langa gaingitu dutenak, aurreko urtean baino bi gehiago: bost horiek ekoizpen osoaren %38,8 bildu dute.

Eta bi mutur horien artean, 20 titulutik behera atera duten 268 horien eta 100 titulutik gora atera duten bost bakar

horien tarteko erdiko mailako 17 editoreen presentzia eskasa da, eskasegia. Atomizazioa ez ezik, desoreka hori ere azpimarratu behar da.

ekoizleen panorama hori ezagututa, azter dezagun tipologiaren araberako bereizketa. Ez baita berdin, ez produkzio mailan, ez tematikan, argitaletxe komertzial peto-petoa izan, edo izan unibertsitate, udal edo kirol elkarte, adibidez.

### Argitaletxe nagusien ekoizpena: 1.234 titulu

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	89	209	298	13,0
Ikasmina	168	4	172	7,5
Anaya-Haritz	114	38	152	6,6
Edelvives-Ibaizabal	139	9	148	6,5
Santillana-Zubia	120	0	120	5,2
Erein	55	36	91	4,0
Edebé-Giltza	26	62	88	3,8
Ikaselkar	27	49	76	3,3
Ttartalo	38	12	50	2,2
Alberdania	35	4	39	1,7
<i>Guztira</i>	<i>811</i>	<i>415</i>	<i>1.234</i>	<i>53,8</i>

Hamar argitaletxe, handienak eta komertzialak, daude zerrenda honetan. Bada hemen agertzen direnak baino gehiago ekoitzi duenik –EHU, 74 titulurekin, bederatzigarren legoke zerrendan–, baina komertzial eta pribatua ez denez, ez dugu aintzat hartu.

Hamar handienen indarra igo egin da: 1.234 titulu. Garai batean, batzuek uste zuten hamar lehenek, horiek edo beste batzuek, gaztaren zati bat ez baizik eta osorik jango zutela. Ez da horrela gertatu. Eta, gainera, badirudi egonkorra dela egoera.

Hamar gorenak izanda ere, bost ez dira ehun titulura iristen. Bestela esan, indartsuenak ere ez dira horren handi.

Hamar horien emaitzak ekoizpen osoaren %53,8 suposatzen du (iaz baino 4,1 puntu gehiago ekoizpen osoan).

Beti du interesa, gure kasuan, argitaletxeen jatorri geografikoa ezagutzeak. 2019an, bosna dira bertako eta kanpoko.

Hori bai, bertakoak baino indartsuagoak dira kanpokoak hamar horien ekoizpenaren barruan: %55,1 vs %44,9. Ekoizpen orokorrarekiko, aldiz, bost puntuko aldea ateratzen diete kanpokoek bertakoei: %29,6 vs %24,2.

Bertako eta kanpoko argitaletxeen alderik handiena, aurten ere, berrargitalpen politikan dago. Bertakoek %74,7ko indarra dute, eta, kanpokoek, titulu gehiago ekoitzi arren, %25,3koa bakarrik

Bertako eta kanpoko argitaletxeen artean alderik handiena, aurten ere, berrargitalpen politikan dago. Eskuratu ahal izan dugun informazioa fidagarria bada, bertakoek %74,7ko indarra dute berrargitalpenaren baitan, eta, kanpokoek, titulu gehiago ekoitzi arren, %25,3koa bakarrik. Datuak egiazkoak balira (egia ote, adibidez, Santillana-Zubiak batere berrargitalpenik ez duela, edo Ikasminak lau

bakarrik?), guztiz esanguratsua litzateke diferentzia hori, berrargitalpenak ekoizpen osoari ematen dion egonkortasun eta ibilbidea kontuan hartzen badugu.

### Argitaratzaileen tipologia

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertako argitaldari pribatu komertziala	82	937	40,9
Kanpoko argitaldaria	52	870	38,0
Irakaskuntza + unibertsitatea	9	111	4,9
Elkarte, taldea, fundazioa, erlijio-etxea...	83	143	6,2
Argitaldari publikoa	34	154	6,7
Besterik	30	76	3,3
<i>Guztira</i>	<i>290</i>	<i>2.291</i>	<i>100,0</i>

Argitaratzaileen unibertsoa heterogeneoa da. Bertan dauke bertakoak eta kanpokoak; argitaratzaile komertzialak eta ez-komertzialak; pribatuak zein publikoak; handiak eta txikiak; irakaskuntzakoak; talde, elkarte, fundazioak. Guk horiek denak bost multzoko tipologian ordenatu ohi ditugu.

## Bertakoak eta kanpokoak testuliburuen merkatuan

Testuliburuen merkatua aztertzeko ere, hamar ekoizle handien unibertsoan jarraitzen dugu.

Bertako eta kanpoko editorialen bereizketa geografikoa da azalez, baina ekosistema industrial eta kulturean berebiziko garrantzia duena sakonean. Kontua da ekoizpenaren erabakigunea nork duen, bereziki hezkuntza curriculumari lotutako arloan. Izan ere, hezkuntza edo irakaskuntzako liburu produkzio handiena ez dago euskal editorialen esku, baizik eta estatu mailako argitaletxeetan. Curriculum propioa proposatzen duen Eusko Jaurlaritzarentzat badu garrantzirik gertakari horrek.

Batzuek eta besteek ekoizpenean duten gradua ez da urtero bera izaten, baina kanpokoaren esku hartzearen emaitza urtero da handia, ikasmaterialetan ekoizpenaren erditik gorakoa. Hona azken urteotako emaitzak hamar argitaletxe nagusien artean:

<i>Ekoizle nagusien pisua irakaskuntzan</i>			
<i>Urtea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>
2015	17,7	78,8	3,5
2016	22,4	74,5	3,1
2017	32,3	61,7	6,0
2018	30,0	65,0	5,0
2019	23,6	73,1	3,3

Garrantziaren handia kontuan hartuta, hiru taula baliatuz azalduko dugu jarraian bi ekoizle-mota horiek, alegia, kanpoko argitaletxeek edo bertako argitaletxeek, argitalgintzan duten portaera. Bereziki curriculumara arakaturik ere, argigarri da gainerako gai-eremutan duten ekarpena ere kontrolatzea. Horretarako, taula bakoitzean gai eremu guztiak daude zerrendatuta.

Taula bakoitzak bost zutabe dauzka: lehenean gaia agertzen da, eta hurrengo hiruretan ekoizleak: bertako, kanpoko eta gainerakoak. Bertako eta kanpoko diogunean, ez gara ari hango edo hemengo guztiez, baizik eta argitaletxe profesional-komertzial-privatuez, aurreko atalean aipatu ditugun

bestelako ekoizleak (publikoak, elkarteak, irakaskuntzan alorrekoak...) aintzat hartu gabe.

Lehen taulan zifra absolutuak agertzen dira, eta horiei esker ikus daiteke zein den edizio mota bakoitzaren pisua.

Bigarren taulak alderaketaren ikuspegia proposatzen du. Ezker-eskuin, etzanean irakurri behar da taula hori, gai-eremuz gai-eremu kanpokoak eta barrukoak indarra zein den neurtzeko.

Hirugarren taula, azkenik, zutikakoa edo bertikala da, zutabe bakoitza goitik behera irakurtzekoa. Editorial mota bakoitzaren baitan ekoizpena non mamitzen den adierazteko balio du. Edizio mota bakoitzaren indargune eta ahulguneak non dauden erakusten du.

Lehen taulan, horrenbestez, balio absolutuak ematen ditugu, eta horiei esker badakigu edizio mota bakoitzaren balio kuantitatiboa.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Balio absolutuak</i>			
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	928	872	491	2.291
HI	197	610	27	834
HG	376	202	32	610
GG	50	9	278	337
HL	252	14	43	309
AL	32	18	43	93
ZT	13	18	55	86
Besterik	8	1	13	22

Oro har, ekoizpen osoaren baitan, Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak dira nagusi, bai bertako editore komertzialek argitara ematen dutena (928 titulu) eta bai elkarte, talde, fundazio, argitaldari publiko eta enparauiek argitaratzen dutena (491 titulu); 1.419 titulu dira guztira (ekoizpen osoaren %61,9).

Gai eremuak banaka begiratzuz ere, bertakoen zifrak altuagoak dira sailez sail, salbuespen nabarmen batekin: hezkuntza eta irakaskuntza liburuan oso goitik daude kanpokoak, 610 vs 197. Iaztik desoreka ia bikoiztu egin da, gainera, kanpokoak emariaren alde betiere.

Bigarren taula honetan, alderaketaren ikuspegia proposatzen da.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% horizontalak</i>			
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	40,5	38,1	21,4	2.291
HI	23,6	73,1	3,2	834
HG	61,7	33,1	5,2	610
GG	14,8	2,7	82,5	337
HL	81,6	4,5	13,9	309
AL	34,4	19,3	46,3	93
ZT	15,1	20,9	64,0	86
Besterik	36,3	4,6	59,1	22

Ezker-eskuin, etzanean, irakurri behar da aurreko taula hori, gai-eremu zuzenaren kanpokoak eta barrukoak indarra zein den atzemateko.

Ekoizpen osoa aintzat hartuz, bertakoak dira nagusi kanpokoak aldean (%40,5 vs %38,1). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren lerro horizontalean, aldiz, alde handiz dira nagusi kanpokoak, bertakoekiko 50 puntuko alde nabarmenarekin. Iazko alde 30 puntuko zen bien artean: ikaragarri handitu da desoreka!

Bien arteko konparaketa horretan, argi ikusten da aurten ere kanpokoak ekoizpen sinbolikoa dutela bestelako gaietan: ia esku hartzerik ez dutela helduen literaturaren eta giza eta gizarte zientzietako liburuen alorretan. Argi dago, kanpoko editorialak ez dira euskal liburugintzaren ekosisteman integratzen: haur eta gazteen eta eskola liburuen merkatu kautibora mugatzen dira, besterik gabe.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% bertikalak</i>	
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
Ekoizpen osoa	100,0	100,0
HI	21,2	69,9
HG	40,5	23,2
GG	5,4	1,0
HL	27,2	1,6
AL	3,4	2,1
ZT	1,4	2,1
Besterik	0,9	0,1

Irakurketa bertikala benetan esanguratsua da editorialen filosofia aurkezteko: argitaldari espainiarren ekoizpena haur eta gazteentzako eta hezkuntza liburuetan zentratzen da kuantitatiboki (%93,1); eta, bereziki, hezkuntzakoan (%69,9). Gainerako alorretan ez dute ia ezer ekoizten.

Lau taula horiek argi uzten dute Hegoaldeko eskoletan curriculum espainiarra dela zabalduena. Izan ere, kanpoko argitaletxeek hezkuntzaren muinari heltzen diote, euskal curriculumari. Helburu nagusi eta bakarra horixe dute, Euskal Herriko eskoletan kanpoan sorturiko curriculum egokitua sartzea.

Gure betiko kezka, horrenbestez, ez du lasaigarririk topatu 2019ko ekoizpenean; aitzitik, esan dugun bezala, kanpokoan aldeko desoreka nabarmen areagotu da.

Hegoaldeko eskoletan curriculum espainiarra da zabalduena. Kanpoko argitaletxeek helburu nagusi eta bakarra horixe dute, Euskal Herriko eskoletan kanpoan sorturiko curriculum egokitua sartzea

Kezka horien inguruan sarritan aipatzen ditugun arrazoi eta argudioak ezin hobeto islatu ziren *Berria*-k azaroaren 14an argitaratutako 'Euskal Herria testuliburuetan' erreportaje sortan. Bertan, besteak beste, zenbait argitaletxek DBHko Gizarte Zientzien arlorako eginiko testuliburuak aztertu zituen Iñaki Petxarromanek, batik bat 'Euskadi' eta 'Euskal Herria' terminoen erabilpenari batzuetan eta bestee-

tan ematen zaion tratamenduari helduz. Eta, espero bezala, agerian geratzen da bertako eta kanpoko argitaletxeen irizpideen arteko aldea. Mikel Peruarenak egun berean *Hizpideak* atalean idatzitako hitzek ere bikain laburbiltzen dute auziaren mamia:

Beti dago proiektu nazional bat atzean. Euskal Herriaren aldeko edozer egitea *doktrinatzeta* da, eta Espainia edo Frantzia daudean eustea *normalitatea*, baina beti dago proiektu nazional bat

eraikitze bitarteko bat atzean. Proiektu nazionalak egunero eraikitzen direlako. [...] Estatuek dute proiektu nazionalak irudikatze boterea. [...] Eta horregatik desagertzen da Euskal Herria ikasliburuetatik. Ezin dena imajinatu ezin delako existitu. Eta auzi honetan ikasliburuak ez dira neutroak. Euskal Herria erakustea bezainbesteko *doktrinamendua* da ez erakustea; proiektu nazionalen arteko gatazka batean gaudelako hemen.

## Eskaintza editoriala


Azterketa honen bigarren atalean, argitaratzaileen emaitza material eta kuantitatiboez jardungo dugu. Hainbat ezaugarri arakatuko ditugu jarraian: titulu kopuru, liburuen egile-tza kronologikoa eta linguistikoa. Eta hori guztia, ez soilik aurtengo datuekin, fokua 2000tik gaurdainoko bilakaerara irekiz baizik.

Eskaintzaren azterketari buruzko gure ekarpen nagusia, beharbada, emaitza bakoitza bere testuinguru kronologikoan ematea da; izan ere, urteko informazio soilak ez du, isolaturik, interpretaziorako biderik irekitzen.

2019ko eskaintza editorialaren datu nagusien laburpen txiki batekin hasiko gara. Aurtengo titulu kopurua igo egin da: 2.291 titulu izan dira aurtengo, horietako %79 bertsio analogikoan atereak eta %21 digitalean. 1.720 titulu nobedade edo lehen edizio dira (%75,1), aurreko urtean baino 163 gehiago. Berrargitalpenen kopurua, berriz, jaitsi egin da, 571 titulu (%24,9). Euskaraz sorturikoak 1.160 dira (%69,3); itzulpenak, hortaz, 560 titulu (%30,7).

### 2.291 titulu

2000tik honako ibilbidean 2008ko eta 2015eko liburugintzatan kokatu dira bi gailurrak, bi puntu gorenak: 2.696 eta 2.621 titulurekin, hurrenez hurren. Gainerakoan, azken urteetan ekoizpena 2.200 tituluren bueltan dabil: 2019an pixka bat igo egin da eta neurri horretatik gorago iritsi da, 2.291 titulurekin.




Hurrengo laukian, aldiz, ekoizpen hori bitan banatua dator, analogikoa eta digitala, biak elkarren arteko alderaketan. Eta argi eta garbi ikus daiteke ekoizpen digitalak hartzen duela bere bizkar urteko igoera, 192 titulutan emendatu baitu aurreko urtekoa. Paperezkoak, aldiz, behera egin du, 192 titulu gutxiagorekin. Aurreko urtean gertatutakoari buelta eman zaio, 2018an analogikoak gora eta digitalak behera egin baitzuten.

<i>Urtea / Liburu mota</i>	<i>Analogikoa</i>	<i>Digitala</i>	<i>Guztira</i>
2007	2.225	39	2.264
2008	2.587	109	2.696
2009	2.195	243	2.438
2010	2.017	258	2.275
2011	2.160	242	2.402
2012	2.062	176	2.238
2013	1.690	184	1.874
2014	1.715	526	2.241
2015	1.910	711	2.621
2016	1.787	479	2.266
2017	1.835	507	2.342
2018	1.897	289	2.186
2019	1.810	481	2.291

### Nobedadeak eta berrargitalpenak

Gorabehera txikiekin, azken urteetako proportzioei eusten die aurtengo ekoizpenak ere: nobedadeak hiru laurden hartzen dituzte, eta berrargitalpenek beste laurdena. Argi dago euskal liburugintzan nobedadeak sekulako indarra duela, eta

berak definitzen duela ekoizpenaren ildoak. Berrargitalpenen ehunekoak, iazko igogeratxoaren ondoren, laurdenerako bidea hartu du atzera.



Urtea	Nobedadea	Berrargitalpena
2000	65,7	34,3
2001	71,7	28,3
2002	70,8	29,2
2003	71,1	28,9
2004	74,0	26,0
2005	71,2	28,8
2006	67,9	32,1
2007	69,8	30,2
2008	69,5	30,5
2009	69,8	30,2
2010	71,0	29,0
2011	71,8	28,2
2012	68,3	31,7
2013	68,0	32,0
2014	74,0	26,0
2015	80,8	19,2
2016	75,2	24,8
2017	74,5	25,5
2018	71,2	28,8
2019	75,1	24,9
Batez beste	71,6	28,4

Beti pentsatu izan dugu berrargitalpenak indar handiagoa beharko lukeela, eredugarriagoa zaigun edizio frantsesaren ildotik. Izan ere, berrargitalpenaren ahulezia euskal liburugin-tzaren izaera diglosikoaren sintoma bat gehiago da, gure ustez.

## Ekoizpen tematikoa

Argitaletxeen jardunaren emaitza aztertu ondoren, ekoizpen tematikoan edo edizioaren muinean gaude. Izan ere, bibliografoaren ikuspegitik harago, ekoizpenaren zenbatekoa bera baino gehiago interesatu izan zaigu beti ikuspuntu soziologikoa: euskaraz zer argitaratzen da, eta argitaratzen den hori non eta nola txertatzen den euskal kulturaren.

Urteroko ekoizpena, beraz, gaika sailkatu ohi dugu, nazioartean erabili ohi diren ereduaren arabera. Eta sailkaturiko eremu bakoitzean ikuspegi ebolutiboa aplikatzen dugu, bost urteko erreferentzia bederen eduki dezagun.

Horrenbestez, argitaratutako tituluak zortzi gai sailetan banatzen ditugu urtero:

1. Hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak.
2. Haur eta gazteentzako liburuak.
3. Giza eta gizarte zientzietako liburuak.
4. Helduen literatura.
5. Zientzia eta teknika alorreko liburuak.
6. Aisiako liburuak.
7. Orotarikoak.
8. Erlijio liburuak.

Zortzi arlo horietatik lehenengo seiak bakarrik aztertuko ditugu, horiek baitira hornituenak.


Aurtengo aldaketa aipagarrien artean, hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ia beti gorde ohi duen lehen lekua berreskuratu du ekoizpen orokorrean (834, %36,4), haur eta gazteentzako liburuaren aurretik (610, %26,6). Ikusten denez, nabarmena da haur eta gazteei zuzendutako liburuaren produkzioa: %63; azken buruan, bai irakaskuntzako liburuak eta bai haur eta gazteentzakoak publiko bera du jomuga.

Bi multzo horiek kenduta, gainerakoen pisua gehiegi arintzen da: hurrengoa giza eta gizarte zientzietako liburua da (337, %14,7), eta orpoz orpo doakio helduen literatura (309, %13,5). Bi horiek ere hirugarren eta laugarren lekua trukatu dituzte 2018tik. Askoz atzerago datoz aisia liburua (93, %4)

eta zientzia eta teknikari buruzkoa (86, %3,8).

Liburu sail horiek banan-banan arakatuko ditugu, baina on da hasieran ikuspegi globala ematea. Helburu hori dute hurrengo grafikoak eta laukiak; bakoitzak bere modura, errealitate bera erakusten digute: urteko ekoizpen osoa balio absolutuetan eta erlati-boetan. Laukian beste erreferente bat sartu ohi dugu, 2000. urtea, mende honetako lehen urtearekiko zertan gauden adieraztearren, zerk egin duen gora eta zerk behera.

Hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ia beti gorde ohi duen lehen lekua berreskuratu du ekoizpen orokorrean (834, %36,4), haur eta gazteentzako liburuaren aurretik (610, %26,6)



<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2019/2000</i>
Hezkuntza/Irakaskuntza	834	36,4	+36,3
Haur eta gazteentzako liburuak	610	26,6	+64,4
Giza eta gizarte zientziak	337	14,7	+16,6
Helduen literatura	309	13,5	+8,4
Aisia	93	4,0	–
Zientzia/Teknika	86	3,8	-12,2
Besterik	22	1,0	–

Ekoizpen tematiko sailkatura igaro aurretik, ohar bat: gai sail bakoitzean informazioz betetako taula bat ageri da. Gaiari

dagokion laburpen osoa biltzea du xede: azken bost urteotako eboluzioa kontzeptu guztietan, hala nola, tituluetan, ekoizpen osoarekiko ehunekoan, urtetik urterako eboluzio alderatuan, itzulpenaren eta berrargitalpenaren urte bakoitzeko pisuan, urteko orrialde kopuru orokorrean eta liburu bakoitzeko orrialde kopuruan.

### Hezkuntza eta irakaskuntza: 834 titulu

	2015	2016	2017	2018	2019
Hezkuntza/Irakaskuntza	1.159	852	786	664	834
Ekoizpenaren %	44,2	37,6	33,6	30,4	36,4
Urtetik urtera %Δ	56,0	-26,5	-7,7	-15,5	25,6
Itzulpenen % (1. edizioan)	13,4	26,5	26,5	34,0	14,0
Berrargitalpenen %	19,8	27,2	33,2	39,3	31,4
Orrialde kopurua	117.018	104.543	68.862	60.562	76.071
Orrialde kopurua liburuko	101,0	122,7	87,6	91,2	91,2

2018an sailkapen orokorrean galdutako lehen lekua berreskuratu du liburu mota honek, 170 titulu gehiago argitaratuta. Ondorioz, urteko ekoizpen orokorrean, sei puntuko pisua irabazi du (aurreko urtean baino %25,6 gehiago argitaratuta, alegia).

Bietan irabazi ditu tituluak, gainera: analogikoan 51, eta batez ere digitalean, 119. Bakoitzaren indarra honela banatzen da: 565 titulu analogiko (%67,7) eta 269 digital (%32,3). Digitalak, ikusten daitekeenez, indar handia du hezkuntza eta irakaskuntzako liburuan.

Itzulpenaren pisua, bestalde, ikaragarri jaitsi da sail honetan, %34tik %14raino. Egia esan, ez zaigu guztiz fidagarria iruditzen, konbentziturik baikaude egiazko itzulpena askoz ere altuagoa dela testuliburuaren esparruan; izan ere, argitaletxe batzuetan ahalegin handia egiten da itzulitakoa edo birmoldaturikoa izan dena nobedadea bailitzan agertzen.

Liburu mota honen berrargitalpen maila %31,4ra iritsi da; duela hamar urte inguru ia erdira ere iritsi izan zen arren, badirudi azken urteotan herenaren inguruan egonkortzen ari dela.

## Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak. Hezkuntzaren antolakuntza..	4,9
Eskolaurrea. Haur eskola.....	4,9
Lehen Hezkuntza.....	71,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	14,8
Besterik.....	4,1
	%100,0

Barne sailkapenean argi ikusten denez, LH eta DBH dira sail hornituenak. Hurrengo taulan, bi horien balioak sei urteko perspektiban bildu ditugu.

Urtea	LH	DBH
2014	51,0	24,4
2015	65,0	26,7
2016	28,7	53,5
2017	27,7	40,1
2018	43,8	28,9
2019	73,8	14,7

Ikuspegi diakroniko horren bitartez, azken bi urteetan LH-ko liburuak egin duen gorakada nabaria azpimarratu behar-ko litzateke: 2019an inoizko proportzio handiena hartu du, ekoizpenaren ia hiru laurdenetara iritsita. Eskola materialen egutegi propioa eta politika editorialak gurutzatzen diren esparru batean gaudenez, ez dugu uste irakurle goaren profilaren edo hezkuntza politikaren alorreko azalpenak bilatu behar direnik. Baina, dena dela, arreta handiz ikusi behar-ko dugu aurrerantzean joera horiek egonkortzen diren.

## Haur eta gazteentzako argitalpenak: 610 titulu

	2015	2016	2017	2018	2019
Haur/Gazte	654	606	695	740	610
Ekoizpenaren %	25,0	26,7	29,7	33,9	26,6
Urtetik urtera %Δ	3,6	-7,3	14,7	6,5	-17,6
Itzulpenen % (1. edizioan)	70,5	68,0	73,6	69,4	65,4
Berrargitalpenen %	28,9	37,6	32,5	35,1	35,1
Orrialde kopurua	36.778	37.935	52.150	49.432	44.499
Orrialde kopurua liburuko	56,2	62,6	75,0	66,8	72,9

Haur eta gazteentzako liburua ohikoagoa zaion bigarren lekura itzuli da. Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren gorakadak bezainbesteko eragina izan du aldaketa horretan liburu mota honek kopuru absolutuetan pairatu duen beherakadak: 2018an baino 130 titulu gutxiago izan ditu, eta ekoizpen osoarekiko ehunekoak 33,9tik 26,6ra amildu da.

Liburu mota honetan, itzulpenaren pisua beti izan da handia; 2019an ere halaxe da, %65,4. Berrargitalpenak ere garrantzi dezentea du (%35,1), 2018ko berbera, hain zuzen ere; eta, hala ere, seguruenik, produkzioan beharko lukeena baino apalagoa, liburuaren izaera eta helmuga kontuan izanda.

### Giza eta gizarte zientziak: 337 titulu

	2015	2016	2017	2018	2019
Giza/Gizarte	313	322	334	288	337
Ekoizpenaren %	11,9	14,2	14,3	13,2	14,7
Urtetik urtera %Δ	-14,0	2,9	3,7	-13,8	17,0
Itzulpenen % (1. edizioan)	29,0	34,2	27,6	33,1	27,1
Berrargitalpenen %	6,4	8,4	7,8	7,6	5,9
Orrialde kopurua	57.077	57.648	72.548	51.294	58.842
Orrialde kopurua liburuko	182,4	179,0	187,3	178,1	174,6

Liburu mota honek ere, hezkuntza eta irakaskuntzakoak bezala, ohikoa zaion lekua berreskuratu du sailkapenean: hirugarren dator, helduen literaturari aurrea hartuz.

Alor honetako sail guztietarako 337 titulu argitaratu dira: aurreko urtean baino 49 titulu gehiago, puntu eta erdi gehiago ekoizpen orokorrean. 2018an galdutakoa berreskuratu da.

Analogikoaren zein digitalaren kopuruak ez dira askorik aldatu: zehazki, liburu analogikoa %86,4 da (291 titulu) eta digitala %13,6 (46). Alegia, digitalak ez du garrantzi handirik liburu sail honetan.

Itzulpenaren pisua sei puntu jaitسي da, %33,1etik %27,1era.

Sail honek esparru handia hartzen du bere baitan, filosofiatik hasi eta geografia edo historiaino, soziologia, etnologia edo hizkuntzalaritzatik barrena. Mundu oso bat. Eta hori guztia elikatzeke 300 titulu inguru dauzkagu euskaraz. Eta urtero

ia titulu guztiak berriak dira, berrargitalpenak ez baitu ia indarririk: 2019an %5,9, aurreko urteetan baino are txikiagoa.

Ez du errorik sakontzen argitalpen mota honek. Gure diglosia kulturalaren seinale, hain zuzen. Euskal liburuaren gure kontsumoa guztiz diglosikoa da, desorekatua, sakontasun eskasekoa, alor batzuetara mugatua.

### Barne sailkapena

Filosofia. Psikologia.....	1,8
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	24,3
Zuzenbidea. Administrazioa.....	10,1
Etnologia. Etnografia.....	4,4
Artea. Hirigintza.....	25,3
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	15,1
Geografia. Historia.....	19,0
	%100,0

Liburu mota honek bere baitan biltzen duen gaitegi zabala erakusten du zerrenda horrek. Eta hori guztia elikatzeko, 337 titulu besterik ez. Asko esaten du horrek gure kulturaren eta liburugintzaren izaeraz.

### Helduen literatura: 309 titulu

	2015	2016	2017	2018	2019
<i>Helduen literatura</i>	296	277	285	316	309
ekoizpenaren %	11,3	12,2	12,2	14,5	13,5
Urtetik urtera %Δ	-3,9	-6,4	2,9	10,9	-2,2
Itzulpenen % (1. edizioan)	28,2	23,4	22,3	26,4	30,9
Berrargitalpenen %	18,6	24,5	24,6	24,4	21,4
Orrialde kopurua	37.480	47.218	43.793	51.685	39.169
Orrialde kopurua liburuko	126,6	170,5	153,7	163,6	126,8

Helduen literaturaren saileko 309 tituluaren pisua %13,5 da ekoizpen orokorrean, iaz bezainbestekoa gutxi gorabehera, bai zenbaki absolutuetan, bai ehunekoetan.

Paperean 2018an baino 45 titulu gutxiago argitaratu dira. Digitalean, aldiz, gora egin du kopuruak: 38 titulu igo da. Digitalak, izan ere, badu pisua liburu mota honetan.

Zehazki, %28,8 da digitala (89 titulu), batezbestekotik gora, hain zuzen ere.

Lehen edizioan itzuli diren literatur liburuak %30,9 dira, 75 titulu.

Espero zitekeenaren bestaldera, %21,4 bakarrik berrargitaratzen da, 66 titulu. Literaturaren kontsumoa salatzen du horrek, ez dela horren handia. Gutxi asko kontsumitzen bide dute, eta titulu gutxi batzuek berrargitalpen ugari bide dituzte. Baina ari al da sortzen merkatu berririk?

## Generoka

Eleberria. Ipuina.....	60,5
Olerkia.....	14,2
Antzerkia.....	3,2
Herri-literatura. Bertsoa.....	2,9
Mizelanea. Kronika. Saioa.....	14,6
Literatur teoria eta kritika.....	4,6
	%100,0

Aurten ere berriro errepikatu eta azpimarratu behar da egoera bera, narratibaren nagusitasuna: %60,5, gainerako generoak urruti utziz. Olerkiak, bere aldetik, bost puntuko galera izan du 2018tik.

## Gainerakoak

### Zientzia eta teknika: 86 titulu

	2015	2016	2017	2018	2019
Zientzia/Teknika	104	107	134	62	86
ekoizpenaren %	4,0	4,7	5,7	2,8	3,8
urtetik urtera %Δ	13,0	2,9	25,2	-53,7	38,7
Itzulpenen % (1. edizioan)	35,1	27,2	19,8	15,0	16,9
Berrargitalpenen %	6,7	3,7	6,0	3,2	3,5
Orrialde kopurua	8.782	8.937	11.190	7.145	9.734
Orrialde kopurua liburuko	84,4	83,5	83,5	115,2	113,2

Zientzia eta teknika alorreko liburuak, iazko jaitsiera katastrofikoaren ondoren, pittin bat gorantz egin du: 86 titulu

izan ditu, 2018an baino 24 gehiago. Ez zeukan beste erremediorik!, esan genezake ia-ia, iazko joerari eutsiz gero guztiz desagertzeko zorian egongo baitzen. Baina, hala eta guztiz ere, 2000ko kopurutik behera dabil aurten ere. Datu esanguratsua, benetan. Sarritan dioguna, sail honek, eduki diziplinar eta espezifikoak izanagatik, kultura osoago batean pisu duinagoa izan beharko luke.

Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	40,7
Medikuntza.....	31,4
Ingeniaritza. Teknologia.....	9,3
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	18,6
	%100,0

#### Aisia liburuak: 93 titulu


Musika.....	14,0
Argazkia.....	12,9
Jolasa. Jokoa. Kirola.....	11,8
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	7,5
Kiosko literatura.....	53,8
	%100,0

Aisiako liburuak iazko kopurua errepikatu du, 93 titulurekin. Ekoizpen orokorrean pisu txikia duen arren, garrantzi handia du gizarte modernoan. Baina, tamalez, modernitatearen ikur den aisiak euskaraz ez du tiradizo handirik, antza denez. Diglosiaren beste seinale bat: liburu mota hau ere erdaraz kontsumitzen dugu. 🍷



**2019ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA**

Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>685</b>	<b>29,9</b>
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	25	1,1
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	660	28,8
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>6</b>	<b>0,3</b>
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	6	0,3
<b>2. ERLIJOA. TEOLOGIA</b>	<b>11</b>	<b>0,5</b>
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	11	0,5
<b>3. GIZARTE ZIENTZIAK</b>	<b>969</b>	<b>42,3</b>
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	135	5,9
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	834	36,4
<b>5. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA ZIENTZIA NATURALAK</b>	<b>26</b>	<b>1,1</b>
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	26	1,1
<b>6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>49</b>	<b>2,1</b>
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	49	2,1
<b>7. ARTEA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>124</b>	<b>5,4</b>
— Artea. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	109	4,8
— Jostaldia. Ikuskizunak. Jolas eta jokoak. Kirolak	15	0,6
<b>8. FILOLOGIA. LITERATURA</b>	<b>357</b>	<b>15,6</b>
— Hizkuntzalaritza. Filologia	48	2,1
— Literatura. Literatur generoak	309	13,5
<b>9. BIOGRAFIA. HISTORIA. GEOGRAFIA</b>	<b>64</b>	<b>2,8</b>
— Biografia	13	0,6
— Historia. Geografia	51	2,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.291</b>	<b>100,0</b>



 euskadi  
irratia  
gertu

## IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

### Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

### Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

### Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzue etxean.

### Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

## EROSI

### Aldizkaria

#### PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

#### DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

### Artikuluak

#### DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

### Liburuak

#### PAPERA

- Jakinkide bazara  **10 €**
- Jakinkide ez bazara  **12 €**

#### DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**





2021



KULTURA DEBEKATU  
DIGUTE,  
BAINA LIBERTIMENDUAK  
EZ DIRA ISILDU.

**Jakin**<sup>•eus</sup>  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

